# Goienkaria

2009ko maiatzaren 29a > Egubakoitza > IX. urtea > 378. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Gazteok prestatuta gaude Fidel Castro hiltzean iraultzarekin jarraitzeko"



**Yoelkis Sanchez** Kubako Batzar Nazionaleko diputatua > 09

**G2a** **Joe Henry musikaria bihar Arrasaten** > 37

**BERGARA** **Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra onartu dute asteon** > 16

**ESKORIATZA** **Hileta eta omenaldi zibilak egiteko ordenantza onartu du Udalak** > 29

**ARAMAIO** **Herria zeharkatuko duen linea elektrikoagatik kezka dago** > 32

**MEMORIA HISTORIKOA** > GERRA FRANKISTA

# Gerrako hobi bat ikertuko dute, zortzi gorpu dituena

**ELGETAN** Ikatzarre inguruan dago, Elgetan; Intxorta elkarteak lekuko bati esker du haren berri eta daki gertatutakoa

**PROIEKTUAK** Hobi hori ikertu eta Elgetako fronteko ibilbidea antolatu nahi du Intxorta Kultur Elkarteak > 02-03




**AURKEZPENA** Bergarako eta Oñatiko udaletako eta Aldundiko ordezkariak erremontistekin. GOIENKARIA

## Erremonte kopako lehen kanporaketa etzi, Bergarako Pazkoetan

Gaur hasi eta martitzenera arte Mendekoste jaiak ospatuko dira Bergaran, eta pilotak aparteko protagonismoa izango du. Domekako hitzordua nabarmentzekoa da, Gipuzkoako erremonte kopako lehen kanporaketa jokatuko da-eta (17:30). Finala Oñatin izango da, ekainaren 27an.

**EKONOMIA** > KRISIA

## Gastuak murrizteko udal plana Eskoriatzan

Eskoriatza bereziki zigortzen dabil krisi ekonomikoa: hango langabezia tasa %13tik gorakoa izan da apirilean, Debagoieneko handiena, eta Eskoriatzako Industrialdeak urtetako galerak ditu. Hori ikusita, "zuhurtasuna" eta "sistema aldaketa" proposatzen du Eskoriatzako Udalak, eta badabil horretan: besteak beste, industrialdeari konponbidea eman gura dio, eta Udaleko zein herriko gastuak murriztu gura ditu. > 11

**POLITIKA** > AUZIA

## Arrasateko Elkartasun Eguna, auzitan

Arrasaten egiten den Elkartasun Eguna debekatzeko eskatu dio Dignidad y Justicia terrorismoaren biktimen elkarteak Auzitegi Nazionalari. Elkarte horrek salaketa jarri du egun horrek terrorismoa goraipatzen duelakoan. Arrasatekoa ez ezik, Hernanin eta Algortan egiten direnak ere debekatzeko eskatu dute. Antolatzaileak, Portaloira Topaguneak, ez du baloraziorik egin nahi izan, jakinarazpen ofiziala izan arte. > 12

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-05
**Iritzia** > 06
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 11-33
**Kirola** > 34-35
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 44-45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47




Medikuak 13:50ean eman zuen hiltzat kamioilaria Ertzaintzaren arabera. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > ISTRIPUA

## Kamioilaria hilda istripuan Antzuolan

Kamioia irauli eta 47 urteko gizonezko moldaviarra kabinan harrapatuta geratu zen. Suhiltzaileak hura ateratzen saiatu ziren baina ezin izan zuten ezer egin. Antzuolako sarreran gertatu zen istripua, 12:30 aldera. > 04

**ARRASATE** > AZOKA

## Antzinako Arrasate ezagutzen

Antzinako Arrasate delako ferian 60 artisau inguruk hartuko dute parte bihar eta etzi > 23-26

MEMORIA HISTORIKOA > GERRA FRANKISTA

# Elgeta, 36ko gerra eta euskal historia ulertzeko giltzarri

**INTXORTA ELKARTEA** Hainbat proiektu dauzka elkarteak; tartean, Elgetako fronteko ibilbidea lehenbailehen zabaltzea

**BESTE HILOBI BAT** Elgetako Ikatzarre baserri inguruan hilobi bat non dagoen badakite, eta zortzi gorpu daudela ere bai



**> INTXORTAKO FRONTEA** Elgetako frontea bertatik bertara ezagutzeko ibilbidearen proiektua jendaurrean aurkeztu dute aurten. Asmoa da berau aberastea orduko gotorlekuak berreskuratuz, gudariek abesten zuten musika ipiniaz... eta Espaloian harrera eta interpretazio zentroa.



**> GARAIKO MATERIALA** Gerra garaiko material ugari dauka Intxorta Kultura Elkarteak, eta erakusketetan ikusteko aukera izaten da; tartean, sei hileko borroka latzaren eta matxinatuen setioaren ondorioz, Elgeta zelan txikituta geratu zen erakusten duten argazkiak.

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Gerra frankista Aretxabaletan gaitzat duen liburu bat, Intxortako frontearen inguruko ibilbidea aurrera eramatea eta Eibarko Udalarekin horren gaineko elkarlana indartzea; trintxerak zelan egiten zituzten aztertzea eta beroiek berreskuratzea… horiek dira Intxorta 1937 Kultur Elkarteak gaur egun eskuartean darabiltzan proiektuetariko batzuk.

Sortu zenetik –ofizialki 2005ean, nahiz eta ia 10 urte lehenagotik lanean ziharduten, nork bere kontura, gero elkarteko kide izango zirenek–, eten barik jarraitu du elkarte horrek Espainiako II. Errepublikaz geroztiko historia ikertzen, Debagoienean eta Debabarrenean, bereziki, eta horren gaineko informazioa eta dokumentazioa batzen, memoria historikoa berreskuratzeko eta bizirik iraunarazteko helburuarekin. Eguneroko lana isil-isilik egiten dute, eta hori ez da albiste izaten, emaitzak eman arte. Izan ere, elkarteko kide Josuren Murgizu bergararrak dioen moduan, "hemen ez da gertatu Katalunian bezala: han, memoria historikoa berreskuratzeko arau egokiak dituzte, eta lana goitik beherakoa da, Legebiltzarretik hasita; hemen, behetik gorako lana da", elkarte, norbanako, udal eta bailaretatik hasten da.

**ZORTZI FUSILATU**

Orain hurrengo, Elgetan kokatuta daukaten hilobi bat aztertu gura luke. Ikatzarre baserri inguruan dago. Orduan 12 urte zituen lekuko baten kontakizunari esker jakin dute zer gertatu zen: "Zazpi miliziano gizonezko eta emakumezko gazte bat fusilatu zituzten. Neska ez zen Elgetakoa. Ia konbentzituta gaude Dragones edo UHP batailoietako milizianoa zela, eta beharbada asturiarra. Gizonezkoei dagokienez, batailoi horietan denetarik zegoen: bergararrak, oñatiarrak, zumaiarrak, azpeitiarrak, bizkaitarrak ere bai…", azaltzen du Murgizuk.

> **Lekuko bati esker dakite Intxorta elkartekoek zer gertatu zen Ikatzarre inguruan: zazpi gizon eta emakume bat, seguruenik milizianoak, hil zituzten**

> **Hilobi bat topatzerakoan, protokolo bat jarraitu behar da: lehenik, testigantza jaso behar da, lekukoen datuekin; gero, Aranzadirekin lanean has daiteke**

Hobi bat topatzen denean, beti protokolo bat jarraitu behar da, eta Intxorta elkarteak Aranzadi Zientzia Elkartearekin lan egiten du prozesu horretan. Ez da dirudien bezain samurra: "Lurpetik gorpuak atera aurretik, lehenengo testigantza bat jaso behar da, lekukoaren datu pertsonalekin eta gertakizunak ondo jasoaz. Hori Aranzadira ere badoa. Gero, hobiaren kokapena zehaztu behar da, eta gero Aranzadirekin lanean hasi.

**ELGETA-EIBAR ELKARLANA**

Aurten, beste egitasmo batekin lotuta ere izan da albiste elkartea: Elgetan, Intxortako frontearen gaineko ibilbide tematikoa eta Espaloia antzokian horren interpretazio eta harrera zentroa egiteko proiektuaz gabiltza.

Otsail eta martxo artean aurkeztu zuten, baina ibilbidea guztiz taxututa eta jendeari zabalik egon arte, lan handia geratzen da, eta horretan dihardute Intxorta elkartekoek, beste erakunde batzuekin batera. Besteak beste, Jaurlaritzari eta bestelako erakundeei aurkezteko txostenak prestatzen dihardute; tartean, aurreikusita dute gotorlekuen gaineko txosten bat, izan ere, gotorlekuak eta trintxerak 1937an zeuden moduan berreskuratu nahi dituzte. Horretarako, zelan egiten zituzten zehatz-mehatz jakin behar dute. Helburua da

IDENTIFIKAZIOA

## Txapa bateko zenbakiari esker

Gorpua lurpetik atera eta, nor izan daitekeen arrastorik badago, senideekin hitz egiten da; zalantza asko badago, identifikatzeko beste modu batzuetara jotzen da. Hala, Eusko Jaurlaritzak armada erregularra antolatu zuenean, identifikatzeko letoizko txapa bat eman zien gudariei, zenbaki batekin; "hortik identifikatu genuen, adibidez, Amorebietan lurperatuta zegoen gudari bat, Eloy Bengoetxea", jarraitzen du Josuren Murgizuk. 333. Kotako borrokaldian hil zen, seguruenik.

MUNIZIOA

## Bala-zorroak ere, aztarna baliagarri

Debagoien eta Debabarrenean, gerrako bonba "asko" geratzen direla dio Intxorta elkarteak. "Elgetako teilatu askotan geratzen dira lehergailuak, baina lehertuta zeuden eta kanpoaldea bakarrik geratzen da", diote elkartekoek.

Balen zorroek ere ematen dute pistarik pertsona hori zelan hil zen. Hala, errepublikar gudariak euren armekin hiltzen zituzten matxinatuek, eta aurkitutako bala-zorro batzuk non erositakoak ziren jakinda, asmatu ahal izan dute gudari horiek nola hil ziren.

OSASUNA BIZI2DE?
2.0 PROFESIONALAK



**> HILOBIA** Garaiko lekukoen kontakizuna jaso dute Intxorta Kultur Elkartekoek; horri esker izan dute Elgetan dagoen beste hilobi komun baten berri. Argazkian ikusten den zonaldean dago, Ikatzarre baserriaren inguruan, eta kokapen zehatza ere badakite honezkero elkartekoek (segurtasunagatik, ezin dute horren berri eman). Zazpi gizonezko eta emakumezko bat fusilatu zituzten, eta han lurperatuta geratu ziren.



ARGAZKIAK: INTXORTA KULTUR ELKARTEA

**> ZABALETAMENDI** Intxortako fronteko gune bat defenditzen ziharduten hiru gudariri bonba bat jausi zitzaien gainean eta bertan hilda geratu ziren. Zabaletamendin izan zen hori. Bada, hantxe topatu zuten ezusteko hobia, eta gorpuak atera zituzten Intxorta Kultur Elkartekoek eta Aranzadi Zientzia Elkartekoek. Hildako gudari baten anaia hantxe izan zen eta komunikabideek interes handia agertu zuten, irudian ikusten den bezala.

jendeari aukera ematea gotorlekuetan egoteko, eta garai hartan gudariek bizi izaten zutena ahalik eta ondoen gerturatzea.

Eibarko Udalak ere interesa du memoria historikoa berreskuratzeko proiektuetan, eta Elgetako Udalarekin hitz egin du elkarlanaren bidea urratzen hasteko. Intxorta Elkarteko eta Eibarko Udaleko ordezkariek hainbat bisita egin dituzte, beste leku batzuetan egiten duten berreskurapen lana ikusteko. Hala, Intxorta Elkarteko Josuren Murgizuk dioenez, "Ingalaterran, Frantzian, Finlandian, nazien kontzentrazio-esparruetan eta Belgikan hemen baino askoz aurreratuago daude". Katalunian ere bai, eta gainera, han iniziatiba gobernu-erakundeetatik dator, hemen ez bezala. Bielsan, Robresen, Corberan… ere ekimen interesgarriak daude, 36ko gerrako hango gertakari latzen lekukotasuna gordetzeko.

Josuren Murgizuk azaltzen duenez, "Euskal Herrian hiru gune nagusi daude gerrarekin lotuta: Bilboko Burdinazko Gerrikoa, Gernika, eta Elgeta", eta azpimarratzen du Eusko Jaurlaritzak badaukala ekimena Burdinazko Gerrikoa berreskuratzeko. Hiru gune horiek lotuta, "gure herrian triangelu turistiko bat sortzeko aukera daukagu, etorkizunean gerrarekin lotutako gure historia kudeatzeko. Bisitariak aukera izan behar du berreskuratuko dugun inguruneak aditzera ematen dizkion sentsazioak bizi izateko, paisaiaren, legendaren eta berreraikitako leku errealaren bidez", azaltzen du Murgizuk Intxortako ibilbidearen inguruko txostenean.

Intxortako ibilbidearen erakargarritasuna handitzeko ideiak ere badituzte: besteak beste, liburu eta DVDa, oroigarriak eta bestelakoak salgai jartzekoak; eta ibilbide osoa Elgetako paisaia ikusgarriarekin lotzea.

Proiektu horiek eta gehiago aurrera irteten diren bitartean, Intxorta Kultur Elkarteak zabalik dirau eurekin lan egin nahi duen edozein herritarri.

## INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEAREN HISTORIA LABURRA

**> 1986: LEHENENGO EKINTZAK**
Oktubre Taldea hasi zen lanean Arrasaten, Juan Ramon Garai buru zutela. Arrasaten, gerra frankistaren gaineko lehen erakusketa egin zuten. Garaik eta Oktubre Taldeak egindako lanak eragina du bailaran zebiltzan beste talde batzuen artean.

**> 1997-1998: BERGARAN, ONDO BIHURTU**
Bergaran ere bazebiltzan hainbat lagun, Josuren eta Mikel Murgizu anaiak tartean. 1997ko apirilean, Ondo Bihurtu taldea sortzekotan, Intxortara ibilaldia antolatu zuten UHP eta Loiola batailoietako hainbat gudarirekin. 1998an, erakusketa antolatu zuten Ondo Bihurtukoek, eta 7.000 ikusletik gora izan zituen.

**> 2001-2006: HAINBAT ARGITALPEN**
Urte oparoak dira. Hainbat erakusketa antolatzen dira, eta liburuak argitaratzen dira lan hori batzeko –ikurrinaren 25. urteurrenekoak, Martzial Agirre eskultorearena…–, eta Jesus Gutierrez historialariak ikerketa liburuak argitara ematen ditu, tartean, *Gerra Zibila Elgetan* (2005eko uztaila).

Juan Ramon Garai arrasatearrak honako liburuak argitaratzen ditu: *Arrasate 1936, belaunaldi etena*-ren 2. edizioa (2003ko ekaina) eta *Celestino Uriarte* (2006ko azaroa).




TXALAPARTA

**> 2002: BEDOÑAN GORPUA**
Intxortak eta Aranzadik –Pako Etxeberria buru dutela arakatze eta ikertze lanetan– batera egindako gorpu-ateratze bat egiten da Bedoñan, urri eta azaro artean. Intxorta elkartekoek aztarna berriak bilatzen jarraitzen dute Eskoriatzan, Antzuolan, Bergaran eta Elgetan.

**> 2003: FUSILATUEN OMENEZKO MONUMENTUA**
Debagoieneko fusilatuen senide eta lagunekin elkartzen dira Intxorta elkartekoak, eta Frankismoan hildako eta desagertuei onespeneko omenaldia egitea erabakitzen dute. Arrasaten altxatuko dute haien omenezko monumentua, gerrak Debagoienean hildako guztien izenekin.

**> 2005: INTXORTA ELKARTEA OFIZIALKI SORTZEN DA**
Bergarako La Union elkartean jaiotzen da, modu ofizialean, Intxorta Kultur Elkartea, Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Aretxabaletako, Eibarko eta Zaragozako kideekin; denetara, 13 lagun.

**> 2007: INTXORTAKO ATEA**
Elgeta frankisten esku jausi zeneko 70. urteurrenean, Juan Jose Aranguren eskultorearen Intxortako Atea lana aurkezten da, Asensiomendi gainean, frankisten erasoaren ardatza izan zen lekuan.

**> 2009: 'GERRA ZIBILA EUSKAL HERRIAN' IBILBIDEA**
Intxortaren magalean ibilbide tematikoa izango dena aurkezten dute.

ITURRIA: WWW.INTXORTA.ORG.

ELGETAKO FRONTEA

## Historia politiko eta militarreko 'giltza'

Elgeta "gakoa izan zen Euskal Herriko historia politikoan eta militarrean, gudaroste askoz indartsuago baten aurrean askatasun ideiak defenditzea erabaki zuen gazteria baten balentriagatik, eta hortik abiatuta, historiako lehenengo Eusko Jaurlaritza sortu zelako", dio Intxorta Elkartearen txostenak. Besteak beste, frontean jokatu ziren oso modu argian gerrako bi faseak: gerra irregularra –zutabeen estrategia bi aldeetan, eta oso oinarrizko parapeto eta gotorlekuak–; eta martxoaren 37tik aurrera, erregularra, Eusko Jaurlaritzak gidatua. Gainera, Elgeta giltza izan zen bi aldeendako: Mola hilabetetan saiatu zen handik Bizkaira pasatzen.



**EUSKARA** > GIDABAIMENA EUSKARAZ EGITEKO MATERIALA

# Hasi dira azterketak euskaraz egiten

Ibarrean, Ander Anduaga aretxabaletarra izan da azterketa teorikoa euskaraz egin duen lehena

Oinarria teoria-liburua da, baina multimedia formatuan ere argitaratu dituzte edukiak

**G. ETXABE/A. EZKIBEL** > ARETXABALETA
Debagoieneko Mankomunitateak dagoeneko banatu du ibarreko autoeskola guztietan gidabaimena euskaraz ateratzeko materiala. Era berean, aurten 18 urte beteko dutenen artean informazioa banatuko du, gazteek euskaraz egin dezaten gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa.

Ander Anduaga aretxabaletarra izan da gidabaimena euskaraz atera duen ibarreko lehenengo gaztea. "Nahiz eta gehienok euskaldunak izan, berrehunetik bakarra izan nintzen euskaraz azterketa egiten, eta inolako arazorik gabe gainditu nuen". Esperientzia oso aberasgarria izan da Anduagarentzat, eta gidabaimena ateratzera joango diren gazteei euskaraz egiteko gomendatu nahi die: "Euskaraz ondo moldatzen direnek atera dezatela gidabaimena euskaraz".

**ULERTZEKO SAMURRA**

Argitaratutako materialaren oinarria ikaslearen teoria-liburua da, baina multimedia formatuan ere argitaratu dira edukiak. Ander Anduagaren esanetan, hizkuntza samurrean eta ulertzeko errazean dago materiala: "Orain arteko ikasketa guztiak egin ditut euskaraz, eta arazorik ez dut izan eskuliburua ondo ulertzeko". Haren ustez, gazte askok beldurra du eta horrexegatik egiten du gazteleraren aldeko apustua.


Ander Anduaga, euskarazko teoria-liburua eskuetan duela. GORKA ETXABE

**BANAKETAK DEBAGOIENEAN**

Mankomunitateko Euskara teknikariek sortu berri duten materiala Debagoieneko autoeskola guztietan banatu dute, eta laster Debagoienetik kanpo ere egingo da banaketa. Asmoa da "gero eta gazte gehiagok euskaraz ateratzea gidabaimena". Horretarako, informazio kanpaina eta zozketak ere egingo dituzte.

**JENDARTEA**

## Kamioi gidaria hil da istripuan, Antzuolan

Kamioia irauli eta kabinan harrapatuta geratu zen, 47 urteko gizonezko molviarra

**GOIENKARIA** > BERGARA
Ezbeharra eguenean 12:30ean gertatu zen GI-632 errepidean, Antzuolako sarreran, eta Uzarragako bidegurutzetik oso gertu. Ezagutzen ez diren arrazoiengatik, kamioia irauli zen galtzadan eta 47 urteko gizonezko gidari moldaviarra harrapatuta gelditu zen kabina barruan.

Suhiltzaileak hura ateratzen saiatu ziren baina ezin izan zuten ezer egin. Ertzaintzaren arabera, kamioilaria 13:50ean eman zuen hiltzat medikuak.

Istripuaren ondorioz bidea itxita egon zen eta trafikoa GI-2630tik, Udana gainetik, eta Gorlatik desbideratu zuen Ertzaintzak.

Ertzaintza istripuaren lekuko bila dabil (943 53 91 25).

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

OÑATIN

**Zientzia Teknologia Batxilergoa**

**Erdi Maila**
- Mekanizazioa
- Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenu Elektromekanikoa
- Natur Ingurunean Kirol ekintzen gidaritza

ARETXABALETAN

**Erdi Maila**
- Soldadura eta galdaragintza
- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Mekanizazioa

**Goi Maila**
- Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak




AURREMATRIKULA
Ekainaren 1etik Ekainaren 12ra
MATRIKULA
Ekainaren 29tik Uztailaren 3ra

Ate irekiak: Ekainak 3, 18:00etan

**RM Zuazola - Larraña Institutoa**
San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
E-posta: onatikobhi@goieskola.net
www.onati.net

ikasLAN Gipuzkoa

**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
E-posta: ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009



Jon Odriozola, Arrasateko plazako ekitaldian. TXOMIN MADINA

**INIZIATIBA INTERNAZIONALISTA** > ARRASATEN

## Sistema kapitalista bera dela krisia salatu zuten

**T. MADINA/A. EZKIBEL** > ARRASATE
Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasunak ekitaldi politikoa egin zuen martitzenean Arrasaten. Ezker abertzaleko ordezkariak ere bertan egon ziren alderdiaren aldeko botoa eskatzen.

**KAPITALISMOAREN KRISIA**
"Ezker soberanista eta independentisten eta estatu mailakoen arteko hautagaitza komuna", horrelako definitu zuen Iniziatiba Internazionalista alderdiaren babesle izan den Jon Odriozola kazetariak. Arlo ekonomikoan berba gogorrak izan zituen sistema kapitalistaren aurka. Kapitalismoa bera dela krisia esan zuen Odriozolak; eta azaldu zuen berarekin dakarrela krisi politikoa.

Arrasateko ekitaldian ezker abertzaleko ordezkari ugari egon ziren. Haien izenean Miren Legorburuk hartu zuen hitza. Iniziatiba Internazionalistaren printzipioak ezker abertzalearekin bat datozela esan zuen eta aukera honetaz baliatu behar dela ezker abertzalea Europan egoteko.

Ekainaren 5ean Aramaion egingo du Iniziatiba Internazionalista alderdiak ekitaldi politikoa, 19:00etan, plazan.

> PSE-EE

### Eskoriatzan eta Arrasaten izango dira gaur sozialistak

Sozialistak izango dira gaur goizean Eskoriatzan eta Arrasaten herritarren botoa eskatzen. Eskoriatzan, 10:30ean hasiko dute kanpaina. Merkatuan izango dira, besteak beste, Eskoriatzako sozialisten bozeramaile Iñaki Pierruges, Arrasateko sozialisten bozeramaile Aritz Arrieta, Blanca Roncal Parlamentuko presidenteordea eta Miguel Buen diputatua. Informazioa eta arrosak banatuko dituzte. Gero, 11:30ean Arrasateko merkatura joango dirakanpainarekin jarraitzera.


TXOMIN MADINA

### Sabin Intxaurraga Garaian izan da

Aralar eta EA batzen dituen Independentistak eta Ezkertiarrak koalizioko hautagai Sabin Intxaurraga Garaia Berrikuntza Gunean izan zen eguaztenean. Mondragon Taldea mundu mailan erreferente den moduan Euskal Herriak ere erreferente izatera iritsi behar duela esan zuen Intxaurragak. Ikerkuntzaren alde egitea proposatu zuen.

etxeko leihotik


**Goiatz Arana** > goarana@goiena.com

## Zortzimilakoak egitea, zein preziotan?

Egunkariek dezente idatzi dute mendigoizaleei buruz azken asteetan, baina ez irakurri gurako genukeenaren berri emateko, hain justu. Aurrekaririk gabeko erronka zuen aurretik Alberto Iñurrategik, Makaluren mendebaldeko ertza estilo alpinoan igotzea: zamaketaririk gabe, prestatutako eremurik gabe, oxigenorik gabe eta soka finkorik gabe. Eta, askorik jakin gabe, galdetu nion neure buruari ez al zen hori alferrikako arrisku gehiegi hartzea. Birritan saiatu ziren, baina ezin; helburua bete barik, itzuli egin behar, beraz. Herrikidea dut Koke Lasa. Kangchenjungara igo gura zuen ormaiztegiarrak, baina buelta eman zuen gailurretik metro gutxira, 8.450 metroan. "Ondo, Koke", pentsatu nuen neure barrurako. Baina handik beherako bidea egitea ez da, gero, Aizkorritik Arantzazura jaistea, eta jasandakoak faktura pasa dio Lasari. Edema hasierarekin, baina egonkor ei dago. Edurne Pasabanek bai, zapaldu du Kangchenjunga, baina ikusi al zenuten nola heldu zen beheko kanpalekura? Inpresioa egin zidan niri ikusitakoak eta, berriz ere, hala ibiltzeak zenbateraino merezi duen pentsarazi. Hamalau zortzimilakoak lehenago nork egingo lehian dabiltza hiru emakume; bi geratzen zaizkio Tolosakoari. Beldurra ere ematen du lehia horrek: marka egiten lehena "espainiarra" izateko nahiak bultzatuta, ez ote duten gehiegi estutuko...

**"Inpresioa egin zidan Pasaban telebistaz era horretan ikusteak"**

**> Ezeren truke**
**ez bada behintzat, ezer gutxi egiteko gertu ei gaude kirolean; boluntario falta, beraz, horretan ere. Arrasate-Oñati herri lasterketa bertan behera geratu izana da azken adibide argia. Ea, bada, azkena den.**

**> Eskola Kiroleko**
**azken jaia egingo dute gaur arratsaldean, Labegaraietan. Gaztetxoenak bai, horiek ondo pasatzearekin konforme; momentuz, behintzat. Egindakoak izango du saririk, ordea, arratsaldeko jaian.**

**LANA** > GREBA

# Ia mila ikasleri eragingo die atzo hasi zen greba sortak ikastetxeetako jangeletan

Soldata igoera, laneguna luzatzea eta formazioa eskatzen dute jangelotako begiraleek

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA
Debagoienean, 970 bat ikasleri eragingo die atzo, eguena, ikastetxeetako jangeletako begiraleek hasi zuten hiru eguneko grebaldiak. Lehen lanuztea atzo izan zen, eta hurrengoak ekainaren 2an eta 4an izango dira. Grebarekin bat egiteko erabakia hartu zuten Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Eskoriatzako, Antzuolako eta Elgetako ikastetxe publiko gehienetako jangeletako begiraleek.

Greba ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek deitu dute, eta helburua da Hezkuntza Saila behartzea sail horrek zuzenean kudeatzen dituen jangeletako begiraleen eta eta horiek azpikontratatzen dituzten enpresen arteko eztabaidan parte hartzera, langile horiek duten komenioa negoziatzen dihardunten honetan. Langileek eskatzen dute, besteak beste, laneguna ordu erdian luzatzea, lanarekin zerikusia duen prestakuntza jasotzea, soldata igotzea –Jaurlaritzak orduko 25 euro ordaintzen ditu begiraleko, baina begiraleari 12 bakarrik ailegatzen zaiola salatzen dute sindikatuek– eta begirale bakoitzak ume gutxiago zaindu behar izatea: "Lehen, ordu bakoitzeko bederatzi ume ziren begiraleko; orain, 12 dira, eta murrizketarekin, umeei tratu hobea emango zaie", esaten du ELA sindikatuak.

**UMEEN BILA JOATEA**
Ikastetxe gehienek ez dute neurririk hartuko, "legezkoa den greba ezin dugulako zapuztu", azpimarratzen du zuzendari batek. Hortaz, umeen bila joan beharko dira familiak. Ikastetxe batzuek garraio berezia antolatu dute auzoetan bizi diren ikasleak etxera eramateko; gastu hori ikastetxeek hartzen dute.

> 18/98 AUZIA

### Auzitegi Nazionalaren epaiak murriztu ditu Auzitegi Gorenak

Auzitegi Gorenak martitzenean egin zuen publiko 18/98 auziko sententzia. Auzitegi Nazionalak jarritako zigorrak murriztu egin ditu Auzitegi Gorenak. Sententzia horretan auzipetuta dauden debagoiendarrei dagokionez, Jose Luis Elkoro bergararrari 24 urtetik 8 urtera murriztu diote zigorra eta Xabier Arregiri –bergararra hori ere– 11tik 7ra. Gainera, bederatzi auzipeturen absoluzioa berretsi du Gorenak –Natale Landa arrasatearrarena tartean–. Auzitegi Gorenak, funtsean, bere egin ditu akusazioen tesi nagusiak.



zabalik

Eneida Iturbe

# Jokatzeko ordua

Joan zen aste bukaeran ez nuen Mundumirara joaterik izan, baina, aldiz, Granollersko Jugar X Jugar erakustaldian izan nintzen. Bertan taula joko ugari, karta jokoak eta estrategia jokoak probatzeko aukera zegoen eta hainbat txapelketa ere egin ziren. Carcassonne jokoaren lehiaketan parte hartu nuen, baina arrakasta handirik gabe... Garaile suertatu zenak, Valentziatik espresuki etorritako gazte batek, mundu mailako lehiaketarako pasea lortu zuen.

Erakustaldi honek arrakasta izugarria izan du aurten. Izan ere, krisi garaian hobe da 10, 20 edo 30 euro joko on batean gastatu eta familia, lagun edo bikotearekin ondo pasatzea, merkatalgune erraldoi batean arratsaldea pasatzea baino. Jokoak, gainera, urteak iraungo dizkigu eta arratsalde askorako denbora-pasa eskainiko digu.

**"Monopoly'-k bizirik dirauen arren, besteak zapalduz aberastea helburu ez duten ehunka joko dago aukeran"**

Egun, *Monopoly* eta *Hotel* bezalako jokoek bizirik dirauten arren, besteak zapalduz aberastea helburu ez duten ehunka joko ditugu aukeran. Aspaldian Euro games delakoak dabiltza arrakasta izaten: arau errazak dituzte, partidek ez dute gehiegi irauten eta jokalarien arteko interakzioa eskatzen dute. Estrategia gailentzen dute, zortea eta gatazkaren gainetik.

*Dixit, Keltis, Jungle Speed* eta *Exploradores* probatu genituen Granollersen. Batzuek nork bere trebetasunak garatzen laguntzen digute, beste batzuek sormena lantzen edo oroimena fresko mantentzen, eta orokorrean denek ondo pasatzeko aukera paregabea eskaintzen digute. Gainera, jokoan jardunez gero, tarte libreak familia edo lagunekin partekatzen ditugu. Hala, telebista, Internet eta bideo-jokoek ez bezala, gertukoekin harremanak sendotzeko balio digute.

usteak uste

Arritxu Barruso

# Hamaika ikusteko jaio ginen?

Lankide batek sorpresa galanta eraman zuen pasa den aste bukaeran. Kontua da Urkulura joan zela korrika apur bat egitera. Autora itzuli zenean, baina, sorpresasorpresa: lapurrek autoa indarrez ireki zioten eta sakelakoa eta arropak lapurtu zizkioten. Urkulu bezalako paraje lasai batean ere ezin al gara lasai ibili? Nire amonak askotan kontatzen digu garai batean etxeetako ateak zabalik egoten zirela. Urte gutxitan majo aldatu da errealitatea. Oraindik ikusi beharko ditugunak...

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

## EITBren hizkuntza

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

EITBko zuzendari nagusi berria ez da politikaria izango, kazetaria baizik. Alberto Surio ez da politikatik barrena iritsiko EITBren buruzagitzara, ezta gestiogintzatik ere, eguneroko kazetaritzatik barrena baizik. Joerak joera, ez da alderdi gizona, eta hori berria da EITBren buruzagitzaren historia txikian. Baina dena ez da berria: ETB1, ETB3, Euskadi Irratia eta Gaztea Irratia euskara hutsezko hedabideak bere ardurapean izango dituenak ez daki euskaraz. Ez da euskaraz moldatzen, Jose Maria Gorordo eta Josu Ortuondo bere garaian EITBko burua izan zirenean moldatzen ez ziren bezala eta Andoni Ortuzarrek, hasieran, erdizka baino egiten ez zuen bezala, gerora ongi ikasi zuen arren. Ez da, beraz, ezer berria EITBko arduradun nagusiak euskara ez menderatzea, eta, beraz, euskaraz egiten eta gertatzen denaz behar bezala jabetu gabe gidatzea euskarazko hedabide garrantzitsuenetakoak. Horregatik ez da akaso harrigarria egiten, horregatik ez du agian eskandalurik sortzen, baina, zuzendari-gaiak kazetarigintzan erakutsi duen profesionaltasuna gorabehera, berez ulertezina izan beharko luke, esplikaezina.

## Nor gogoratzen da Ronaldinhoz?

**Joxe Aranzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Atzo Barçak denboraldi honetako hirugarren txapela jantzi zuen, Manchester United ahaltsuaren kontra irabazita. (...)

Denboraldiotan Barçak egin duen jokoak agerian utzi du zelako talde ona duen, eta zein era penagarrian galdu zituen azken bi denboraldiak, taldea izarrez beteta zegoela, eta izar guztien buru, Ronaldinho. Nahikoa izan da bera eta Deco kanporatzea, Alves eta Piqué hartzea, eta Guardiola gidari jartzea, Barça inoizko Barçarik onena bihurtzeko. (...)

koplak

Enaitz Alustiza

## Osasun sistema

Aztertu nahi dut zer /
gertatzen den
anbulatorioetan
entzuten diren kontuak dira
sinestezinak benetan.

Astele(he)n goizez deitu ezkero
igandean gaixotuta
asteazkena iritsi arte
ordu guztiak hartuta.

Hiru egunetan egin daiteke
hil eta berriz berpiztu
Jesusek hori egin ei zuen
baina ez dut inoiz sinistu.

Hamabietan txanda izanda
ia hirurak izanik,
ez haserretu, ez duzu usteko
esanekoak direnik!

Eta noizbaiten behar baduzu
mediku espezialista
munduari hiru buelta emateko
kapaza da bere lista.

Gure sistema za(ha)tz meta bat da
jarri ezkero begira
baina berdin da, Bergara- /
Gasteiz
hamabost minitu dira.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.


8 x 4 Gordailua
Aukera bikaina zure aurrezkientzat.
Gure 8x4 Gordailu berriarekin, oso errentagarritasun erakargarria eskuratzeko aukera duzu, zure kapitala arriskatu gabe.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58
*www.baster-aldejatetxea.com*

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
*www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**

## *Jatetxe Gida*





## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**
- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

**Igande gauean itxita.**



## Txondorra erretegia

Bizkaia etorbidea 9 / ARRASATE
Tel.: 943 79 42 76

**Eskaintza**
- Asteartetik Ostiralera menu berezia.
- Sagardotegiko menua.
- Menu pertsonalizatuak.
- Karta.
- Atseden eguna: Astelehena

**Haragi eta arraina txingarretan erreta.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

Yoelkis Sanchez kubatarra Gazte Komunisten Batasuneko Nazio Batzarreko kide, Batzar Nazionaleko diputatu eta kazetaria da. Camagüeyko (Kuba) Kubatar Iraultzaren Borrokalarien Elkarteko presidente Jesus Echevarriarekin hitzaldiak egiten dihardu han-hemenka. Kubako Iraultzaren 50. urteurrenean, hango egoeraren berri ematen dihardu.

**Yoelkis Sanchez** > Kubatarra, Batzar Nazionaleko diputatua

# "Gazteak prestatuta gaude iraultzarekin jarraitzeko Fidel Castro hiltzen denean"

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Euskadi-Kuba elkarteak gonbidatuta hitzaldia egin zuten Bergaran, martitzenean, Yoelkis Sanchezek eta Jesus Echevarriak. Iraultzan gazteek betetzen duten paperaz jardun zuten Miguel Altuna institutuko areto nagusian.**



Yoelkis Sanchez, Miguel Altuna institutuan hitzaldia hasi aurretik, Kubako banderarekin. MIREIA BIKUÑA

**Kubako Iraultzaren 50. urteurrena bete da 2009an. Ze aldatu da Kuban urte hauetan?**

Guztia. Iraultzaren aurretik egoera tamalgarrian geunden. Fidel Castrok iraultza hasi zuenean garbi utzi zituen zeintzuk ziren hobetu beharreko arloak: nekazaritza, enplegua, industria, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza arloak.

Habana *prostituzio-etxe* handia zen iraultzaren aurretik; Kuba Fulgencio Batistaren diktadurapean zegoen. Kubak, oro har, egoera negargarria zuen iraultza heldu arte.

Iraultzak askatasuna eta subiranotasuna eman zigun. 1959. urtarrilaren 1etik aurrera Kubaren gaineko erabakiak Kuban hartzen ditugu, eta ez Washingtonen.

Iraultzak bestalde, emakumearen papera indartu egin zuen. Aurretik emakumeak esplotatu egiten zituzten. Egun, unibertsitarioen %65, irakasleen %67 eta medikuen %56, emakumeak dira. Horiek guztiak adibide batzuk dira. Aldaketa beharrezkoa zen, eta guztioi on egin digu.

**Gazteek iraultzarekin bat egiten duzue?**

Bai, noski, eta azken asteotan han-hemenka egiten dihardugun hitzaldietan horixe azpimarratu gura dugu. Che Guevarak zioen gazte kubatarrok iraultzaren oinarrizko elementua ginela. Fidel Castrok uste du gaztedia aberriaren lehengai inportanteena dela. Horregatik guztiagatik, mambiek hasitako borrokaren jarraitzaileak eta ondorengoak gara. Jose Martiren eta Agramonteren jarraitzaile sutsuak gara.

Bestalde, Kubako gaztedia guztia Gazte Komunisten Batasunaren baitan biltzen gara. Ni neu elkarteko Nazio Batzarreko kidea naiz. Kubako gazte guztiak ez dira elkarteko kide, baina guztien beharrak asetzen ahalegintzen gara. Gure azpitik askotariko erakunde eta elkarteak daude, norbere esparruan lan egiten dutenak; baina guztien bidea Gazte Komunisten Batasunak zehazten du. Egun, 600.000 militante baino gehiago ditugu Kuba osoan zehar.

**Hortaz, iraultzarekin bat egiteaz gain, parte-hartzaile zuzenak zarete.**

Hala da. Iraultzak gazteen beharra izan duenean, ondo erantzun dugu. Adibidez, iraultza hasi zenean kubatarren %40 analfabetoak ziren. Hori horrela, gazteak ibili ziren herririk herri eskolak ematen. Herrialdeak behar zituen azpiegituren ardura gazteok hartu dugu. Iaz hiru zikloi pasa ziren Kubatik, eta gaztediak bikain erantzun zuen lanerako deia egin genuenean. Une honetan, Habanako Isla Juventud-en gogor dihardute lanean nekazaritza indartzeko.

Politikan ere parte-hartze zuzena dugu, erabakiak hartzen dituzten batzorde gehienetan ditugu ordezkariak. Kuban 16 urterekin udal hauteskundeetarako aurkez zaitezke, eta 18 urterekin Batzar Nazionaleko diputatu izan zaitezke.

Batzar Nazionaleko kideen %60,9 iraultzaren ondoren jaio ziren; hortaz, ez zuten kapitalismoa ezagutu, baina iraultzaren aldekoak dira.

**Kubako gazteak gizarteko esparru guztietara heltzen zarete?**

Ia guztietara. Ideiak oso garbi ditugu, eta egun, 200 egitasmo baino gehiago ditugu esku artean; besteak beste, hezkuntzan eta kirol arloan lantzeko. Kuban 140 eskola baino gehiago daude ikasle bakar batekin. Ikasle horrek irakaslea, telebista, bideoa eta ordenagailua ditu eskolan. Hori guztiori lortzeko lan egiten dugu gazteok. Kubako nazioarteko liburu azoka ere guk indartu dugu.

Erronka eta kontraesanekin, gizarte alternatiboa eraikitzen dihardugu. Latinoamerikako hainbat tokitan miseriaren aurpegia, langabezia, analfabetismoa edo oinarrizko zerbitzurik eza erakusten duen kapitalismoaren aurrean gogor egiten dugu lan.

**Gaur egungo gaztediak blokeoa bizi izan du txikitatik. Nola bizi duzue egoera hori?**

Ni jaio nintzenean blokeoa zegoen (1964. urtean ezarri zuten), eta dagoeneko egoera *normala* da niretzat. Baina normaltasun horren barruan blokeoaren eta terrorismoaren aurka borrokatzen dugu.

**Obamarekin egoera aldatu egingo dela uste duzue?**

Egoera aldatzea ezinbestekoa da, baina ez dut uste Obamak ezer egingo duenik. 2004an senatari zela esan zuen inoiz AEBetako presidente izatekotan, blokeoarekin bukatuko zuela. Presidente aukeratu zutenean kazetari batek hitz haiek gogora ekarri zizkion, eta esan zuen aspaldi esandako hitzak zirela. Hortaz, oso ezkorrak gara kontu horrekin.

**Zer gertatuko da Fidel hiltzen denean?**

Ez da ezer gertatuko. Bere irakaskuntza eta oinarriak utziko ditu. Gainera, gazteok prestatuta gaude iraultzarekin jarraitzeko. Egun, Raul Castro da burua lehen Fidel zen moduan; eta anaiak adierazitako bide beretik jarraitzen du, neurriak hartzen ditu herriaren oniritziarekin.

ALDAKETA

**"Iraultzak askatasuna eta subiranotasuna eman digu; ordutik hona, Kubako erabakiak Kuban hartzen ditugu"**

POLITIKA

**"Erabaki politikoak hartzen diren batzordeetan ordezkatuta gaude Kubako gazteak"**

ETORKIZUNA

**"Kapitalismoari aurre eginez gizarte alternatiboa eraikitzen dihardugu gazteok"**

## Garraio publikoa Mundumiran

**Miren Amasorrain Lizarralde**
Bergara

Eskoriatzan ospatu den Mundumirara joatea erabaki genuen 3 lagunok. Handik eta hemendik garraio publikoa erabiltzeko gomendioak entzun eta gero, autoak etxean uztea onena izango zela erabaki genuen. Internetetik autobusen ordutegia inprimatuz eta badaezpada telefonoz konfirmatuz, ederki antolatuak ginelakoan abiatu ginen.

Munduko kulturen Festan ederki ibili eta gero afalostean, txintxo-txintxo gaueko 00:00etako autobusa hartzeko asmoarekin ordu erdi lehenago ginen.

Bertan, paper ziztrin bat zegoen Mundumira izenburuarekin. Autobusen ordutegia omen zen eta 00:00etan zegoela bat jartzen zuen. Hor hasi zen gure odisea. Jendea etorri eta etorri, baina autobusik ez.

Azkenean, 00:30 aldera, han dator bat: sartu, ordaindu eta non esaten digun Pesako txoferrak (jenioz) bakarrik Arrasateraino zihoala eta irteteko. Txartelak hurrengo autobuserako balioko zuela esanez joan zen. Guk badaezpada dirua itzultzeko eskatu genion hirurok. Beste batzuk txartelarekin gelditu ziren. 01:15ean, aupa! Badator autobusa, baina… oraingoan ere Bergarara ez! Oñatira zihoan, eta geunden jende guztitik txantxikuar bat bakarrik zegoen. Hau zortea!

Gaua aurrera eta han dator hirugarren autobusa: txoferrari azaldu genion gertatzen zena eta asko kostata, zentralitara deitu zuen eta zer gertatzen zen kontatu zien. Mesede moduan Arrasateraino eramango gintuela, han Bergarakoak autobusetik jaitsi beharko ginela eta gero berriz sartu eta beste txartel bat hartu Bergarara joateko. Eta hori gutxi balitz, aurreko autobusean hartutako txartelak ez zuela balio eta beste bat hartu beharko genuela. Azkenean, txartelarena onartu zuen gure txoferrak.

Bitartean, noski, geltokia pilatzen joan zenez, autobusa leporaino bete genuen eta azkenean abiatu ginen. Baina Aretxabaleta parean autobusa bat-batean gelditu zen. Akats mekaniko bat gertatu omen zen (gurpiletan edo, baina ez ziguten ezer argitu). Egia esan, nahiko egoera xelebrea zen. Txoferrak gutariko erdiak atzetik zetorren autobusera pasatzeko eskatu zigun, pisu gehiegi omen zuen-eta.

Horrela, erdiak beste autobusera pasa eta beste azalpenik eman gabe hor joan ginen Arrasateraino. Autobusa ez zen erritmo normalean joan eta gure kezka handitzen eta, aldi berean, larritzen joan zitzaigun.

Arrasaten geldituu eta txoferrak esan zigun 20 minutu egon beharko ginela zain, konponketa lanak zirelaeta. Denok irten eta minutu bat ere pasatu gabe, beste autobus bat etorri eta denok bertan sartu ginen. Azkenean 02:15 aldera, Mundumiratik munduari bira eman genion sentsazioarekin, Bergarara iritsi ginen. Hura zen hura poza hartu genuena. Antzuolako bi lagunek, artean, beste autobus bat hartu behar izan zuten (eta berriz pagatu gainera) etxera iristeko.

Seguruen, garraio publikoa merkea, erosoa eta azkarra izango da eta bakarrik egun honetan eta guri huts egingo zigun… Anekdota bat, ala ez.

## Mundumiratik…

**Idoia Albizu eta Elvira Haro**
Bergara

Eskatu ziguten garraio publikoa erabiltzea. Eta horrela egin genuen. Jai giro polita izan zena amesgaizto bihurtu zen. Macaco-ren kontzertua bukatu eta autobusa hartzera joan ginen Bergarara bueltatzeko. Lotsagarria! Autobusera igotzea nahi eta ezin. Bultzadak, oihuak… Jende gehiegi hain zerbitzu gutxirako. Bidaiariak eta gidariak urduritasunak jota geunden.

Egoera jasanezina zela-eta, Pesa-ko telefono zenbakira deitu genuen eta ez genuen aukera izan erantzungailuan mezu bakarra ere lagatzeko. Itzalita.

Dagokionari: jaiak jende asko mugitzen du eta beharrezkoa da ordu zehatz batzuetan zerbitzua gehitzea. Espero dugu neurriak hartzea gainontzeko ekitaldietarako, Bergara eta inguruko jaiak bertan ditugueta. Ez dadila berriro gertatu.

## Zubietako kaikua

**Gurutz Garmendia**
(Herri kirolen antolakuntzakoa)
Bergara

Martxan da Bergarako herri kirolen Jakion txapelketa. Komunikazioaren aroan omen gaude, baina kontraesankorra dirudien arren ez dugu elkar ondo ulertu. Norberaren erruak aitortu eta helburuak berberak direnez, txapelketak Udalaren babes osoa dauka.

Bestalde, esan beharra dago saria Zubietatik ekarria izan dela. Zubieta Nafarroako herrixka bat da. Hartu autopista, irten Irungo mugan eta Iruñeko bidea hartu behar da bertara iristeko. Handik Doneztebera hartu behar da, pasatu Ituren eta hurrengo herria Zubieta da. Herria baso eta zelaiz inguratuta dago eta bertako etxe eta baserri guztiak antzinakoak dira. Euren jatorriez harro dagoen jende xumea da bertakoa.

Hantxe bertan dauka Xanti Hualdek bere baserri, lantoki eta erakustokia. Sartu bezala, basahuntz baten burezurra ikusten da eta alboetan beldurtzeko adarrak goraka. Barruan edonolako irudiak ditu. Lauburuak, armarriak eta kutxetan agertzen diren bueltaka dauden borobilak, sorrera eta bukaeraren errota izan daitezkeenak. Eta nola ez, kaiku bikainak. Era denetakoak daude: handiak, txikiak eta ertainak. Eta hauetako kaiku bat Bergaran dago jadanik. Hualdek egindako eskulanaren indar guztiarekin, garaileek beren esku artean izan dezaten.

## Veleiako ajeak

**Josu Zugasti**
(Euskal Filologian lizentziaduna)
Arrasate

*Berria* egunkariak, bere kultura atalean, Juan Martin Elexpuruk Veleiako kontuaren gainean daukan ustearen gaineko informazioa ekarri zuen aurreko asteazkenean. Eta zeharo harrituta utzi ninduen. Hura irakurri aurretik, ez nuen sinesten Veleiako "aurkikuntza" berezi horietan, baina orain, askoz gutxiago. Hainbat arrazoi eman nitzake, baina adibide emankor bat hartuko dut kontuan, Elexpuruk berreraikitako *Aitagurea:* bertako hitz eta egiturak horrela agertu badira Veleian, frogatuta dago faltsuak direla: ez V, ez VIII ez XVI. mendekoak, faltsuak baizik, adar jotze hutsa. Has gaitezen:

*Geure ata:* Geure izenordain indartua oraindik ere bizirik dirauen *guhaure* izenordainaren ondorengoa da, mendebaldean garatu dena. Erromatarren garaian agertu dela? Zer esango genuke erdarazko *nuestro* agertu izan balitz? Mundu mailako arkeologo guztiak barrezka hasiko lirateke, euskal filologoen %90 geure ikustean hasten den bezala.

*Zutan.* Honek ez luke aparteko arazorik sortuko hizkuntzalaritza diakronikoan, nik uste, baina zer egiten du *Aitagurean* sartuta? Zein testutan agertzen da *zutan*-en baliokideren bat otoitz zahar horretan? Eta z dibertigarri hori? Inongo erregulartasun barik agertzen eta desagertzen dena eta latin idatzian grekerazko maileguak idazteko bakarrik erabiltzen zena eta ez zena euskal *z* lepokariaren baliokide? *Causa>gauza* gertatu izanak erakusten du latinezko *s* hura hurbilago zegoela fonetikoki gure *z*-tik *s*-tik baino.

*Santu isan*. Esamolde hau atzo goizera arte ez zen erabiltzen *Aitagurean, santifikatu* baizik.

*Beti?* Zer da, *bedi*-ren aldaera "zahar" bat? Ba erroa **edin* litzateke eta herskariaren ahoskabetze (edo geroko ahostuntze) horrek ez du tokirik euskal fonologiaren historian. Gainera, *izan bedi* pleonasmo aski berria da, testu zaharretan *bedi* hutsarekin aski da. Eta gaur egungo *beti* bada, esaldiak ez du zentzurik eta, gainera, *Aitagurean* arrotza litzateke.

*Sure: Zu* plurala zen XVI. mendean ere (gaurko *zuek,* alegia), bigarren pertsona singularra *hi* zen bakarrik, eta Oihenart bera Jainkoari hika zuzentzen zaio. Mesedez…

*Isena:* Artikulua, euskaran, erromantzeetan baino berriagoa dela argi dago. Erabileraren hedatze azkarra igartzen da (ez dago fosildua) eta jatorri duen erakuslearen hiru graduak gordetzen ditu gaur ere: *-au,-ori,-a* (Debagoieneko hizkeratik ezagun egingo zaizkizu). Artikulua erromantzeen egituren kopia da, egin dut (*lit. hecho he*) eta egingo dut (*he de hacer*) bezala.

*Etor reinu.* Etor-ek arazorik ez, printzipioz. Baina *reinu* hori? Latinez *regnum* zen. *(e)rreinu* gaztelerazko *reino*-tik dator, erromatarren garaian ezinezkoa, beraz. *Egin badi:* Eztabaidagarri deritzot. Baina subjuntiboan a hori agertzea… Neure: *nihaure*-tik dator, goragoko beste izenordaina bezala.

*Zordunai:* zer da *–ai* datiboa? Artikulua + *-i*. Baina ez da *–ari ageri* (forma zaharra, gaur ere erabilia)… zein berbeta jatorra, kolokiala, beharbada!. Edo plurala ote? Mendebaldean, egia da, ez dira ondo bereizten datibo eta ergatibo plurala eta singularra, baina hori euskalkien banaketaren osteko bilakaera bat izan da, inola ere ezin dena atzeratu III mendera.

*Esquero:* Latinezko *qu*-k euskaraz *kw* hotsa adieraziko luke. Idazkera hau Erdi arora arte ez da agertzen *k* hotsa adierazteko, Donemiliagan bezala, baina III mendetik XI.era 800 urteko aldea dago. Baina onena da *esquero* aditzekin doala beti gure hizkuntzan, ez izenekin (*zordunai esquero*). Gainera, (*tu*)-z gero bezalako egitura da berez.

Hamabost hitzotan aurkitutako oztopo hauek gaindiezinak dira. Euskal Filologiako lizentziatu batek berehala ikusteko modukoak, latinezko hitz ezinezkoak, zailtasun historikoak eta era guztietako anakronismo epigrafikoak aipatu barik. Aski da, iruzur hau lotsagarria eta mingarria da. Adituek egin dute berba, epaileen txanda da.

## Jazarpenik ez

**Irkus Palacio Garai**
Arrasate

Arrasaten, 2009ko maiatzaren 20an, Irkus Palacio Garaik, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko partaidea naizen honek, Jose Uribesalgo Beitia jaunaren ordezkari legal gisa hainbat kontu argitu nahi ditut azken boladan nire bezeroaren eta bere familiaren kontra izandako gertakari, informazio eta mobilizazioen inguruan. Jose Uribesalgo Beitia jaunari leporatzen diote zuzenean edo zeharka Utillajes Moldcam SL elkartea despatrimonializatu eta desegin nahi duela, etorkizunean espekulazio urbanistikoa egiteko.

Eta argitu nahi dut: Ez Jose Uribesalgo Beitia jaunak, ez bere familiako inork, eta ezta bere inguru hurbileko inork, ez dauka inolako parte hartzerik eta ezta inolako interes ekonomikorik Utillajes Moldcam SL elkartean. Eta 1993tik ez dauka inolako harremanik Utillajes Uribesalgo SA elkartearekin. Informazio hau argi eta garbi jasota dago kontratu eta txosten juridikoetan, eta txosten horiek eskuragarri daude hala eskatzen duen edonorentzat.

2007. urtean Jose Uribesalgo Beitia jaunak kontu hauek guztiak notari aktan jaso zituen, eta notari akta hori enpresa batzordeari eman zitzaion 2007ko urtarrilean. Era berean, E Informa enpresak ziurtagiri publiko bitartez zuzendu eta errektifikatu zuen aurrez Utillajes Moldcam SL elkartearen bazkide osaketari buruz kaleratutako okerreko informazioa. Eta ziurtagiri hori ere eskuragarri dago hala eskatzen duen edonorentzat.

Beraz, Jose Uribesalgo Beitia jaunaren izenean eskatzen dut Utillajes Moldcam SL enpresako langile eta ordezkari sindikalek nire bezeroaren aurka bultzatutako agerraldi eta mobilizazioak bertan behera uztea. Eta bereziki eskatzen dut betiko bukatzea zuzenean Uribesalgo familiaren kontra gauzatzen ari diren mehatxuak, jazarpenak, presio publikoak, gezurrak eta egoera iraingarriak.

Egoera tamalgarri honek aurrera jarraitzen badu, hala dagokien pertsona, elkarte eta erakunde juridikoen aurrean neurri legalak hartuko ditugu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Arrasate > 12-15 Bergara >16-20 Aretxabaleta > 21-22 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Leintz Gatzaga > 33



**> ARRASATE**
Azoka hobeto aprobetxatzeko ideiak jaso ditu Udalak **> 13**



**> BERGARA**
Amillagan biribilgunea egiten hasi dira oraingo astean **> 18**



**> ARAMAIO**
Udala kezkatuta linea elektriko berria jarri nahi dutelako **> 32**



**> LEINTZ GATZAGA**
Arlabango eta Gatzagako errepideetan, konponketak **> 33**

**ESKORIATZA** > EKONOMIA

# Doitasun neurriak hartzen dihardu Udalak, krisiari aurre egiteko

**IKERKETA**
Eskoriatzako egoera aztertu du Udalak txosten baten: han ikusten da langabezia tasa oso handia dela

**INDUSTRIALDEA**
Eskoriatzako Industrialdea Udalarena da, eta galera handiak ditu 2005a ezkero



Eskoriatzako Industrialdea. LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA

Herriak jasaten duen ekonomia gainbeherari aurre egiteko, soiltasuna, gastuak ahal den neurrian murriztea eta "sistema aldaketa": horixe da Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek berak zuzentzen duen udalerako ezarri duen filosofia, eta herritarrei ere proposatzen diena.

Ekonomia krisia eragin nabarmena izaten dabil Eskoriatzan. Hala, INEMeko datuen arabera, apirilean Eskoriatzak izan du bailara osoko langabezia tasa handiena: %13,18 (bigarrenak, Arrasatek, %12,66koa zuen). Urte hasieratik ere Eskoriatzak izan du tasarik handiena edo bigarren handiena. Horren aurrean, Eskoriatzako Udalak ikerketa bat egin du, herriko langabezia eta kontratazio datuekin eta herrian dauden edo eskoriatzarrei lan ematen dieten enpresen egoerari begiratuaz.

**LANGABEZIA ETA ENPRESAK**

Langabezia datuei erreparatuta, argi ikusten da Eskoriatzan, beste herri guztietan bezala, langabezia asko hazi dela iaztik: iazko apirilean 137 langabe zeuden, eta aurten, 274. Horien artean, Debagoienean orokorrean gertatu den bezala, industrian da deigarria langabezia igo dela: iazko apirilean 69 langabe, eta aurten, 159.

Bestetik, 16 enpresaren egoera aztertu du Eskoriatzako Udalak, eta ikusten da krisi orokorretik haiek ere ez dutela ihes egin; horietan ere, EREak direla zein enkargu edo eskaerak jaitsi direla, egoera ez da ona.

Baina Eskoriatzako egoera azaltzeko beste faktore batzuk ere badaude, eta horietako bat da Eskoriatzako Industrialdea. "Egia da enpresa batzuk daudela, baina beste instalazio batzuk ez dira saldu, eta industrialdeak zorrak ditu 2005. urteaz geroztik". Eskoriatzako Industrialdea Udalarena da, Debagoieneko gainerako industrialdeak ez bezala –horiek Debagoieneko Industrialdea enpresa osatzen dute. Eguaztеneko plenoan onartu zen industrialdea finantzatzeko beste partida bat, baina hori ez da soluzioa: "Akordioa egin gura dugu Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin Eskoriatzakoa Debagoieneko Industrialdean sar dadin, baina denbora luzea behar da", dio alkateak.

Industrialdea alde batera, lehendik zetozen beste zor batzuei ere aurre egin behar izan die oraingo Udalak.

ESANAK

> **"Krisiak erakusten digu, oso garbi, orain arteko eredu sozio-ekonomikoak ez duela balio; soilak, zuhurrak izan behar dugu"**
> **Pedro Lasagabaster** > Alkatea

**ZUHURTASUN NEURRIAK**

Horren aurrean, hauxe dio alkateak: "Izan gaitezen soilak, zuhurrak, eta eredua alda dezagun; krisiak erakusten digu-eta, oso garbi, orain arteko eredu sozio-ekonomikoak ez duela balio". Hala, udal gastu korrontea murrizten hasi ziren 2007tik –aurten, beste %10 jaistea lortu dute–; inbertsioetan, Espainiako Gobernuko Tokiko Finantzaketarako Fondotik datorren dirua erabili dute 10 obra egiteko, eta ez dute beste inbertsiorik egin; eta Eudelen plan pilotu baten sartu dira eraikin publikoek duten energia gastua neurtzeko. Lasagabasterrek dioen moduan, "hori da bidea, eta sinetsita gaude hortik jarraitu behar dugula".

bastidasukaldeak



ESKAINTZA BEREZIAK
ETXE TASATUENDAKO ETA BABES OFIZIALEKOENDAKO
ANIMA ZAITEZ!

**zarautz**
elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

**azpeitia**
perez arregi 9, 20730
tel./faxa: 943 15 05 10

**bergara**
ibargarai 36-38, 20570
tel./faxa: 943 76 70 58

**POLITIKA** > ELKARTASUN EGUNA 2009

# Elkartasun Eguna debekatzeko eskatu diote Auzitegi Nazionalari

Dignidad y Justicia deritzon elkarteak egin du salaketa; Portaloira Topaguneak ez du baloraziorik egin gura izan jakinarazpen ofiziala izan arte


Arrasatearren babes zabala duen ekimena da Elkartasun Eguna. Irudian, iaz egindako aurkezpena Kulturaten. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Dignidad y Justicia terrorismoaren biktimen elkarteak Portaloira Topaguneak antolatzen duen Elkartasun Eguneko ekitaldiak debekatzeko eskaera egin zuen martitzenean Madrilen. Auzitegi Nazionalari, hain justu, egin zioten eskaera.

Salaketa jarri duen elkartearen ustez, aurten bost urte beteko dituen Elkartasun Egunak terrorismoa goraipatzen du. Arrazoi hori dela medio, Arrasaten ez ezik, Hernani eta Algortako –Algortakoa bertan behera geratu da– Elkartasun Egunak ere debekatzea eskatu dute. Debekua posible egiteko Polizia Nazionalari, Guardia Zibilari eta Ertzaintzari eskatu diete ekitaldiok aztertu eta euren izaeraren berri emateko. Aurkeztu agirian azaldu dutenez, "ETAren presoei elkartasuna adierazteko ekitaldiak dira, eta, beraz, ETAren presoak goraipatzea dute helburu". Hala, terrorismoa goraipatzeko ekitaldi moduan ulertzen ditu Dignidad y Justiciak ekitaldi horiek guztiak.

**JAKINARAZPEN OFIZIALAREN ZAIN**

Portaloira Topaguneak presoen eskubideen aldeko hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar eta, azaldu izan dutenez, "sentsibilitate askotako" herritarrek osatzen dute taldea. Elkartasun Eguna da antolatzen duten ekimen garrantzitsuena, baina ez da bakarra. Esate baterako, joan den maiatzaren 16an Amaia antzokian egin zen espetxe politika salatzeko ekitaldi berezia eurek antolatu zuten.

Dignidad y Justiciak jarritako salaketaren inguruan, Portaloira Topaguneak ez du baloraziorik egin gura izan, jakinarazpen ofiziala esku artean izan arte. Izan ere, eurekin harremanetan jarri ostean, oraingoz dakitena komunikabideen bitartez dakitela jakinarazi digute, eta, diotenez, halako kontuetan "ez dugu komunikabideek diotena aintzat hartzen". Edozelan ere, datorren martitzenean prentsaurrekoa egingo dutela iragarri dute, gaiaren inguruan iritzia emateko.

**PARTE-HARTZEA** > BITERI PLAZA

## Biteri plazaren aterpea hobetu egin beharra dagoela argi ikusten dute arrasatearrek

40 bat lagun elkartu zen martitzenean osoko bilkuren aretoan, Biteri plaza erakargarri eta erabilgarri egiteko proposamenekin

**J. BEREZIBAR/ U. MADERA** > ARRASATE

Asteon argi asko geratu da arrasatearrek kezka handia dutela Biteri plazarekin. Hala erakusten du martitzenean elkartu zen 40 laguneko taldeak. Gainera, guztiak joan ziren etxeko-lanak eginda eta Biteri plazari eman ahal zaion erabileraren gaineko proposamenekin.

**ATERPEA BOTA ETA BESTELAKOAK**

Bi ildo nagusi landu zituzten: plazaren eguneroko erabilera eta kultura ekimenei begira izan beharko zukeen aprobetxamendua. Ideia batzuk aipatzearren, aterpeari xaflekin itxitura egitea proposatu dute batzuek. Beste batzuek, berriz, zuzenean aterpea botatzea proposatu zuten. Segurtasunari buruzko kezka ere erakutsi zuten hainbatek, esanez ondoko errepidetik ibilgailuak bizkorregi pasatzen direla; hala, eta kontuan hartuta Biteri plazan ume asko dabilela, errepidea lurpetik bideratzea eskatu zutenak ere badira. Eta Biteri filantropoaren ideiak berreskuratzeko proposamena ere egin zuten: hain justu, Arrasate edertzeko asmoarekin, etorbide zabalak eta beste proposatzen zituen Biterik. Herriak gune atsegin gutxi dituela zioten askok eta aukera aprobetxatu behar zela. Orain, ideion hausnarketa egingo du Siadecok, ekimena bideratzen dabilen erakundeak.

> ERRETIRATUEN EGUNA

## Erretiratuek merezi duten eguna bihar, iaz baino parte-hartze txikiagoa izango duen bazkarian

Arrasateko erretiratuek egun berezia biziko dute bihar: euren eguna, hain zuzen. Eguerdiko mezaren ostean bazkaria egingo dute Musakolako kiroldegian. Izan ere, bazkaria da Erretiratuen Eguneko ekitaldi nagusia. Aurten iaz baino gutxiago izango dira, 850 inguru. Bapo bazkaldu ostean oparitxoa jasoko dute guztiek eta omenaldia bikote zaharrenak. Dantzaldia ere izango da, jakina.

> TXATXILIPURDI

## Irajosi eta Plazalai egitasmoek Musakola auzoan egingo dute geldialdia aste bukaera honetan

Txatxilipurdik antolatzen dituen Irajosi eta Plazalai ekimenak Musakolan ospatuko dira aste bukaera honetan. Irajosi egitasmoak herriko auzoetako haurrekin liburu erraldoi bat idaztea du helburu, gero ekainaren 27an Herriko Plazan irakurtzeko. Plazalai ekimenaren barruan, berriz, jinkana egingo dute, denetariko probekin. Jinkana San Antolin ikastetxe aurreko parkean egingo dute. Ekimen biak 16:30ean hasi eta 18:30ean amaituko dira.












Irudiak erakusten du zein den Ikei aholkularitzak egin duen proposamena. U.M.

**ZERBITZUAK** > UDAL AZOKA

# Azoka berri eta estalia egiteko proposamena

## Udal Azoka hobeto aprobetxatzeko proiektua aurkeztu diote Udalari, ideia moduan; hura gauzatzeko, besteak beste, dirua beharko luke

**T.MADINA/U.MADERA** > ARRASATE
Begi-bistakoa da azken urteotan Udal Azokaren erabilera asko jaitsi dela, bai saltzaile zein erosle aldetik. Hala, eta kontuan hartuta datorren urtean amaitzen direla azokako oraingo saltzaileen kontzesioak, Udalak azokaren erabilera hobeto aprobetxatzeko bideak aztertzeko enkargua egin zion Ikei aholkularitzari, eta asteon azaldu ditu emaitzak.

**SUPERMERKATUA ETA KAFETEGIA**
Ikeiren proposamenaren arabera, azokaren kanpoko plaza estali eta azokarako espazioa irabazteaz gainera (2.400 $m^2$ guztira), plaza berria ere egokitu ahal izango litzateke, goian.

Ekipamenduei dagokienez, proposamena da 12 saltoki finko ipintzea, oraingoak baino handiagoak, 50 $m^2$-koak, kafetegia (behean) eta supermerkatua (sarreran), 500 $m^2$-koa. Baserritarrendako izango litzateke, hain justu, eremu erabilanitza eta saltzaile ibiltariak (anbulanteak) kanpoan geratuko lirateke, "beste kokapenen bat beharko lukete", Ino Galparsoro alkateak esandakoaren arabera.

**ZAILTASUN NAGUSIAK**
Horiek, labur, proiektuak jasotako asmoak. Orain, baina, "hausnarketa" egin, proposamena aztertu eta egin beharrekoaren gaineko erabakia hartu beharko du Udalak. Izan ere, besteak beste, 4,5 bat milioi euro beharko lituzke Udalak obretarako, eta jakina, bizi dugun egoera ekonomikoak zaildu egiten du gauzatu ahal izatea: "Zailtasun handienak izango lirateke 12 saltoki finkoetarako eragileak bilatzea eta, noski, inbertsioa inportantea izanik, hori gauzatzea. Jakina, orain ezin dugu ahaztu garai ekonomiko zailean bizi garela eta horrek ere markatuko duela momentua".

### Zenbakitan

- > **Eraikitze urtea:** 1972
- > **Azalera:** 1.867 metro koadro
- > **Saltokiak:** 21 postu finko
- > **Horietatik erabiltzen dira:** 7
- > **Erosleak:** %50 dira 60 urtetik gorakoak

**Lander Errasti** > Ikaslea

# "Norberaren bizitzari buruz gehiago ikasten da atzerrira joanda"

**U.M.** > ARRASATE
**Ikasketak atzerrian egitea gero eta ohikoagoa da gazteen artean. Bide horretan dihardu, baita ere, Arizmendi ikastolak. Horren adibide da Lander Errasti arrasatearraren esperientzia. Da Vinci-Erasmus bekari esker Amiensen (Frantzia) da, Tafyd izeneko goi mailako heziketa zikloa egiten, gorputz eta kirol ekintzak bultzatzeko prestakuntza. Apirilean joan zen eta uztailean bueltatuko da:**


Lander Errasti. GOIENKARIA

**Zelako esperientzia da atzerrian ikastea?**
Oso baliagarria. Neure kabuz bizi izatea, frantsesa hobetu eta atzerrian lan egitea, lan munduan integratzen hastea... Hasiera gogorra izan zen, laneko lehen egunak gogorrak eta zailak izan ziren. Hizkuntzak asko oztopatzen zaitu, asko trabatzen zara eta ez dakizu zer egin edo nola jokatu. Baina, egoera guztietan moduan, moldatu eta aurrera egitea baino ez dago. Egunero ikasten dira gauza berri eta praktikoak.

**Zelan bukatu zenuen han?**
Beti izan dut atzerrira joateko gogoa eta Tafyden bitartez aprobetxatzea erabaki nuen. Atzerrira joateko betebeharretako bat hizkuntzaren bat jakitea da. Frantsesa 4 urterekin ikasi nuen eta alemana ere hitz egiten dudanez, baldintza hori beteta nuen. Galdekizun bat erantzun ondoren, aukeratu egin ninduten.

**Errepikatuko zenuke?**
Duda barik. Ikasten duzuna bestelakoetan ikasten duzuna baino hamar aldiz handiagoa da. Ez bakarrik lanaren inguruan, baizik eta norberaren bizitzari buruz askoz gehiago jakiteko aukera ematen dizu.

## oharrak

TXATXILIPURDI
**> Larunblai**
San Andres auzoan egin dute hitzordua Txatxilipurdi elkartekoek, Larunblai ekimenaren barruan. Bihar, zapatua, 11:00etan elkartu eta 13:00ak arte eskulanetan jardungo dute.

EMAKUME TXOKOA
**> Erakusketa**
*Pócimas feministas-Eusteko araoak* erakusketa ikusgai izango da Emakume Txokoan ekainaren 1etik 11ra. 16:00etatik 20:00etara. Mugimendu feministarekin lotutakoa da.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**MUSIKA** > GOSE, KURDISTANEN

# Arrasateko Gose taldea, Kurdistango jaialdian

## Musika, zinema eta artea batzen dituen Kültür Sanat Festivali delakoan joko dute zapatuan

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Gose taldeko kideak Kurdistan aldera atera ziren atzo, eguena. Turkiako Kurdistango hiriburuan, Dyarbakir-en, Kültür Sanat Festivali delakoan hartuko dute parte aste bukaeran.

Musika, zinema eta arte kurdoa biltzen ditu aipatutako jaialdiak. Hain zuzen ere, 9. ekitaldia da aurtengoa eta Gose izango da bertan parte hartuko duen lehen talde euskalduna. Ines Osinagaren hitzetan, "antza denez, betitik izan dute interesa talde euskaldunen bat gonbidatzeko eta guretako sorpresa atsegina izan da antolatzaileen deia jasotzea. Esperientzia berria da guretzat eta jakin minez goaz hara... Esan digutenez, iazko jaialdian 100.000 lagun inguru batu ziren eta gauza handia izango da han jotzea. Pentsa, lehen aldia da ekipoa fakturatzen dugula, orain arte furgonetarekin ibili garelako hara eta hona". Eguen goizean bidaia luzea zuten Goseko hiru kideek eta haien bi laguntzaileek. Bilbotik atera ziren goizean goiz, eta eskalak zituzten Madrilen, Istanbulen eta Dyarbakiren. Bihar, zapatua, egingo duten emanaldiaren gainera zera adierazi zigun Ines Osinaga Goseren ahotsak: "Egiten ditugun kontzertuaren antzerakoa izango da...". Astelehenean bertan itzuliko dira Gosekoak Kurdistanetik.

**DISKO BERRIA, UDAZKENEAN**

Azken emanaldia maiatzaren 16an egin zuen Gosek, Atarrabian. Ekainaren 26an 3.60 aretoan joko dute eta hilaren 27an, berriz, Bilbon, Kukutzako gaztetxean. Dagoeneko disko berria dihardute gertatzen. Durangoko azokarako kaleratuko dute. "Kolore baten izenburua izango duela esan dezakete bakarrik...", dio Inesek.



Gose taldeko kideak emanaldi batean. GOIENKARIA

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKAL

# Arrasate Musikalekoen eskutik, musikaz gozatzeko aukera

## Ikasturte amaiera gertu dagoela eta, emanaldiak egin dituzte astean zehar

**E.M.** > ARRASATE

Arrasate Musikalek hainbat ekitaldi antolatu ditu egunotan.Ikasturte amaiera gertu dagoela eta, musikaz gozatzeko aukera eskaini nahi izan dute Arrasate Musikaleko kideek.

Mario Fernandino, Ramses Uralde, Edorta Ayastuy, Asun Auzmendi, Isabella Blezien, Raquel Hernandez eta Gaizka Gaztelurrutia irakasleen laguntzaz, astean zehar hainbat emanaldi egin dituzte ikasleek Kulturaten eta Monterron jauregian.



Musikaz gozatzeko aukera eskaini nahi izan du Arrasate Musikalek. GOIENKARIA

Hainbat instrumentutako emanaldiak egin dituzte Arrasateko Musikalekoek eta jende dezente batu da aipatutako emanaldietan. Besteak beste, pianoa, gitarra, tronpeta, fliskornoa eta tronpa jo dituzte ikasleek jende aurrean. Arrasate Musikaleko kideak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin.




NAIA BAILEZ

## Naia Bailezen kartela saritu dute

Naia Bailez Kortabarria izan da San Juanetako kartel lehiaketako irabazlea. San Juan sua atzean duela, dantzan ageri den neska bat irudikatu du Naia Bailezek bere lanean. 20 lan aurkeztu dira lehiaketara eta Naia Bailezek 750 euroko saria jaso du. Arrasateko jaiak iragartzeko erabiliko dute haren irudia.

> EMAKUME TXOKOA

## Film laburren lehiaketarako lanak jasotzeko epea ekainaren 22ra arte dago zabalik

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea datorren ekainaren 22ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 79 41 39 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

> ERAKUSKETA

## Arrasateko margo taldekoen lanak Kulturaten eta 'Pócimas feministas', astelehenetik aurrera

Astelehenean, ekainaren 1ean, *Pócimas feministas* izenburuko erakusketa zabalduko dute Emakume Txokoan. Jone San Martinek Rosa Silvaren irudiekin eta Begoña Zabalaren testuekin egindako muntaia jasotzen du erakusketak. Astelehenetik ekainaren 11ra arte izango da ikusgai eta antolatzaileek erakusketara hurbiltzeko gonbidapena zabaldu nahi dute.

Bestalde, Arrasateko margo taldekoek jarritako erakusketa zabalik dago Kulturaten. Domekara arte izango da zabalik aipatutako erakusketa, ohiko ordutegian.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**ATLETISMOA** > ASTEBURUKO HITZORDUAK

# Arrasate Atletikoko hiru atleta gazte Gasteizera eta Lore Mar, Avilesera

Izar Gorroñogoitiak, Maddi Garrok eta Malen Azuak Gipuzkoa ordezkatuko dute Gasteizen

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Oraingo asteburuari begira, Arrasate Atletiko taldeko atletak batera eta bestera ibiliko dira. Batetik, Mendizorrotzan egingo dituzten eskola arteko jokoetan Maddi Garro (altuera saltoa), Izar Gorroñogoitia (luzera saltoa) eta Malen Azua (pertika saltoa) lehiatuko dira; gainera, hiru atleta horiek Gipuzkoako selekzioarekin jardungo dute.

**LORE MAR, AVILESERA**

Bestalde, Lore Marrek Avilesera egingo du bidaia, Euskadiko selekzioarekin jokatuko du-eta Espainiako kluben arteko txapelketa.

Horrekin batera, klubeko kadete eta gazte mailako gainontzeko atletak Eibarren izango dira, Unben, Gipuzkoako txapelketan.

**EMAITZA ONAK EIBARREN**

Joan den asteburuan Eibarren egin zuten Gipuzkoako eskola arteko txapelketan Izar Gorroñogoitiak urrea irabazi zuen luzera saltoan (4,69 metro) eta Maddi Garro laugarren izan zen (4,42 metro).

Pertika saltoan dabiltzan Lore Marrek (3,45 metro) eta Maialen Axpek (3,40 metro) azpimarratzeko moduko lana egin zuten, bigarren eta hirugarren sailkatuta. Pertika saltoan Naroa Agirre izan zen onena, eta domina infantil mailako Malen Azuari opari egin zion.

Jonathan Perezek ere urrea irabazi zuen, 4,80 metroko salto ona eginda, eta 4x100 metroko errelebu lasterketan Gipuzkoako txapeldunorde izan ziren Josu Revuelta, Txomin Gallastegi, Martin Davila eta Markel Blanco.

KONTUAN IZATEKO

### Oihane Urtzelaik, 11,17 metroko saltoa

**Oihane Urtzelai bere marka pertsonala hobetuta itzuli zen joan den asteburuan Avilesen egin zuten Kantabriako Jokoetatik. Arrasateko atleta Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen, eta ordura arte 10,94 metroko marka zuen salto hirukoitzean, baina Avilesen 11,17 metroko saltoa egin zuen.**

**Kategoria absolutuan hautatua izatearekin batera, Arrasate Atletikoko atletak gutxigatik ez zuen Espainiako txapelketan lehiatzeko gutxieneko marka gainditu (11,20 metro); izango ditu aukera gehiago.**

> ARETO FUTBOLA

## Zaldibarko txapelketako final-laurdenak hasiko dira gaur, egubakoitza, 19:00etan

Zaldibarko txapelketa azken fasera iritsi da, eta asteburuan jokatuko dituzte final-laurdenak. Hala, AT Celaya eta Dublin Irish Pub taldeek gaur bertan jokatuko dute partidua, 19:00etan hasita. Bihar, zapatua, norgehiagoka bakarra izango da, 12:00etan Abokajarrok eta Ciprisek jokatuko dutena, eta domekan izango dira beste bi norgehiagokak: 11:30ean Paulaner Driblingek eta Lasagabasterrek neurtuko dituzte indarrak eta 12:30ean izango dira aurrez aurre McAwen Dauen eta HLB 108.

Orain momentuan Paulaner Dribling da (4 puntu) A multzoan lider dagoen taldea eta B multzoan AT Celayak betetzen du lehenengo lekua.


Arrasateko gazte mailako jokalariak, joan den asteburuan lortutako igoera ospatzen. MONDRA

**FUTBOLA** > GAZTE MAILA

# Mondrako gazteak ohorezko ligara igo dira

Arrasateko mutilak, Pasaia erraz menderatu eta bigarren sailkatuta, kategoriaz igo dira

**X.U.** > ARRASATE

Joan den asteburuan Pasaiako taldeari 8-0 irabazi eta gero, Mondrako gazte mailako mutilak kategoriaz igo dira eta datorren denboraldian ohorezko mailan izango dira.

Kategoriaz igotzearekin batera, Abel Maestreren eta Marino Yusteren mutilek ahalegin handia egin dute lehenengo postuan sailkatu eta Gipuzkoako txapelketako finalerako sailkatzeko. Azken hiru jardunaldiak oso erraz irabazi dituzte (20 gol alde eta bakarra kontran), baina lehenengo sailkatu Urolak ez du amorerik eman, eta Zumarragakoek jokatuko dute Gipuzkoako txapelketako finala.


Arrasateko alebin mailako taldea. MONDRA

### Arrasateko infantilak Madrilera doaz gaur

**Urte osoan zehar lanean gogor jardun eta gero, infantil txikien kategoriako Arrasateko taldeak sari ederra jaso du, Madrilen hiruko torneo baten parte hartzeko gonbidatu dute-eta. Arrasateko gazteek gaur, egubakoitza, egingo dute Madrilera bidaia, eta asteburuan Atletico Madril eta Fuenlabradako Puerta Bonita taldeen kontra jokatuko dute. Duda barik, luzaroan ahaztuko ez duten esperientzia izango da.**

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: **943 79 12 74**

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**UDALA** > HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA

# Herriaren antolamendua zehazten duen Plan Orokorra onartu dute

Udal Gobernu taldearen eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dute; EAk eta EAJk ezezkoa eman diote

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Herriak datozen zortzi urteetan izango duen antolamendu eredua jasotzen duen Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari behin betiko onarpena eman zion udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Udal Gobernu taldearen eta PSE-EEren aldeko botoekin egin du aurrera Plan Orokorrak.

EAJ eta EAk ezezkoa eman zioten. EAJko Rafa Amosarrainek bilkuran azaldu zuenez, oro har, Planaren zati handi batekin ados dauden arren, euren ezezkoaren arrazoia da Planak Zabalotegiko errepidea ez jasotzea. Haren esanetan, "Zabalotegi eta inguruneari irtenbidea emateaz gain, errepideak ahalbidetuko luke trafikoa banatzea beste sare baten eta horrek erraztuko luke etorkizunean alde zaharraren peatonalizazioa. Eta inguruneari behar duen zerbitzu integrala emango lioke".



Bergararen ikuspegia Surrako gainetik. GOIENKARIA

**EREDU EZ ESPANTSIONISTA**

Xabier Yeregi arkitektoak egin du dokumentua eta bertan jasotzen denez, Planak proposatzen duen antolamendu eredua ez da batere espantsionista: gaur egungo planteamenduan lurzoru ez erresidentzial moduan kalifikatuta dauden lurrei ez zaie garapen berrietarako lurzoru erresidentzial kalifikazioa ematen. Horren haritik, antolamendu eredua oinarrituko da industriak itxi edo lekuz aldatzean lagatako guneen birsortzean.

Bestalde, Planak proposatzen duen lurralde antolamenduak egungo eta etorkizun hurbileko beharrei erantzuna emateaz gain, epe luzeko garapenetarako bidea ere irekita lagatzen du, eta hori oso aintzat hartu dute, epe luzeko garapena ez baldintzatzeko.

**LAU URTEKO IBILBIDEA**

Asteleheneko behin betiko onarpenak duela lau urte abiatutako prozesuari eman dio amaiera. 2005eko azaroan aurkeztu zuen orduko Udalak Planaren aurrerapena eta ordutik ibilbide luzea egin du. Aipatzekoak dira jasotako alegazioez gain –Zabalotegi eta Boluko bizilagunena, esaterako–, 2006ko ekainean, Lurzoru Publikoaren Legea onartu zuela Jaurlaritzak eta horrek aldaketak ekarri zituela. Batetik, lehen Arau Subsidiario zenak Plan Orokorra izena hartu zuen; eta, bestetik, urbanizazio plangintza jarraituko zuen Aholku Kontseilua sortu beharra –eta hala egin zuten.

Plan Orokorraren Hasierako Onarpena onartu zuen udalbatzak 2007ko apirilean. Baina maiatzean udal hauteskundeak izan ziren eta Gobernu aldaketak Plan Orokorraren Hasierako Onarpenari hainbat aldaketa egin zizkion ez zegoelako ados jasotako guztiarekin, batik bat, Zabalotegiko errepidea egitearekin. Hala, aldaketa hori jasotzeko beste dokumentu bat egin behar izan zuten eta Aholku Kontseilua ere berria eratu zuten.

2008ko azaroan jaso zuen Planak behin-behineko onarpena eta, horren ondotik, ia hiru hilabetez Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduko Batzordearen eskuetan egon da. Plana aztertu dute eta Udal arduradunek adierazi dutenez ez diote aldaketa aipagarririk egin, nahiz eta "Planak Uberan aurreikusten dituen etxeak egiterik ez zuten nahi". Dena den, Udalak aurrera egin du bere asmoarekin, izan ere, Jaurlaritzak dioena ez da loteslea eta Udalak bere asmoa justifikatuz gero aurrera egin dezake, eta hala izan da.

LUR INDUSTRIALAK

## Hiru industriagune daude aurreikusita

Larramendi da San Juango industriagune berria, Sprilurrekin batera bultzatzutakoa. Sprilurrek 300.000 metro koadro erosi eta gunea urbanizatzen dihardu. 2009ko abendura arteko epea du horretarako. Lanok bukatutakoan 25.000 metro koadro salduko dizkio Debagoieneko Industrialdeari eta gainerakoak enpresei zuzenean.

Mekolaldeko industriagunean Lazpiurrek handitu egin du lantegia eta Tornilleria Deba eta Danobat ere han jarri dituzte. Lantegi gehiagorako lursaila dago.

Ipiñarri zerrategiaren atzean, Kukubaso izeneko eremuan egingo dute 3. gunea.

AZPIEGITURAK

## Beasain-Durango, tranbia eta AHT

Hainbat errepide, tranbia, AHT eta bidegorria jasotzen ditu Planak.

Beasain-Durango datozen urteetan egingo dute. Bonbulu parean lotura izango du Urteaga kalearekin eta sarrera eta irteera izango ditu hor. Bestalde, San Migel mendia tunelean zeharkatuko du.

Tranbiaren kasuan, hainbat alegazio egin zizkion Udalak. Jaurlaritzak oraindik ez die erantzunik eman, baina Planak jaso egin ditu.

AHTren gaineko informazio zehatzik ez eduki arren, ibilbidea Planean sartu dute. Goragoko administrazioek egindako proiektuak ezinbestean jaso behar dira.

ETXEBIZITZAK

## 1.389 etxe egitea aurreikusten da

Plan Orokorrak aurreikusten du 1.389 etxebizitza berri eraikiko direla herrian datozen zortzi urteetan.

Horietatik etxebizitza libreak izango dira 700 (%50,4); tasatuak, 290 (%20,88) eta babestutakoak, 399 (%28,72).

Etxebizitzok herriko hainbat gunetan eraikitzea aurreikusi dira, besteak beste: Labegaraietan (20); Algodonera lantegiak lagatako orubean, 320; Tornilleria Deba lantegiak lagatako orubean, 327-342; Martoko gainean, 74; Artabillan, 128, Eregetxo plazan 63, Mugertzan, 72 eta Uberan, 15.

**bere ustez**



Aitziber Azkondo

## Gure Bitorianatxo!

Ordu gutxi barru emango diote Bitorianatxok eta bere laguntzaile leiala den Felixek hasiera jaiei.

1981ko Pazkoetatik ematen die hasiera eta bukaera. Aurretik Txibisto (1979), San Juan auzoan bizi zen Euskal Herriko bidelapur beldurgarria eta Xirulari (1980) izan ziren jaien iragarleak.

Bitorianatxori buruz gauza gutxi dakigu; San Kristobal auzoan zegoen Mozolotegi baserrikoa omen zen. 1920 aldera hil zela uste da eta amona zahartxoa zela. Grazia handiko emakumea, bakartia, txurrutera zamarra, erdi sorgintzat hartua omen zen (sendabelarretan jakitua zelako) eta inguruko erromerietan limoi ura saltzen ibiltzen zen, *Berrigara*-ren arabera 1998garrenean. "Sorgiña i zan Bitorianatxo ori, lanian ibiltze i zan etxeik etxe mantentze aldera", dio bestalde Bergarako hiztegiak.

**"Bitorianatxori buruz gauza gutxi dakigu; erdi sorgintzat hartua omen zen"**

Niri ordea, Bitoria toponimotik datorrenaren ideia bururatu zitzaidan behin, *Bitorixako* jaiei hasera ematen dien pertsonaiaren parekoa egin eta *Bitoriatik*, Bitorianatxo asmatu zutenaren antza hartzen nion. Hala ere, politagoa iruditzen zait herriko pertsonaiaren oroitzapena. Xarmangarriagoa da ezta? Ondo ondo pasa jaiak!

EUSKO
MEKANIZAZIO HAUNDIAK
DOITASUNEZKO MUNTAIAK
MENDEKOSTE-JAI ZORIONTSUAK!!!
www.eusko.es

Amillaga 7 - Tel.: 943 76 21 41 – Faxa: 943 76 46 05 – BERGARA – *eusko@eusko.es*


HAUR HEZKUNTZAKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA
ALDAKETA PREMIA?
1799
2009
Mariaren Lagundia
ikastola
GIZARTE INTEGRAZIOKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA
Zure lekua bilatzen zabiltza?
Plaza mugatuak
Matrikulatu ekainaren 2etik 12ra!
www.mlagundia.net
%100eko LANBIDERATZEA
Espaloia 1 Tel.: 943 76 25 40 / 41 ikastola@mlagundia.net



Gaur egungo bidegurutzea ordezkatuko du biribilguneak. MONIKA BELASTEGI

**AZPIEGITURAK** > BIRIBILGUNEAK

# Hasi dira Amillagan biribilgunea eraikitzeko lanak

## Lanak sei hilabetean bukatu beharko dituzte eta aurrekontua 1,1 milioi euro da

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Martitzenean hasi ziren Amillagan biribilgunea egiteko lanak. Oraindik errepidean nabari ez bada ere, lanGileendako kaxetak eta beste muntatzen hasi dira, Aldunditik jakainarazi dutenez.

Gasolindegi aurrean egingo dute, gaur egun dagoen Elgetarako bidegurutzearen ordez. Guillermo Ibargoyen SA enpresak egingo du eta sei hileko epean bukatu beharko ditu lanak. Aurrekontua 1,1 milioi euro da eta, hain zuzen, Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentua egingo da horren kargu.

Biribilguneak izango ditu lau adar nagusi eta bigarren mailako sarbide bat, geometria oboidea eta 47 eta 51 metro arteko kanpoaldeko diametroa. Hala, gaur egun bidegurutzeak hartzen duen azalerara egokituko da. Zirkulazio eraztunak lau metro zabaleko bi bide izango ditu eta erdiko irla ere oboide formakoa, 15 eta 20 metroko erradioarekin.

## oharrak

IRTEERA

**> Irteera Europako Mendietara, Pol-Pol eta Gorla Alpino mendi taldeekin**

Ekainaren 13an eta 14an egingo dute irteera hori. Irteera Fraiskozuritik egingo dute, 05:30ean. Izena emateko jo Pol-Pol Mendi Taldearen egoitzara.

MUSIKA ESKOLA

**> 'Miserableak' ikuskizuneko CDa eta DVDa eska daitezke Musika Eskolan**

Musika Eskolan egin daiteke eskaria, maiatzaren 28a aurretik, 15:30-19:30 ordutegian. CDaren prezioa 7 euro da (5 taldekideendako); eta DVDarena, 15 (13 taldekideentzat).

IKASTAROA

**> Masaje ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak**

Ekainaren 4an, 11n, 18an eta 25ean izango da, 19:00-21:00 ordutegian, Aranzadi ikastolan, eta eskolak Alaitz Badiolak emango ditu. Izenematea da hilaren 28a baino lehen, Jardunen (943 76 36 61). Prezioa da 17 euro bazkideendako eta 20 gainerakoendako.

BATZARRA

**> Tornilleria Deban etxea erostekotan direnei batzarrerako dei egiten diete**

Lorentxoko bizigunean –Tornilleria Deba zena– etxebizitza erosteko asmoa dutenei, batzarrerako dei egiten diete. Datorren eguaztenean, ekainaren 3an, izango da, 20:00etan, kultura etxean. Deialdia erosle talde batek egiten du.

**JENDARTEA** > TXAKURREN GAINEKO ORDENANTZA

# Txakurren kaka batu ezean 600 euroko isuna jaso dezake haren jabeak

**M.B.** > BERGARA

Txakurrak eduki eta zaintzeko Udalak daukan ordenantza aldatzeko proposamena onartu egin zuen udalbatzak astelehenean egindako osoko bilkuran. Onartu ziren aldaketa guztiek txakurrek kalean egindako gorotzekin dute zerikusia eta aho batez onartu ziren.

22. artikuluari honako pasartea gehitu diote: "Debekatuta egongo da txakurrak lorategi eta parke publikoetara sartzea". Horrek beste hainbat artikulutan aldaketak egin beharra ekarri du. Hala, 29. artikulua ere moldatu egin dute: "Debekatuta dago txakur gorotza lagatzea erabilera publikoa duen bide eta plazetan, haurren parkeetan, lorategietan eta, oro har, apaingarrirako edota pertsonen joan-etorrirako diren lekuetan. Esandako lekuetatik edozeinetan txakurraren gorotza lagatzen bada, txakur-jabeak edo txakurra daramanak dauka gorotza jasotzeko ardura. Horretarako poltsa iragazgaitzetan sartu, poltsa itxi eta zakarrontzietara edo udal zerbitzuek adierazteko bestelako tokietara botako du".



Txakurra, Errotalde parkean. M.B.

30. artikuluak Udalaz dihardu, eta honela geratu da: "Udala ahaleginduko da aurrekontuek aukera ematen badute eta egoki iruditzen zaion unean eta lekuan txakur-guneak egokitzen, horien kokapena ondo seinalizatuz. Txakurren jabeak edo txakurra daramanak txakur-guneak erabiliko ditu eta hor ere txakurrak lagatako gorotza jasoko du, bertan ere gorotza lagatzea debekatuta baitago. Horretarako poltsa irazgaitzetan sartu, poltsa itxi eta zakarrontzietara edo udal zerbitzuek adierazitako bestelako tokietara botako du".

**600 EUROKO ISUNAK**

Isunen atalean ere izan dira aldaketak. Txakurrak eduki eta zaintzeko udal ordenantzako arau-urratze arinek 30,05 eta 300,50 euro arteko isuna izango dute, baina bada salbuespen bat: "Txakurren gorotza erabilera publikoa duen bide eta plazetan utziz gero, haurren parkeetan, lorategietan, *pipican*-etan eta, oro har, apaingarrirako edota pertsonen joan-etorrirako diren lekuetan, isuna 601,01 euro artekoa izan daiteke.

JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK

Ospitaleko erizain laguntzailea
•
Zaharren egoitzetan
•
Eguneko zentruetan
•
Lehen artapenetako laguntzailea

Kontsulta pribatuetan.
•
Hortz-kliniketan laguntzailea.
•
Gaixoen zaintza.



AURREMATRIKULA:
ekainaren 1tik 12ra
(biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
ekainaren 29tik uztailaren 3ra
(biak barne)

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
Santa Barbara bidea z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxa: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

**UDALA** > EKAINEKO PROGRAMAZIOA

# Erdi Aroko azoka egingo da hilaren 20an eta 21ean

Ingurumena, jaiak, antzerkia eta zinema dira Kultura sailak ekainerako prestatu duen egitarauko protagonistak

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Udaleko Kultura Zerbitzuak gertu dauka ekaineko programazioa. Antolatutako ekitaldien artean, ekainaren 20an eta 21ean ospatuko den Erdi Aroko Azoka nabarmen daiteke. Era berean, badira beste hainbat hitzordu interesgarri: esate baterako, *Kanpora begira* Txapa Irratiaren 25. urteurreneko jaia izango da ekainaren 13an, egun osoz. Besteak beste, txalapartariak, dantza erakustaldia, ipuin kontalariak, herri bazkaria eta musika kontzertuak izango dira egun horretan. Gaztetxoenei zuzenduta, aste bukaera berean, hilaren 13an eta 14an, *Kantari* musika saioa izango da Zabalotegiko aretoan, arratsaldez.

Antzerkiari dagokionez, Hortzmuga taldearen *Superplast* antzezlana (ekainaren 11n, Ingurumenaren Nazioarteko Egunarekin bat egiteko) eta Azeri taldearen *Txanobarragorro* (hilaren 19an) ikusteko aukera izango da. Zineklubeko programazioa ere gertu dauka Udalak: *Home*, *Garaje* eta *XXY* filmak emango dituzte eguenetan, hilaren 11tik aurrera.

Bestalde, auzoek ere protagonismoa izango dute datorren hilabetean zehar: San Antonioko jaiak ekainaren 12tik 14ra ospatuko dira eta aste bukaera horretan Elosuko Otaba jaiak ere izango dira.

**INGURUMEN EGUNA**

Antzerkiaz gain, beste hainbat ekitaldi izango dira Ingurumen Egunarekin lotuta: mendi ibilaldia (ekainaren 6an), Usondo parkera bisita gidatua (ekainaren 9an) edo Roberto Bermejo EHUko ekonomia irakaslearen hitzaldia (ekainak 10).



MUSIKA ESKOLA

## Trikitiarekin Bartzelonan

Bartzelonako Euskal Etxeko arduradunak Bergarako Musika Eskolako eta Jarduneko trikiti irakasle Aritz Alustitzarekin harremanetan jarri ziren abenduan, eta joan den aste bukaeran han izan da taldetxo bat (goian), Zaldibarko eskolakoekin batera. Zapatu eguerdian Bartzelona erdialdean ibili ziren jotzen, eta trikiti doinuekin euskal dantzak ere tartekatu dituzten. Turistek argazki piloa atera zizkieten bergararrei. Trikitizaleak pozik itzuli dira Bartzelonatik, esperientzia guztiz aberasgarria izan da-eta.

> ERAKUSKETA

### Bergara Hiria lehiaketako argazkiak Aroztegin

Bergara Hiria lehiaketara aurkeztutako lan aipagarriak daude ikusgai Aroztegi aretoan. Zuri-beltzeko zein koloretako lanak jarri dituzte Barrenkaleko aretoko erakusketan.

Erakusketa hori ekainaren 2ra arte izango da zabalik, ohiko ordutegiarekin: martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta, azkenik, domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

> MUSIKA ESKOLA

### 'Udaleku musikalak' ekainaren 29tik uztailaren 10era

Udako oporrei begira, *Udaleku musikalak* egitasmoa iragarri du Musika Eskolak. Udalekuak 4-7 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude, eta, metodo dibertigarria erabiliz, musika ezagutzea eta ulertzea da helburua. Besteak beste, erritmoa, melodia, dantza, musika tresnen tailerra eta koreografia landuko dituzte ekainaren 29tik uztailaren 10era. Argibideak, Musika Eskolan (943 76 57 80).

GOIENA
aseguru
artekaritza
KOLEGIATU ZKIA.: 72.645

ZURE KONFINDANTZAGATIK MILA ESKER



ONDO PASA JAIXAK

Zurekin Zuretzat

**GASTEIZ** Libertad 6 - 12. bulegoa
Tel.: 945 00 00 71
Faxa: 945 00 00 72

**ARRASATE** Antso Abarka 6
Tel.: 943 79 59 81
Faxa: 943 79 39 18

**BERGARA** Zurradero 2
Tel.: 943 76 97 65
Faxa: 943 76 40 37

*www.goienaaseguruak.com • goiena@goienaaseguruak.com*

**GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA SL, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Admiistrazioen Sailak baimendurik, izena emanda Aseguruen Artekaritza Erregistro Berezian MS-241 Klabearekin**

**ZIKLISMOA**

# Pentekoste saria egingo dute domekan

Lehendakari Txapelketa barruan egingo dute 103 kilometroko proba

**X.U.** > BERGARA
Lehendakari Txapelketako seigarren lasterketa egingo dute domekan Bergaran: Pentekoste saria. Baina ziklistek hitzordu bikoitza izango dute asteburuan, zapatuan Beasainen izango da-eta txapelketa horretarako bosgarren proba puntuagarria: Loinaz saria.

Hala, 23 urtez azpiko proba horretan askok *dobletea* egingo dute, eta ikusteko dago domekan nork dituen hankak ondoen.

**AZKEN ORDUKO ALDAKETAK**
Hasiera batean lasterketa Labegaraietan hasi eta amaitu behar zuten, baina Udalak azken orduko aldaketak egin ditu. Hala, San Antonion izango da bai irteera puntua, eta baita helmuga ere. Hala, domekan 09:30ean hasiko dute lasterketa, eta ziklistek 103 kilometro izango dituzte aurretik. Kilometro gehienak Debagoieneko errepideetan egingo dituzte, eta 91. kilometroan Asentzion izango da mendiko saria; Kanpanzartik igoko dira.



Haritz Resusta pilota astintzen, Gorka Irizarren eta Azkoitiko pilotarien begiradapean, joan den egubakoitzean. JOSETXO ARANTZABAL

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Herri Arteko finalerdia jokatuko du gaur Bergarak

Bergararrek leku aproposa dute gaur (20:00) herriko jaiak hasteko, pilotalekua

Azkoitia kanporatu ostean, bergararrek Donostiako pilotariak izango dituzte aurrean

**XABIER URTZELAI** > BERGARA
Urte asko igaro dira Bergara Herri Arteko finalera azkenekoz sailkatu zenetik, 20 urte baino gehiago bai. Eta, horrenbeste denbora igaro eta gero Reyes Azkoitiaren mutilek gaur, egubakoitza, eman dezakete finalera sailkatzeko lehenengo pausoa, zer eta herriko jaietako lehen egunean.

20:00etan hasita, kadetetan Gallastegik eta Resustak, gazte mailan Resustak eta Irizarrek eta seniorretan Mugurutzatarrek defendatuko dute Bergara, eta aurrean Donostiako pilotariak izango dituzte: "Donostiaren gainean zer esango dugu ba, gazte mailan jokatzen duen Arzelus Bergara Hiriko finalera sailkatu dela eta senior mailan jokatzen duten Baez anaiak amateur mailan dagoen bikote osoenetako bat dela", adierazi digu Azkoitiak.

Hain zuzen ere, joan den egubakoitzean Azkoitiko pilotariak 3-0 mendean hartu izanak bergararrak animatu ditu: "Uste dut kanporaketa horrek zaletasuna piztu duela herrian, izen handiko kontrarioa utzi genuelako atzean eta hurrengo kanporaketa herriko jaietan jokatzea polita izango da, gure pilotariendako, batez ere". Hala, Bergarako pilotariei esker, gaur ez da egongo herriko jaiak hasteko leku aproposagorik: Udal Pilotalekuko harmailetan, etxekoak finalerdietako joaneko lehenengo partiduan animatzen.

GOIERRI
Auto gidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gaztelaniaz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza,5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

ileak
ile apaindegia - estetika
Jai zoriontsuak bergarar guztioi!
Ozaeta 3 - Tel.: 943 76 22 54
20570 BERGARA

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

**KULTURA** > ARKUPEKO EGITARAUA

# Txotxongiloen gaineko erakusketa eta musika, ekainean

Musika eskolako ikasleek musika eta dantza saioak egingo dituzte; gainera, Mahaster River, The Upper Room taldeak egongo dira, besteak beste



Corrado Masacciren txotxongiloak. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Astelehenean bertan jarriko dute abian ekaineko egitaraua Arkupen. Txotxongiloen gaineko erakusketa eta musika izango dira protagonista.

Eskulan ikastaroetan egindako lanak daude oraindik erakusketa aretoan, baina, ekainaren 3tik 15era bitartean, txotxongiloek hartuko dute haien lekua. Zirkoa izango da erakusketako gaia: zirkoaren jatorria, pertsonaiak… eta Corrado Masacci italiarrak txotxongiloen bitartez aurkeztuko digu. Ekainaren 16tik 30era, ostera, pintura ikastaroetako lanak izango dira ikusgai.

**IKUSKIZUNAK**
Umeek ekitaldi bi izango dituzte Arkupen, ekainean, hilaren 6an, hain zuzen. Goizean, ipuinak kontatuko dizkie Amaia Arriaranek liburutegian (11:30). Eta arratsaldean, Kixka taldeak *Txuribeltz* ikuskizuna eskainiko die Zaraia aretoan (3 euro).

Helduek, ostera, antzerkia izango dute ekainaren 19an (22:00). Ganso Teatro taldeak *Renato* antzezlana eskainiko du (8 euro). Eta erretiratuendako ikuskizuna ere antolatu dute: Elvi sabeliztunak *Ventriloqueando* saioa eskainiko die hilaren 15ean, astelehena (16:00).

Horiez gain, lau ikus-entzunezko ere izango dira Zaraia aretoan (19:30): hilaren 11n, *Vias ferratas en Dolomitas* aurkeztuko du Casimiro Bengoetxeak; 16an, *Hegaztiak Urkulun* eskainiko du Mikel Olanok; 17an, *Lineas discontinuas* filma emango dute Ekologistak Martxan taldeko kideek, eta ekainaren 18an, *Crecer navegando*, Zigor Etxeberriak.

**HAINBAT ERATAKO MUSIKA**
Ekaineko protagonista nagusia, baina, musika izango da. Batetik, Leizarra musika eskolako ikasleek musika eta dantza saioak eskainiko dizkiete guraso, senide eta lagunei, eta bestetik, hainbat eratako doinuak lantzen dituzten taldeak izango ditugu.

Datorren aste guztian, astelehenetik egubakoitzera, dantza saioak eskainiko dituzte Leizarra musika eskolako kideek (17:00-20:00). Ekainaren 9an, martitzena, akordeoi eta txeloekin osatutako taldeak kontzertua eskainiko du (18:30) eta 12an, balet eskolako ikasleen saioa izango da (19:00).

Kanpotik etorriko diren taldeei dagokienean, ekainaren 6an Mahaster River bergararrek egingo dute kontzertua (22:00). Hilaren 7an, Arantza eta Pantxo bikoteak boleroak eta beste hainbat doinu eskainiko dituzte (19:30), 5 euroren truke. Eta hilaren 13an, Sabina taldeak Joaquin Sabinaren kantak ekarriko ditu Zaraia aretora (22:00). Ekainaren 14an, ostera, gospel doinuak izango ditugu The Upper Room taldearen eskutik (19:30) eta 20an, Inalectrik aretxabaletarraren kontzertua izango da (22:00).

**LIBURU AURKEZPENA**
Gainera, Leintz bailararen gainean Rosa Aierbek idatzi duen liburua aurkeztuko dute ekainaren 13an (13:00): *La historia del Valle de Leniz* (1260-1750).

**ELKARTASUNA** > FUTBOL TXAPELKETA

# Sasoi bateko futbol izarrak elkartuko dira Luceroren aldeko txapelketa jokatzeko

Realeko, Eibarreko eta UDAko beteranoek txapelketa jokatuko dute bihar, Ibarra futbol zelaian (16:00) Luceroren alde dirua batzeko




Maiatzaren 21eko entrenamendu saioa hasi aurretik UDAko beteranoak elkartuta. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA
Luis Lucero eskoriatzarraren aldeko futbol txapelketa antolatu du Aretxabaleta Kirol Elkarteak. Sasoi baten izarrak izan ziren jokalariak elkartuko dira, dirua batu eta ikuskizun polita eskaintzeko. Sarrerak salgai daude Orly, Dorleta, Gurea eta Zaraia tabernetan (5 euro).

**JOKALARI ENTZUTETSUAK**
Hiru talderen artean jokatuko dute txapelketa. Hona: 16:00etan, UDA-Eibar; 17:00etan, Eibar-Real Sociedad; eta 18:00etan, Real Sociedad-UDA. Sasoi baten futbol jokalari entzutetsuak izandakoak elkartuko dira, tartean, Realeko Bixio Gorriz, Lutxo Iturrino eta Jon Bakero, eta Eibarreko Bixente, Peio Olano eta Oskar Artetxe.

UDAko jokalariak, ostera, hauek izango dira –baliteke baten batek ezin izatea eta besteren bat sartzea azken orduan: Txomin, Xabi Lasagabaster, Mikel Larrañaga, Luis Mari Madinabeitia, Inaxio Garro, Jon Arriola, Cesar, Mikel Luengo, Alberto Garro, Xabi Zangitu, Igor Arenaza, Asier Ingidua, Joseba Arana, Kepa Azkue, Iker Agirre, Igor Gordobil, Asier Aranguren, Jokin Bengoa eta Jon Ander Larrinaga. Entrenatzaile lanetan ibili dira Goio Arrieta eta Patxi Agirrezabalaga. Ilusio handiarekin gertatu dute guztiek txapelketa, jakinik Lucerori laguntzeko dela.

**AITA MENNIN DAGO LUCERO**
Luis Lucerok hainbat hilabete daramatza Aita Menni ospitalean eta egonaldiaren gastuari aurre egiten laguntzeko antolatu du UDAk partidua. Ezbeharra izan zuenean ohorezko infantilen taldeko delegatua zen.

## ZUZENKETA

Maiatzaren 7an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak etxebizitzak egiten dabiltzan Deba ibaiaren beste aldeko gunearen izena. *Asteleheneko Goienkaria*-n Txalapea ibilbidea jarri genuen, baina ez da hala, Txarapea ibilbidea baizik.

Egindako azken izendapenetan legez, oraingoan ere herriko toponimia hartu dute kontuan gune berriaren izena hautatzerakoan. *Txara* berbak *baso txikia* esan gura du eta, antza denez, sasoi baten basoa zegoen gune horren gainean. Horregatik Txarapea ibilbidea: basoaren azpian dagoena, hain zuzen.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**HEZKUNTZA** > ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA

# Metal eraikuntzen eskaintza lanbide eskolan

Tailerrean ekipamendu berriak izango dituzte: soldadurako errobota eta mozteko oxiplasma mahaia


Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasleak, tailerrean lanean. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Aretxabaleta Lanbide Eskolak goi mailako metal eraikuntzaren heziketa zikloa jarriko du abian datorren ikasturtean. Soldadura, galdaragintza eta metal eraikuntzak emateko tailerra inauguratu zuen 2008an eta bertako makinak geratu barik ibili dira lanean, ikasle gazteak, langileak eta langabeak gertatzen. Datorren ikasturtean, gainera, ekipamendu berriak izango dituzte tailerrean: soldadurako errobota eta mozteko oxiplasma mahaia.

**ENPRESAK, JAKINAREN GAINEAN**
Bi ekipamendu horiekin tailerra osatuta geratuko dela ikasleen prestakuntza hobetzeko diote lanbide eskolako arduradunek. Eta gaineratu dute inguruko enpresak jakinean daudela ikastetxean egiten dabiltzan hobekuntza horietaz: "Gure instalazioak ezagututa, badakite prest gaudela eurek behar duten prestakuntza zehatz hori emateko".

Metal eraikuntzaren ikasketekin batera, beste hainbat ziklo –goi eta erdi mailakoak– irakasten dituzte Aretxabaletako Lanbide Eskolan, bai langabeendako, bai langileendako. Hain zuzen, Hobetuzek finantzatuta, soldadurako 10 ikastaro egin dituzte langile eta langabeendako, eta 40 bat gazte ibili dira titulu ofiziala ateratzen.

**INTERNET**

## Blogen eta sare sozialen gaineko ikastaroak

KZgunean egingo dituzte ekainean bi orduko ikastaro praktikoak

**M.A.** > ARETXABALETA
Astelehenik aurrera arratsaldez egongo da zabalik Markole auzoan dagoen KZgunea (16:00-20:00).

Hilabete guztietan legez, hainbat ikastaro eskainiko dituzte, eta oraingoan, lau berriak dira. *Ikaserraz* deitutako atalaren barruan antolatu dituzte, bi ordukoak dira eta Haizea Odria begiralearen esanetan modu erraz eta praktikoan egitekoak. Hona ikastaroak: *Skype*: deiak, bideodeiak eta mezularitza debalde Internet bidez; *Sare sozialak*: Facebook zer den; *Google tresnak*: Google-ek eskaintzen dituen produktuak: Gmail, Maps, Calendar… eta *Blogger*: blogak nola sortu. Izena aurrez eman behar da KZgunera deituta, 943 79 94 44.

> BERTSOLARITZA

### Eskolarteko txapelketan aipamena bi gaztek

Gipuzkoako eskolarteko 29. bertsolari txapelketa jokatu dute azken asteotan. Hain zuzen, maiatzaren 15ean bertsopaperak egiteko elkartu ziren Arizmendi ikastolako Almen gunean Aretxabaleta eta Eskoriatzako hainbat gaztetxo. Eta epaimahaiak dagoeneko aukeratu ditu Gipuzkoako gazteek egindako bertsopaperik onenak. Aretxabaletarren artean Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko (9-10 urte) bi umek jaso dute aipamena: Iñaki Saenzek (Kurtzebarri eskola) eta Ixak Sarasuak (Arizmendi ikastola).

Sari banaketa ekitaldia gaur egingo dute Donostiako Manteo kiroldegian.

> MUSIKA

### Zabalik da Leizarra Musika Eskolako matrikulatze epea

Leizarra Musika Eskolak zabalik dauka datorren ikasturteko matrikulatze epea. Ekainaren 18a bitartean eman behar dute izena interesatuek Arkupe kultura etxean dagoen musika eskolako bulegoan (17:00-19:00).

Hona musika eskolak eskaintzen duena: musika tailerrak (4 urtetik aurrera), dantza (4 urtetik aurrera), musika eta dantza helduendako, instrumentuen ikasketak –biolina, gitarra, pianoak, txistua, trikitixa…–, instrumentuekin osatutako taldeak eta konboak –musika inprobisatzen jakitea–. Gainera, taldeak osatzeko asmoa dute eta ikasleek nahi duten erako musika lantzen hasi: rock, klasikoa…


Fernando Unanue, 40 euroko txartelarekin. EUSKALTEGIA

**EUSKARA** > LEHIAKETA

## Fernando Unanuek jaso du 'Atxabaltan be leidu' saria

Toti Martinez de Lezearen 'Nur' eleberria gomendatuta, 40 euroko txartela hartu du

**M.A.** > ARETXABALETA
Liburuaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta bigarren aldiz antolatu dute Udal Euskaltegiak eta Loramendi Euskara Elkarteak *Atxabaltan be leidu* egitasmoa. Bertako lehiaketan parte hartzeko liburu baten gomendioa bidali behar zen, eta 27 jaso dituzte. Egunotan egin dute zozketa eta Fernando Unanue izan da saritua. Toti Martinez de Lezearen *Nur* eleberria gomendatu du hark. Hona: *Istorioa aiton-amonen etxean kokatzen da. Pertsonaia nagusiak gnomo irlandar bat zaborrontziaren ondoan aurkitzen du. Finn du izena eta bere mundura eramaten gaitu, gu ez ezik, Nurren lagunak ere mundu liluragarri horretara eramaten ditu.*

Elkar liburu dendan gastatzeko 40 euroko txartela jaso du Unanuek.

**KIROLAK** > KARATEA

## Hiru garaikur ekarri dituzte karatekek Azkoititik

Ekainean klub arteko txapelketa jokatuko dute Arrasate eta Bergararen aurka

**M.A.** > ARETXABALETA
Denboraldiko azken txapelketak jokatzen dabiltza Aretxabaleta Kirol Elkarteko karate jokalariak. Hala, Azkoitian izan dira egunotan Udaberriko Jaialdian. Bederatzi karatekak jardun zuten kata modalitatean eta horietako bik kumiten ere bai.

Hain zuzen, katan, kimuen mailan, bigarren geratu zen Victor Perez, lau saio irabazita. Kumite modalitatean, infantil mailan, ostera, hirugarrena izan zen Gorka Gonzalo (43 kilo azpikoetan) eta Ekaiz Irusta lehenengo geratu zen bost saio irabazita (57 kilotik gorakoen artean).

**KLUB ARTEKO TXAPELKETA**
Ekainean bukatuko dute denboraldia klub arteko txapelketa jokatuta Arrasate, Bergara eta Aretxabaletaren artean. Aurten Arrasaten izango da.


Karatekak garaikurrekin, Odei Vazquez entrenatzailea alboan. ODILO VAZQUEZ

> PARROKIA

### Pastoral Barrutiko kideak Apotzagan elkartuko dira bihar

Leintz Pastoral Barrutiko kideek –Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta auzoetako kideak–, pastoralgileek zein eliztarrek Eskoriatzako Apotzaga auzoan dute hitzordua bihar, hilak 30, (18:00). Ikasturtea bukatzear dagoela-eta bilera egingo dute lehenengo eta ostean afarimerienda izango da.

Bestalde, katekesi ikasturteari bukaera emateko familia meza izango dute katekesian ibili diren umeek (6 eta 9 urte artekoak) guraso eta senideekin batera ekainaren 6an, zapatua, (19:30). Umeei eskainitako meza izango da eta ikasturtean egindakoa gogoratu eta ospatuko dute guztien artean.


Antzinako Arrasate
Maiatzak 30 eta 31
Arrasateko Udala

■ ELKARRIZKETA: OIHANA ARANBURU / KULTURA ZINEGOTZIA

# "Arrasaten garrantzia izan duten arloak landuko dira"

ARANTZAZU EZKIBEL

**Aurten bosgarren urtez jarraian antolatuko dute Arrasaten Erdi Aroko azoka, azken urteetan Antzinako Arrasate izena duen ekitaldia. Zapatu eta domeka bitartean Arrasateko erdiguneko kaleek Erdi Aroko itxura hartuko dute; eta lehengo mondragoetarrak nola bizi ziren ikusteko aukera egongo da. Duda barik, galdu ezin den hitzordua izango da.**

**Zeintzuk izango dira aurtengo edizioaren berritasunak?**

Azoka honek, gure ustez, bi helburu nagusi ditu: batetik, herritarren partaidetza bultzatu eta bideratzea; eta, bestetik, desagertzear egon daitezkeen antzinako ohiturei lekua egitea artisautzako produktuak oinarri hartuta.

Beraz, aurten herriko kultura talde gehiagok hartuko dute parte eta aurrerantzean joera hori mantendu edo areagotzea litzateke gure apustua. Bestalde, aspaldiko usadioak gogora ekartzeko asmoz, aurtengoan artilearen prozesu osoa aurrez aurre ikusteko aukera izango da, lehen baserrietan egiten zen moduan.

**Iaz, jai eredua aldatu egin zenuten: herrian sustraitutako jai parte-hartzailea egitea erabaki zenuten. Zergatik?**

Aurretik zegoen jai ereduaren inguruko hausnarketa baten ondorio izan zen norabide berri baten aldeko apustua egitea; bereziki herritarren partaidetza sustatu nahian. Argi dugu jaiak arrakasta izateko ezinbestekoa dela herritarrak horren partaide sentitzea, eta, gure ustetan, lehenagoko ereduak ez zuen hori inola ere bermatu edo bultzatzen; herritarrak erosle edo ikusle ziren, hein handian. Iaz arte enpresa batek antolatu eta kontrolatzen zuen guztia. Aldiz, oraingo eredua jaietan egiten den antzekoa da. Hau da, parte-hartzaile guztiekin (herriko elkarteak, Napar Bideak eta Udalak) elkartu, koordinatu eta ardurak partekatuz.

**Bete egin zen hasieran jarritako helburua?**

Bai, nik uste dut iazko esperientzia ona izan zela, eta horrela islatu zen egindako balorazioan. Antzinako Arrasate deitzeak, gure ustez, aukerak zabaltzen dizkigu etorkizunean. Erdi Aroko azoka izateak garai konkretu batean kokatzera mugatzen du, eta azoka formatuan soilik. Antzinako Arrasatek, berriz, herritar ezberdinekin hainbat esparru, garai eta gai lantzea ahalbidetzen digu, eta aukera zabalagoa emanez eta Arrasaten garrantzia izan duten arloak lantzeko aukera ahalbidetuz.

**Ze ezberdintasun du, bada, Arrasateko Erdi Aroko feriak beste herrietakoekin alderatuta?**

Batez ere, herriko kutsua duela, Arrasatekoa. Kutsu berezi hori herriko talde zein herritarren ekarpenak ematen dio bereziki. Antzinako Arrasatek, bertako kultura oinarri hartzeaz gain, herriko merkatari eta tabernekin uztartzea du helburu, eta ez konpetentzia eragitea elkarri. Hau da, herriko baliabideak hartzen dira oinarri eta hauek osatzen saiatzen gara.

**Aurtengo edizioari begira, noiz hasi zineten lanean eta herriko zein talderekin batera jardun duzue lanean?**

Udalak Arrasateko kultura talde guztiei elkarlanerako dei egin zien deialdi baten bitartez. Iaz nahiko berandu ibili baginen ere, aurten otsailean egin genuen lehen bilera edo hartu-emana. Hainbat harreman eta bilera egin ditugu guztion artean koordinatzeko. Jasotako jarrera benetan ona, goraipatzekoa eta eskertzekoa izan da.




Oihana Aranburu, Kultura zinegotzia. ARANTZAZU EZKIBEL

"Herriko tabernari eta merkatariekin uztartzea du helburu Antzinako Arrasatek"

"Lehenagoko lanbideak eta ohiturak gure herriaren ondarea dira"

**Zenbat postu jarriko dituzue aurten?**

60 postu inguru izango dira, gutxi gorabehera; tartean, baita Arrasateko batzuk ere. Argi utzi nahi dugu, baina, gure ustez kopuruak ez duela lehentasunik; bai, ordea, produktuen kalitateak. Postu guztiak artisauak dira, eta ekoizpen askotarikoak. Hau da, saiatzen gara ez errepikatzen, askotariko postuak eskainita: elikagaiak (gazta, eztia…), higienekoak (xaboiak, kremak…), sendabelarrak, landareak, bitxiak, apaingarriak…

**Antzinako Arrasate erakusteko orduan, egongo da antzina Arrasaten egiten zen lanbideren bat erakutsiko duen postu konkreturen bat?**

Bai; aurrez aipatu bezala, artilearen prozesu guztia aurrez aurre ikusteko aukera egongo da: ardiei ile moztetik hasi eta artilearekin egindako produktua egin arte. Gure ustez, lehenagoko lanbide zein ohiturak, bereziki desagertzear daudenak erakustea modu zuzen eta didaktikoan aberasgarria da, gure herriko ondarea baitira; bereziki gaztetxoenentzat.

Horrez gain, beste antzinako lanbide batzuk zeharka ikusteko aukera ere egongo da: tailagintza, buztingintza, putz egite bidezko beiragintza, eta abar.

**Saltokiez gain, ze ikuskizun azpimarratuko zenuke?**

Kale animazioak alaituko du giroa, bereziki. Herriko hainbat kultura taldek eskainiko duten ikuskizunak nahiko pisu hartuko du: Doke antzerki taldea, Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Udalaxpe txistulari taldea, trikiti taldea, Portaloi taldea eta Taila elkarteak ekarpena egingo dute.

Bestalde, musika, zetreria ikuskizunak, haurrentzako tailer eta jolasak, ipuin kontalariak eta malabaristak egongo dira.



Sarrera salmenta
kutxa
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Joe Henry-ren kontzertua

Non: Arrasateko Amaia Antzokian
Noiz: Maiatzaren 30ean, zapatuan, 20:00etan


Arrasateko artisauek ere izango dute txokoa asteburuko azokan, eta egiten dituzten produktuak erakusteko aukera izango dute. GOIENKARIA

■ HERRIKO ELKARTEAK

# Antzinako azokan egongo dira herriko hainbat talde

JASONE ZABALA

**Joan den urtean egin zuten moduan, aurten ere herriko talde eta elkarteek esku hartuko dute Antzinako Arrasate izeneko Erdi Aroko azokan. Modu horretan, herrian dauden baliabideak ahal den neurrian erabili eta haiei aukera ematea da helburua.**

Antzinako Arrasate izena eman diote azokari, eta herriko hainbat taldek parte hartuko dute asteburuan zehar egingo diren ekintzetan; inoiz baino talde gehiago izango dira.

Asteburuan zehar parte hartuko dute Lore Gazteak dantza taldeak, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak, Trikiti Eskolak, Udalaxpe txistulari elkarteak, Doke antzerki taldeak, Arrasateko Tailaginen Elkarteak eta Portaloi Elkarteak.

Bihar eguerdian Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeekin eta txistulariekin kalejira egongo da herriko kaleetan zehar. Gainera, egun osoan zehar Trikiti Eskolako ikasleen kalejira ere egongo da.

**DOKE ANTZERKI TALDEA**

Doke antzerki taldeko aktoreak *Nolako herria; halako komedia* izeneko antzezlana eskainiko dute bihar. Bi emanaldi egingo dituzte: bata 19:00etan eta bestea 20:15ean, Herriko Plazan. Aurtengoarekin, azokan antzezlan bat eskaintzen duten hirugarren urtea da. Joan den urteko ekitaldian ezkontza tradizional bat antzeztu zuten; euskal ezkontza tradizionala, hain zuzen. Portaloi kultura elkarteak, bestalde, euskal kantu herrikoiak abestuko ditu, eta taldeko kide Salvador Dalmauk hauxe adierazi digu: "Iaz atera genuen kantuen liburutxoa kaleratu nahi dugu berriro ere aurten"; bestalde, bihar, zapatua (20:00), eta etzi, domeka (13:30), euskal kantu zahar eta berriak eskainiko dituzte Seber Altube plazan elkarteak izango duen postuan. Postuan bertan erosi nahi duenarendako liburuxkak jarriko dituzte salgai eurek batutako abestiekin. Bestalde, adierazi zuen Antzinako Arrasate azoka egitea ondo iruditzen zaiola, herriko eta kanpoko artisauak eta ekintzak biltzen direlako bertan eta herriari bultzada ematen diolako.

**PORTALOIKOAK, KANTUAN**

Kantu liburutxoan 141 kantu daude sartuta eta nahi duenak kantu horiek abesteko aukera izango du: "Megafonia ipiniko dugu eta euskal kantu zaharrekin girotuko dugu plaza", adierazi du Dalmauk. Tailaginek ere izango dute lekua azokan: bi egunetan zehar elkarteko bazkideek eginiko lanak egongo dira ikusgai Herriko Plazan.

**Portaloi elkartekoak kantuan ibiliko dira eta kantutegia eskura jarriko dute**

**Doke antzerki taldeak 'Nolako herria; halako komedia' eskainiko du**

**Herriko tailagileek ere izango dute tokia; bazkideen lanak egongo dira ikusgai**

NAZIOARTEKO ZAZPINAKO ERRUGBI TXAPELKETA
Ekainaren 6an, 15:00etan.

GARAGARDOAREN HAMAIKAGARREN FESTA HANDIA
Ekainak 5 eta 6an. Herriko plazan.
Alemaniar edari eta errekien dastatzea.

ART ARRASATE RUGBI TALDEA

■ ELKARRIZKETA: IDOIA IBAÑEZ / ARTISAUA

# "Feria batzuetan ez dute artisauen lana eskaintzen"

XABIER URTZELAI

**Idoia Ibañez (Arrasate, 1964) zapatuan izango da Antzinako Arrasate ferian, domekan beste hitzordu bat du-eta Nafarroan. Iazko ferian sufritu egin zuela kontatu digu, eguraldi txarra egin zuelako eta, hura dendan bazegoen ere, gainontzeko artisauak kalean ibili zirelako. Aurtengoa arrakastatsua izango dela uste du, besteak beste, orain dela bi aste Ordizian izugarri gozatu zuelako.**


Idoia Ibañez, Arrasateko Erdiko kalean duen dendan, eskolak ematen hasi aurretik. XABIER URTZELAI

**Zapatuan egongo zara Arrasaten. Zure postura zer eramango duzu saltzera?**

Dendan nire artelanekin batera beste artisau batzuen gauzak ere izaten ditut saltzeko, baina horrelako ferietara nork bere artelanak eramaten ditu.

Hala, normalean larruzko artelanak eramaten ditut, eta baita irazki-hariko telak ere. Baina azken hauek geroago eta gutxiago eramaten ditut; izan ere, nekatzen hasita nago horrelako piezekin batera eta bestera ibiltzeaz eta pieza horiei tratu txarra emateaz.

**Eta domekan beste hitzordu bat duzu.**

Bai, eta pena da, baina biak tokatu dira batera. Domekan 35 lagun Lizarragara joango gara, parpailagile topaketa batean parte hartzera.

**Horrelako antzinako feriak zelan bizi izaten dituzue barrutik?**

Ni oso gustura nabil, baina parte hartzen dudan feriako antolatzaile Naparbideak taldeak gauzak zelan egiten dituen gustatzen zaidalako. Egia da geroago eta feria gehiago daudela, eta denek ez dituztela gauzak ondo egiten. Izan ere, batek baino gehiagok bere feria artisauen feria moduan saltzen du, eta artisautik gutxi dute horiek. Eta horrelako feriek publikoa nahastu egiten dute, besterik ez.

> "Napar Bideak taldeak gauzak ondo egiten dituelako nabil eurekin gustura"

> "Batek baino gehiagok bere feria artisauen feria moduan saltzen du, baina..."

> "Jendea animatuko nuke feriara etortzera; antzerki emanaldiak oso onak dira"

Nire ustez, artisautza zaindu egin behar da, eta guk oso kontuan izaten dugu hori. Baliteke inoiz norbait infiltratzea, eta egia da ez dela erraza hori antzematea. Baina gutako edonork egiten duen lanarekin dudak badaude, artelan berdinak egiten dituzten beste artisau batzuei kontsulta egiten zaie, eta eurek erabakitzen dute gure lana benetakoa den ala ez. Horrela lortzen dugu benetako artisauen feria egitea, eta ez saleroste hutsak egiten dituen feria izatea.

**Jendeak zelan erantzuten du horrelako ferien aurrean?**

Nahiko ondo. Baina, lehengora bueltatuko naiz, geroago eta feria gehiago daude, eta guztiak ez dira ondo antolatutakoak. Hala, baliteke azkenean jendea saturatzea. Dena dela, nik beti diot gauzak hasi eta amaitu egiten direla, eta aurrera begira ere artisauok berrikuntzak egiten joan beharko dugu.

**Eta, zelan ikusten duzu aurtengo Arrasateko Antzinako feria?**

Oso ondo, egia esateko. Orain dela bi aste Ordizian izan nintzen, eta sekulako giroa egotearekin batera nik izugarri ondo pasatu nuen. Eta, jendeari gomendatuko nioke antzerki emanaldiak ikus ditzala, sekulako lana egin dutelako.

**Gainera, badirudi eguraldiak lagundu egingo duela.**

Bai, eta arrakasta izateko eguraldi ona ezinbestekoa da. Iaz oso eguraldi txarra izan genuen, eta, ni dendan izan banintzen ere, gainontzeko artisauak ikusita sufritu egin nuen.

**Krisiaren gainean ere galdetuko dizut; igartzen duzue? Posible da artisau moduan bizi izatea?**

Bai, igartzen da, bai. Eta nik argi daukat artisau eskolak ematen ditudalako egin dezakedala aurrera. Izan ere, dendan saltzen dudanarekin ezinezkoa izango litzateke bizi izateko ateratzea.



**Angel Biain** > Hirigintza zinegotzia

# "CHC Energiarekin elektrizitate zerbitzu osoa emango dugu"

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Uztailaren 1etik aurrera elektrizitatearen hornidura elektrizitatea komertzializatzen duten enpresek egingo dute. Aldaketa horiek azaltzeko, Oñargiko bezeroek bi gutun jasoko dituzte hurrengo fakturarekin. Berrikuntzen gainean berba egiteko Hirigintza batzordeko zinegotzi Angel Biainekin egon gara.**




Angel Biain, Oñargi SL eta CHC Energia enpresetako logoekin. MIREIA BIKUÑA

**Zeintzuk dira uztailetik aurrera erabiltzaileek nabarituko dituzten aldaketak?**

Legedi berria dela-eta, 2009ko uztailaren 1etik aurrera elektrizitatearen hornidura elektrizitatea komertzializatzen duten enpresek egingo dute.

Horren harira, Onargi SLren asmoa da egun horretatik aurrera energia elektrikoa ematen jarraitzea, eta hori posible egiteko CHC Energia izeneko komertzializazio proiektuan dihardugu buru-belarri.

**Zer da CHC Energia?**

CHC Energia elektrizitatea komertzializatzeko proiektua da. CIDEko enpresa gehienek osatzen dugu. Elektrizitate arloan 70 urte baino gehiago lanean diharduen eta Estatuko 200 enpresa baino gehiago elkartzen duen taldea da CIDE. Horien artean dago Oñargi SL. Era berean, proiektu horren barruan dago Estatuko energia talde garrantzitsuenetarikoa: HC Energia.

**Hurrengo fakturarekin aldaketen berri ematen duten bi gutun bidaliko dituzue bezeroen etxeetara. Zer da kontuan hartu beharko dutena?**

Legedi berriaren arabera elektrizitate hornitzailea aukeratu beharko dute. Bezeroek dituzten hiru aukerak azaltzen ditugu gutunetan. Alde batetik, norbere kontura adostutako prezioan enpresa komertzializatzaile batekin egin dezakete kontratua. Horretarako, dagoen eskaintza ezagutzeko, enpresa komertzializatzaileen zerrenda bidaliko diegu.

> **"Uztailaren 1etik aurrera elektrizitatearen hornidura elektrizitatea komertzializatzen duten enpresek egingo dute"**
>
> **"Aldaketen berri emateko bi gutun bidaliko ditugu fakturarekin"**

Beste alde batetik, Espainiako Gobernuak izendatutako azken errekurtsoko bost enpresetako batekin egin dezakete kontratua; alegia, Endesa, Iberdrola, Union Fenosa, Hidrocantabrico Energia eta E.ON Comercializadora enpresekin. Enpresa horiek elektrizitatea hornitu beharko dute Espainiako Gobernuak finkatutako prezioan. Azkenik, aldaketarik egiten ez duten bezeroen hornidura CHC Energia enpresak egingo du. Oñargi SL enpresa horretako bazkidea da, eta guk pasatuko dizkiogu bezeroaren datuak.

**Hirugarren aukeraren alde egiten dutenek ze abantaila izango dituzte?**

Oñargirekin geratzen direnei elektrizitate hornidураren zerbitzu osoa eskainiko diegu. Gure asmoa arreta-zerbitzu zuzena ematen jarraitzea da. Hau da, astelehenetik egubakoitzera banakako arreta, hurbiltasuna eta tratu zuzena bermatuko diegu gure bezeroei udal bulegoetan, orain arte bezala.

Oñargi SLk 6.000 bezero ditu gaur egun, eta guztiak mantendu gurako genituzke.

**Dena den, 10 kilowatt baino gehiago kontsumitzen duten bezeroek bi aukera bakarrik izango dituzte.**

Bai, hala da. Libreki adostu beharko dute zein enpresarekin kontratatu gura duten, edo CHC Energiaren bidez egin beharko dute. Ez dute aukerarik izango azken errekurtsoko bost enpresetako batekin kontratua egiteko.

**JAIAK**

## Errekalde auzoko jaiak gaurtik domekara

**M.B.** > OÑATI

Errekaldeko jaiak ospatuko dituzte gaurtik domeka arte. 19:00etan txorimaloak irtengo dira eta ondoren sagardo eta txorizo dastaketa egingo dute. 21:00etan musika izango da protagonista: The Bon Scott Band, Nuevo Catecismo Catolico, MC6 eta Never Surrender igoko dira oholtza gainera.

Bihar, besteak beste, hiruko saskibaloi txapelketa, haurrendako pailazoak eta krosa egingo dituzte. Erretiratuen antzerki taldeak emanaldia egingo du, 22:00etan.

**AUZO BAZKARIA**

Domekan, meza parrokian, auzo bazkaria eta mahai-futbol txapelketa egingo dituzte, besteak beste. 20:30ean Ganbara Txiki abesbatzak saioa egingo du.

> KONTZERTUA

### Musika eskolakoen kurtso bukaerako kontzertua da gaur

Jose de Azpiazu Musika Eskolakoek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute gaur, 18:30ean, plazan.

Urtean zehar ikasitako eta landutako kantuak eskainiko dituzte musika eskolako neska-mutikoek; besteak beste, akordeoi taldeak, big band taldeak, trikiti-pandero taldeak eta haizezko taldeak parte hartuko dute. Emanaldi bukaeran *Txapeloaz* kantua abestuko dute parte-hartzaileek eta ikusleek.

**ERRETIRATUAK** > OSPAKIZUNAK

## Erretiratuen Astea ospatuko dute astelehenetik aurrera

Kontzertua, bingo-jokoa, irteera eta bazkaria egingo dituzte, besteak beste

**M.B.** > OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkartekoek gertu dute Erretiratuen Asteko egitaraua. Astelehenetik ekainaren 7ra arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte, elkartean bertan eta elkartetik kanpo.

Domekan, Esteban Irusta organo-jotzaileak kontzertua egingo du, 18:30ean, Santa Ana antzokian. Ondoren, Aloña Abesbatzak eta Loli Ordoki bakarlariak emanaldia egingo dute.

**BINGO-JOKO BEREZIA**

Martitzenean txokolate-jana egingo dute Pake Lekun, 17:00etan. Eguaztenean irteera egingo dute San Martinera, 10:30ean, eta hamarretakoa egingo dute. Bingo-joko berezia egingo dute eguenean. 17:00etan hasita sari bereziak banatuko dituzte.

Erretiratuen Astea bukatzeko jaia egingo dute ekainaren 7an. Musikaz eta bertsoz lagunduta bazkaria egingo dute.

**MUSIKA** > ABESBATZAK

## Herriko abesbatza guztiak kalera irtengo dira bihar

'Kantua kalean' ikuskizuna egingo dute bihar Ganbara Txikiren V. urteurrenaren barruan

**M.B.** > OÑATI

Ganbara Txikiren V. urteurreneko ekitaldiekin bukatzeko, *Kantua kalean* delako ikuskizuna egingo dute bihar. Herriko abesbatza guztiek parte hartuko dute; hain zuzen ere, parrokiako gizonen eta emakumeen abesbatzak, erretiratuen Aloña abesbatzak, Oñati abesbatzak, Ganbara abesbatzak, Musika Eskolako abesbatzak, Elkar Heziko abesbatzak, Txantxiku Ikastolako abesbatzak eta Ganbata Txiki kantu eskolako abesbatzak.

**HIRU SAIO**

Egitarauan hiru kontzertu aurreikusi dituzte: 18:00etan, haur abesbatzen jaialdia frontoian; 19:00etatik 21:30era, helduen abesbatzen kantu-jira herriko hainbat txokotan; eta 20:30ean, Ganbara Txiki unibertsitateko klaustroan.

**oharrak**

DEIALDIA

**> Euskaltegiko bazkarirako izenematea zabalik dago**

Euskaltegiaren 25. urteurrenaren azken ekitaldia ekainaren 20an egingo duten bazkaria da. Izenemate epea zabalik dago ekainaren 10era arte. Euskaltegian eman behar da izena, eskola orduetan: 11:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara.

DEIALDIA

**> 82ko kintoek afaria egingo dute ekainean**

1963. urtean jaiotakoek afaria egingo dute ekainaren 27an Etxeberria jatetxean. Interesatuek 10 euroko bermea ordaindu beharko dute, 666 44 41 20 telefonora deituta.



Aingeru Guarda ermita eta Sorautz etxea lotuko dituen zatian azken ukituak ematea baino ez da falta. MIRIAN BITERI

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRIA

# Aingeru Guarda eta Sorautz arteko zatia amaitzear dago

Datozen egunotan ibili ahalko da 950 metroko luzera duen tartetik

Lanak nabarmen atzeratu dira; urtebete pasatxo iraun dute

Hilerri azpiko zatiaren esleipena ezagutarazi zen astelehenean

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Oraindik data zehatzik ez badago ere, Diputazioko Bide Azpiegituretako sailak Aingeru Guarda eta Sorautz arteko bidegorri zatia datozen egunotan zabaltzea espero du. Bidegorrietako arduradun Beatriz Martikorenak baieztatu digu azken ukituak jartzen dihardutela egunotan langileek, hala nola, bide-zorua botatzea eta bankuak, farolak, landareak eta zaratak ekiditeko pantailak jartzea.

Diputazioa joan zen urteko maiatzean hasi zen tarte hori bizikleta eta oinezkoendako egokitzen. Hasiera baten lanak zortzi hilabetez luzatuko zirela aurreikusi bazuten ere, epe hori nabarmen atzeratu da. Martikorenak azaldu du atzerapen horren atzean, besteak beste, hainbat tokitan bidegorria egin ahal izateko aurretik GI-627 errepidea eutsi behar izatea dagoela.

Aingeru Guarda ermita eta Sorautz etxea lotzen dituen bidegorri zatiak 947 metroko luzera eta hiruko zabalera du. GI-627 errepide ondotik doa Dorleta auzoraino. Hango aparkalekua igaro eta beherantz doa San Juan kalerantz; hori tunel baten bidez igaro eta handik Sorautzeraino doa. Tartea egitea 1.742.510 euro balio izan du.

**HILERRI AZPIKO ZATIA**

Zati hori amaitzean, Eskoriatza-Hilerria bezala ezagutzen dena faltako da egiteko. Horrekin ere lanean dihardute. Zatia egiteko lanak Construcciones Mariezcurrena enpresari esleitu dizkiotela argitaratu da asteon Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Martikorenak aipatu du makinak laster sartuko direla esandako tartean.

Eskoriatzako iparra eta hegoa lotuko ditu horrek. Proiektu hori nahiko konplexua da, trazatu barruan dagoen tunelaren iparraldeko ahoa estalgabetu barik dagoelako eta tunelaren zati bat GI-627 errepidearen lubeta baten azpian dagoelako. Tarte horretako aurrekontua 797.572,04 eurokoa izango da.

Azkenik, Bidegorrietako arduradunak onartu du Arabako mugaraino doan bidegorria itxaron beharko duela, aurtengo aurrekontuak ez duelako ematen zati hori egiteko.

**ARGAZKILARITZA** > LEHIAKETA

# Axtroki taldeak I. argazki rallya antolatu du ekainaren 6an

Argazkilaritzan zale den edonork izango du lehiaketa horretan parte hartzeko aukera eta izenematea dohainekoa izango da

**M.B.** > ESKORIATZA

Ekainaren 6an egingo den XIII. Ferixiaren harira, Axtroki taldeak Eskoriatzako I. Argazki Rallya antolatu du eta dagoeneko horren gaineko oinarriak kaleratu ditu. Egunean bertan ateratako argazkiak izango dira lehiaketara aurkeztu ahalko direnak.

Antolatzaileek jakinarazi dute argazkilaritza gustuko duen edonork izango duela parte hartzeko aukera eta izenematea ekainaren 6an bertan izango dela, 09:00etatik 10:00etara bitartean, Herriko plazan. Leihaketan parte hartzea dohainekoa izango da eta bakoitzak bere kamara ekarriko du.

**35 ARGAZKI**

Parte-hartzaileek goiz osoa izango dute irudiak hartzeko. Argazkiak 12:30etik 13:30era aurkeztu beharko dira izenematea egin duten toki berean. Bakoitzak 35 argazki aurkeztuko ditu; tartean, hamaika azokakoak izango dira.

Horren harira, antolatzaileek ohartarazi dute argazki guztiak kamararen bereizmen maximoan atera beharko direla, kalitate maximoan eta *jpeg* formatuan. Antolakuntzak memoria txartelan agertzen den lehenengo argazkitik hasita hurrengo 35 argazkiak hartuko ditu. Beraz, antolatzaileei txartela eman aurretik, lehiaketan aurkeztu gura dituzten irudien aukeraketa egingo dute partaideek. Jarraian, memoria txartela jabeei itzuliko zaei argazki guztiekin.

**PROIEKZIOA**

Bazkaltzera joan aurretik irabazleen izenak ezagutaraziko dira. 14:30ean, sari banaketa egingo da. Arratsaldean, berriz, eskoriatzarrek lehiaketara aurkeztutako irudi guztiak ikusteko aukera izango dute; 19:00etan, horien proiekzioa egingo dute Herriko plazan.

## oharrak

NAGUSIAK

**> Abuzturako egonaldietarako gaur eman behar da izena**

Udarako aldi baterako egonaldiak antolatu dituzte nagusiendako. Abuzturako plazak eskatu gura dutenek gaur, barikua, izango dute aukera. Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo edo 943 71 31 36 zenbakira deitu behar dute horretarako.

UMEAK

**> Eskumuturrekoak egiteko tailerra dago gaur Tortolisen**

Gaur, barikua, harizko eskumuturrekoak egingo dituzte arratsaldean Tortolis ludotekara joaten diren umeek. Betiko moduan, tailerra 18:00etan hasiko da; zazpi eta hamabi urte bitarteko haurrendako da.

ERAKUSKETA

**> Pascal Dione senegaldarraren erakusketa gaur arte zabalik**

Pascal Dione artista senegaldarraren margolanak eta eskulturak gaur arte ikus daitezke Ibarraundin, honako ordutegian: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Erakusketa Mundumiraren harira antolatu dute.

ZERGAK

**> Ondasun Higiezinen gaineko zerga ordaindu behar da**

Ondasun Higiezinen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago. Aurtengo apirilaren 18 baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren bidez kobratuko dira, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunean. Helbideratu gabekoak zergadunak adierazitako helbidera bidaltzen ari dira egunotan.

GARRAIOA

**> Bergarako jaietarako gaueko autobus zerbitzu berezia dago**

Gaur gauean Bergarako jaietara joateko eta bueltatzeko autobus zerbitzu berezia jarri dute. Joateko, 00:00etatik 06:00etara orduro; eta itzultzeko, 00:30etik 06:30era bitartean.

**ARAUAK** > HILDAKOAK OMENTZEKO EKITALDIAK

# Udalak hileta eta omenaldi zibilak egiteko ordenantza onartu du

Eguazteneko bilkuran, araudi berriari hasierako onarpena ematea adostu zuten; ekarpenak edo alegazioak aurkezteko epea zabalduko da orain

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Joan den eguaztenean egindako osoko bilkuran, Eskoriatzako udalbatzak udalerrian hileta ospakizunak edo omenaldi zibilak egiteko ordenantzari hasierako onarpena ematea adostu zuen. Araudi berri horrek bilkuran parte hartu zuten zinegotzi guztien aldeko botoa jaso zuen. Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzak eta EB-Berdeak taldeko ordezkari Juan Luis Merinok ez zuten bertan egoterik izan.

Azken zinegotzi hori izan da, hain zuzen, onartutako ordenantzaren bultzatzailea. Araudi horren helburu nagusia hileta ospakizunak edo omenaldi zibilak egiteko udal lokalen erabilera eta baimena arautzea da. Alkateak edo hori ordezkatuko duen zinegotziak edo auzo alkateek horietarako gordetako espazioak erabiltzea baimendu ahalko dute, betiere senitartekoak edo dagokionak Udaleko erregistrora bidali beharreko agiriak jaso ondoren. Eskaerak alkateari zuzenduko dizkiote; hileta edo omenaldia landagune bateko espazio publiko baten egin gura baldin badute, baina, auzo alkateari igorriko dizkiote.

Eskaeran, besteak beste, honakoa adierazi beharko da: ospakizuna egiteko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa; hildako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza ziurtagiria; ekitaldia zein egunetan eta ordutan egin nahi den; eta ekimenaren deskribapen laburra eta beharko duten materiala.



Araudiak, besteak beste, Ibarraundi aurreikusten du horretarako. MIRIAN BITERI

**AURREIKUSITAKO TOKIAK**

Tokiei dagokienez, Udalak zehaztu du herrigunean Ibarraundi museoan, Udal Pilotalekuan eta Santa Marina eta Eduardo Gorosarri plazan egingo direla. Landaguneetan, berriz, auzo alkateek izango dute lekuak izendatzeko ardura, betiere alkatearen oniritziarekin.

Arautegiak dio administrazioak, ahal den neurrian, eskaeran zehaztutako eguna eta ordua errespetatuko dituela eta horretarako, eskaerak egin diren ordena hartuko dela kontuan. Horren harira, baina, ordenantzan jasotzen da hiletak edo omenaldiak astelehenetik domekara egingo direla, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Zeremoniak, bestalde, 45 minutu iraungo du, gehienez.

**UDALTZAINGOA, KANPOAN**

Gainera, jakinarazten da irauten duen bitartean Udaltzaingoa kanpoan izango dela, ekitaldia arazo barik egingo dela bermatzeko. Senitartekoek edo adiskideek udal lokala apaindu nahi badute, aurrez eta nahiko denboraz horren berri eman beharko diote Udaltzaingoari, hark hartu beharreko erabakiak har ditzan; hala ere, araudiak dio lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu beharko dituztela beti, eta sor daitezkeen gastuak bere gain hartu beharko dituztela.

Espazio publikoa erabili nahi badute, berriz, eskaeran hori ere zehaztu beharko dute. Horren harira, Udalak erabili gura den espazio publikoa hesituko du.

**ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEA**

Esan bezala, eguazteneko bilkuran hasierako onarpena eman zioten ordenantzari. Orain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, 30 eguneko epea zabalduko dute testu horri ekarpenak edo alegazioak aurkezteko. Horrelakoak egonez gero, udalbatzak horien gainean jardun beharko du; bestela, automatikoki onartuko da araudia.

**KIROLA** > MENDI IBILALDIA

# Ekainaren 14an egingo dute Txikirri-Txikirri ibilaldia

40 kilometro dituen mendi ibilaldia 07:00etan abiatuko da herritik, eta izena egun horretan bertan eman ahalko da, 06:00etan




**M.B.** > ESKORIATZA

Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia ekainaren 14an egingo dute. Zazpigarren aldia da esandako ibilaldia antolatzen dena, hildako mendizale eskoriatzarrak gogorarazteko. Izena domekan bertan eman ahalko dute mendizaleek. Irteera 07:00etarako jarrita dago, eta, beraz, parte hartu gura dutenek 06:00etatik 07:00etara eman behar dute izena. Prezioa bost euro da.

Ibilaldiak 40 kilometro izango ditu. Eskoriatzatik Apotzagarantz abiatuko dira eta Lata eta Asensiomendi pasa ostean, Kurtzetara iritsiko dira. Handik Albiñarantz joango dira, jarraian Jarindo mendira igotzeko. Bentafriaraino jaitsiko dira eta handik berriro gora Mugarriluzeraino. Degurixako bidea hartuko dute azken txanpan sartzeko; Kurtzebarri zain izango dute mendizaleek. Mendi puntara iristean dena jaitsiera izango da: San Juan Portaleteña, Lete eta azkenik Eskoriatzara iritsiko dira berriro. Interesa dutenek ederto gosaldu beharko dute indartsu egoteko, beraz.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45



Frontoia goizez eta arratsaldez zabalik egon arren, komunetarako sarbidea itxi egin dute. IRATI AGIRREAZALDEGI

**AZPIEGITURAK** > KIROL INSTALAZIOAK

# Frontoiko komunak ixtea erabaki du Udalak

## Papera pilatuz sua egiten zuen norbaitek eta arriskua saihesteko hartu dute neurria

## Frontoiko teilatuan planta fotovoltaikoa ipiniko du Energiaren Euskal Erakundeak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Azken aldian Udal Pilotalekuko komunetan norbait sua egiten ibili da. Hau da, komuneko papera pilatu eta pilotaleku barruan sua ematen.

Hortaz, ezer larria gertatu baino lehen neurriak hartzea erabaki du Udalak. Horretarako, komunak itxi egingo dituzte, eta aurrerantzean, arazoari irtenbiderik aurkitu ezean, horrela jarraituko dutela jakinarazi dute Udaletik.

Gainera, pilotalekua ez da herrian azken aldian sua egin duten leku bakarra. Eskola inguruan ere sua egiten ibili da norbait eta Olaran Etxeko txirrina ere petardoz lehertu du baten batek.

Neurriok hartzeaz gain herritarrei Udaletik eskatu nahi diete zentzudun jokatzeko, ez Udal eraikinak direlako bakarrik: "horrelako ekintzak hasieran jolas tontoa izan arren arriskutsuak dira eta zerbait larria gerta daiteke", diote Udaletik.

**EGUZKI PLAKAK**
Bestalde, Udalak hitzarmena sinatu berri du Energiaren Euskal Erakundearekin Udal pilotalekuko teilatua hamabost urterako lagatzeko han sare elektrikora konektatutako bost kw-eko eguzki planta fotovoltaikoa ipini ahal izateko.

Udalari interesgarria iruditu zaio gizartea sentsibilizatzea energiaren alorreko teknologia berrien inguruan eta bat egin du Energiaren Euskal Erakundea garatzen dihardueun energiaren arrazoizko erabilera eta energia berriztagarrien ustiapena bultzatzeko eta sustatzeko egitasmoarekin.

**INFORMAZIO PANELA**
Instalazio horretaz gain, datu teknikoen jarraipena egiteko plikazio informatikoa ere beharrezkoa izango da frontoian.

Informazio panela ere ipiniko dute instalazioaren datu orokorrak zein unean uneko datu zehatzak emateko; eta energia berriztagarrien aplikazioen gaineko mezuak ere agertuko dira panel horretan herritarren interesekoak izan daitezkeenak.

Gainera, ikasle eta irakasleendako gaiaren inguruko material didaktikoa ere banatuko dute.

Behin hitzarmena sinatu ostean Energiaren Euskal Erakundeak konpromisoa hartu du urtebeteko epearen barruan instalazioa egiteko.

**KIROLA** > FUTBOLA

# Aloña Mendi eta Bergara eskertu nahi ditu Antzuolak

## Eztala obretan egon den bitartean euren zelaiak utzi dizkiete herriko futbolariei

**I. A.** > ANTZUOLA
Eztala futbol zelaiko berritze lanak aurrera doaz eta obrak direla-eta, azken aldian etxetik kanpo ibili dira herriko futbolariak; Bergaran entrenatzen eta Oñatin jokatzen.

Hori dela-eta Antzuola Kirol Elkarteko futbol sailetik eskerrak eman nahi dizkiete Aloña Mendikoei eta Bergarakoei denbora tarte horretan euren instalazioak uzteagatik.

**TALDE BERRIAK SORTU NAHI**
Denboraldia amaitu berri dute antzuolarrek euren taldeko sailkapeneko seigarren tokian eta uztailean aurre denboraldia zelai berrian hastea da euren asmoa. Ondoren, oporrenostean, abuztuaren amaieran ekingo diote berriz.

Hurrengo denboraldirako futbol zelai berria izanik kirol elkartearen nahia da benjamin, alebin eta infantil mailako taldeak ateratzea herrian eta baita nesken taldea ere. "Herriko futbol zaleak animatu nahi ditugu jokatzera etaguk ere ahalegin berezia egingo dugu taldeak sortzeko", esan digu elkarteko Jose Angel Fernandezek.



Antzuolako futbolariak BTLS talde bergarararraren aurka. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > ABESBATZAK

# Ipuin musikatua eta abesbatzak Torresoroan

**I. A.** > ANTZUOLA
Bergarako musika eskolaren 25. urteurrenaren harira ekainaren 5ean, egubakoitzean, eskolako abesbatzen saioa izango da Torresoroan 19:00etan.

Hasiberrien abesbatzak *Uli li E* Hawaiko abestia eta *Hamabe no Uta* kantua eskainiko ditu. Umeen abesbatzak, berriz, *Tears in heaven* Eric Clapton eta Will Jennings-ena eta *Hakuna Matata* Elthon Jhon-ena.

**JAZZ IPUINA**
Ondoren, Bergarako eta Antzuolako kantu ikasleek *Benan eta Begigorri munstroa* jazz ipuina eskainiko dute. Kostaldeko herri txiki batean Begigorri munstroaren beldurrez bizi diren herritarren ipuina izango da musikatuta.

Abeslariek Amaia Urdangarin izango dute pianoan lagun, Mari Jose Juaristi klarinetean eta Aitor Aranburu baterian.

MUJIKA HARATEGIA

*Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak*

**Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34**

> DANTZA

### Herriko jaietan Larrain dantza egin nahi dutenek entseguak izango dituzte martitzen iluntzetan

Orain dela lau urte egin zuten lehen aldiz Antzuolako jaietan Larrain dantza eta ia ohitura bihurtu den dantza aurten ere egingo dute jaietako azken egunean, domekan. Ekitaldi hori gertatzeko entseguak hasiak dira jadanik Oinarin dantza taldeko kideek gidatuta. Jaietan dantza egin nahi duten herritarrek jaietara bitartean martitzenero izango dute hitzordua 20:00etan eskolako terrazapean. Urtero-urtero gero eta lagun gehiagok hartzen du parte eta aurten bultzada berria eman nahi diote Larrain dantzari. Beste dantza saiorik ere ez da faltako. Izan ere, Oinarin dantza taldeko gaztetxoek Ikurrin dantza egingo dute jaiak hasteko eta dantzari helduek ere eskainiko dute ikuskizunik herriko jaietan.

> KULTURA

### Bertso afaria izango da egubakoitzean Olalde elkartean 'Mantxi' eta Barandiaran bertsolariekin

Datorren egubakoitzean, ekainaren 5ean, bertso afaria izango da Olalde elkartean Iñigo Manzisidor *Mantxi* eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin. Horietaz gain, Antzuolan, Iñaki Gurrutxagarekin bertso ikastaroan dihardutenek ere egingo dute saiakera afal ostean ikasitakoa erakusteko. Zortzi lagun dabiltza bertso eskoletan eta ekainaren amairara bitartean jarraituko dute martitzen iluntzetan elkartzen bertsotan egiteko.

Egubakoitzeko bertso afarirako txartelak 15 euroren truke erosi ahal izango dira herriko tabernetan. Antolatzaileek jakinarazi dute afaritan 50 lagunendako tokia izango dela, hortaz, txartelak lehenbailehen erostea komeni dela.

**HEZKUNTZA** > ESKOLA AGENDA 21

# Herriko iturri batzuk konpon ditzan eskatu diote umeek Udalari

Maalako, plazako, Espaloiko eta kantoiko iturrietan ur emaria handiegia dela eta presioa txikitu egin behar dela diote neska-mutikoek

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Eskolako Agenda 21 programaren bidez eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek lanean jardun dute, eskola eta herria iraunkortasunera bideratzeko. Ura izan da landu duten gaia, eta, arazoak ikusi ostean, egoera hobetzeko konpromisoak hartzeko prest azaldu dira. Udaletik bidera daitezkeen neurriak badaudela pentsatuta, asteon udalbatzar berezia egin dute proposamenak udal ordezkariei helarazteko.

**TXORROTAK, GAIZKI**
Martitzenean udaletxeko aretoan elkartu ziren ikasleak eta irakasleak Oxel Erostarbe alkatearekin eta Rebeka Ubera zinegotziarekin.

Ikasleek uraren azterketa egin ostean, jakinarazi zuten Maalako, plazako, Espaloiko eta kantoiko iturrietan ur emaria handiegia dela; Espaloiko iturria eta txorrota mugitu egiten dela eta zaborra pilatuta dagoela; Kantoiko iturriko txorrota baxuegia dela eta mugitu egiten dela; Torrealdeko iturriko pultsadorea oso txikia dela; eta Maalako iturriko txorrota mugitu egiten dela eta zikina dagoela. Denak ez ziren akatsak izan, ordea, Uriburuko, San Roke osteko eta Bolatokiko iturriak egoera onean aurkitu baitituzte.

**EMARIA ETA PRESIOA TXIKITU**
Udal ordezkariei proposamenak ere aurkeztu zizkieten: kaleko eta tabernetako txorrotak konpontzea eta jendeari ura hobeto erabiltzeko gogoraraztea; urarendako bi tarifa ipintzea gehiago gastatzen duenak gehiago ordain dezan; iturrietako emariaren iraupena eta presioa txikitzea; dirulaguntzak ematea ur gutxi erabiltzen duten etxetresnak erosteko; hodietako ur galerak konpontzea; lehorte garaian loreak ez ureztatzea eta horretarako euri urak aprobetxatzea.

Alkateak ikasleei jakinarazi zien euren proposamenak kontuan hartuko dituztela eta egiteko modukoak direnak, iturriak konpontzea, esaterako, egiten saiatuko direla; baina neska-mutikoek ere bete ditzatela eurek hartutako konpromisoak.

**DATORREN IKASTURTEAN, ENERGIA**
Agenda 21 egitasmoan datorren ikasturtean zein gai landuko duten ere jakinarazi zien batzarraren ostean programaren arduradunak: hain zuzen ere, energiaren inguruan egingo dute lan.



Rebeka Uberak eta Oxel Erostarbek udalbatzar berezia egin zuten eskolako umeekin martitzenean. IRATI AGIRREAZALDEGI

**bere ustez**



Igor Arizmendiarrieta

## Goiz luze bat eman dut aitorpenetan

Errenta aitorpen kanpaina iritsi da. Bulegorako bidean urteroko gogoeta egiten hasi naiz nire baitarako: “Ea aurtengoan jatorra den eta gauzak pazientziaz azaltzen dituen langilea egokitzen zaidan”.

11:15 dira, 71. zenbakia dut eta bederatzigarren mahaira noa. Egunon lehor bat jaso eta gero, isilune luzeen artean parekoa paperak eskatzen hasten da.

Bitartean ingurura begiratu eta besteen errenta aitorpenak egiten dituzten langileak nirea baino jatorragoak iruditzen zaizkit! Supermerkatu baten ilaran nagoenean eta besteen ilarak nirea baino azkarrago doazela iruditzen zaidanean bezala.

**"Hizketan hasi da! Bere hizkuntza arrotza egiten zait, bere azalpenak ulergaitzak"**

Bat-batean, langilearen mokorreko keinuek dardaraka jartzen naute. Hizketan hasi da! Bere hizkuntza arrotza egiten zait, bere azalpenak ulergaitzak. Bere aurpegiak dena ulertu beharko nukeela adierazi nahi dit. Nola? Ez du-eta bere hizkuntza nire eguneroko hizkuntzara jaisten. Ez nago eroso.

Uf! Behintzat, ez zait paperik falta. Azkenean ulertu moduko bat egin dudalakoan, ongi da esaten diot, sinatu eta kalera.

Ea hurrengo urtean zorte hobea dudan.

**KIROLA** > AZPIEGITURAK

# Udalak ez du dirurik jaso instalazioak berritzeko

**I.A.** > ELGETA
Foru Aldundiak 2008-2011 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko dirulaguntzen deialdia egin zuen. Eta Elgetako Udalak herriko kirol instalazioak berritzeko dirulaguntza eskaria aurkeztu arren, ez du jasoko.

Frontoia berritu egin zuten, eta pintura eta elektrizitateari dagokionez hainbat akats izan zirenez, hori konpontzeko 10.000 euroko laguntza jaso du Udalak; eta orain dihardute, gainera, Udal Pilotalekuko pintura kentzeko eta konpontzeko lanetan.

**KANPOKO KANTXA**
Kirol Ekipamenduen Planeko dirulaguntzekin kiroldegi aldameneko kantxa konpontzea zen asmo nagusia; izan ere, orain dela 20 urte eraiki zen eta hondatzen hasi da. Baina laguntzarik ezean, aurreragorako utzi beharko dituzte lanok.

Udalaren nahia zen kirol foroa zabaltzea, herritarrek kirol arloan Elgetarako zein behar ikusten dituzten jakiteko eta euren ekarpenak jasotzeko; baina behar horiei aurre egiteko Foru Aldundiak laguntzarik eman ez duenez, oraingoz ez dute egingo. 2010erako, ordea, hausnarketa egitea eta hainbat berrikuntzarekin aurrera egin nahi dute.

**KIROLDEGIKO HARRERA**
Kiroldegiaren kanpoko aldean dauden ziburuak aldatzea zen beste asmoetariko bat, baina dirulaguntzen murrizketa ikusi ostean, aldaketa horiek ere atzeratu egingo ditu Udalak.

Bestalde, udal aurrekontuetan 9.000 euroko diru partida bat dago aurreikusita kiroldegiko harreragunean hainbat konponketa egiteko, eta horrekin aurrera egitea erabaki dute. Horretaz gain, Estatu Fondotik jasotako dirulaguntzarekin herriko hainbat eraikinetako teilatuak konponduko dituzte, eta tartean dago kiroldegiko teilatua ere. Hortaz, kirol instalazioetan berrikuntza batzuk egingo dira, gutxienez.

**oharrak**

INFORMATIKA
**> KZgunea**
KZgunea ohiko ordutegian zabalik izango bada ere (astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:00etara eta barikuetan 16:00etatik 19:15era), irakasleak herritarrei jakinarazi nahi die ekainaren 1ean, 15ean eta 29an, astelehenak guztiak, 09:00etatik 13:00etara KZgunean egongo dela erabiltzaileen zalantzak argitu ahal izateko.

ESPALOIA
**> Zinekluba eta erakusketa**
Maiatzeko eguazten iluntzetako zinema emanaldien ostean, ekainerako honako filmak iragarri dituzte: *Vicky Cristina Barcelona*, *Los girasoles ciegos*, *No es país para viejos* eta *Ser o no ser*. 21:30ean izango dira saioak.

Bestalde, maiatzeko puzzle erakusketaren ostean, ekainean Elgetako Sonia Mirandaren pinturak ipiniko dituzte ikusgai.

> ANIMALIAK

### Udalak kontratua sinatu du Axen Garitanorekin, abandonatutako txakurrak eta katuak jaso ditzan

Elgetako Udalak kontratua sinatu du Bergarako Aldai-Egia auzoan animalien zaintzarako egoitza duen Axen Garitanorekin, hark Elgetatik txakurrak eta katuak jaso ditzan. Garitanoren ardura izango da herrian jendeak abandonatuta uzten dituen txakurren eta katuen kargu egitea. Izan ere, Udaletik jakinarazi digutenez, urtean 10-15 animalia agertzen dira, jabeek inolako zaintzarik gabe utzi dituztelako.

Animalien babeserako legearen arabera, Udalaren ardura da animaliok jasotzea. Hortaz, horrelako kasuren bat ikusiz gero, Udaletik pasatuko diote abisua Axen Garitanori eta hark txakurra edo katua jaso eta zaindu egingo du.

112
SOS DEIAK



Aramaion linea elektrikoa nondik pasatuko den zehazten duen planoa. ARAMAIOKO UDALA

**AZPIEGITURAK** > GOI-TENTSIOKO LINEA ELEKTRIKOA

# Bilera irekia egingo dute linea elektrikoa dela eta

Espainiako Ministerioak aurkeztutako proiektuari alegazioak ipiniko dizkio Aramaioko Udalak

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Espainiako Ingurumen Ministerioak Aramaio zeharkatuko duen goi-tentsioko linea elektrikoa eraiki nahi du. Frantziatik datorren sare elektrikoa Espainiarekin lotzea da linea horren helburua eta Galiziaraino iritsiko litzateke. Ibilbide hori egiteko bi aukera planteatzen ditu Ministerioak bidalitako aurreproiektuak: bata Aramaiotik igarotzen dena Oñati, Arrasate eta Eskoriatzatik ere pasatuz, eta bestea Bergaratik joango litzatekeena. Aramaiotik pasatuz gero honako ibilbidea egingo luke: Untzilla, Zabola, Durakogain, San Kristobal, Arangioko bidegurutzea eta Oleta. Untzillaren parean, baina, bi aukera jasotzen ditu aurreproiektuak; bata Murugainetik joango litzateke eta bestea, berriz, Suñako etxeetatik.

Aramaioko Udal Gobernuak uste du proiektua zorakeria dela eta sekulako kaltea eragingo lukeela herrian. Hori horrela, alegazioak aurkeztuko dizkiote. Asier Agirre alkateak azaldu du Arabako Foru Aldundiarekin ere harremanetan ipini direla eta Diputazioak ere alegazioak aurkeztuko dituela bere aldetik.

**BILERA IREKIA**

Proiektu horrek herrian izan dezakeen eragina kontuan izanda bilera irekia egingo du Udalak, Ministerioaren proiektua herritarrei azaltzeko. Datorren eguenerako, ekainak 4, egin dute deialdia, 19:00etan, udaletxean.

**KULTURA**

## Aurten ere egitarau zabala Vital Programan

**A.B.** > ARAMAIO

Vital Kutxak antolatuta aurten Vital Programa Araban Zehar ekimenaren bosgarren edizioa ospatuko dute. Programa horren bitartez Arabako herri desberdinetan hainbat musika kontzertu, ballet eta dantza ikuskizun antolatu dituzte. Egitaraua zabala da eta aurten ere Aramaioraino iritsiko da.

Ekainaren 12an, barikua, Guararey taldeak kontzertua eskainiko du Aramaioko kultura etxean. Kubatar musika eskainiko dute Ricardo Urrutiak (gitarra), Nieves Ocak (ahotsa) eta Emilio Taquechelek (perkusioa). Bigarren kontzertua ere kultura etxean izango da, ekainaren 19an. Kasu honetan balet emanaldia izango da; Jose Uruñuela udal dantza kontserbatorioko koreografia tailerreko 25 dantzarik jardungo dute dantzan. Azkenik, ekainaren 21ean, domeka, Udaberri abesbatzak kontzertua eskainiko du meza ostean.

### Egitaraua, eguna-ordua

**Ekainak 12, barikua**
**20:00** Guararey taldea, Kultura etxean.

**Ekainak 19, barikua**
**20:00** Jose Uruñuela, Kultura etxean

**Ekainak 21, domeka**
**20:00** Udaberria abesbatza, meza ostean, Elizan.

**EUSKARA**

## Euskara ikastaroa antolatu du Udalak

Ekainaren 15a baino lehen eman behar da izena udaletxean edo liburutegian

**A.B.** > ARAMAIO

Aramaioko Euskara batzordea arduratuta dago azken urteetan euskararen erabilerak izan duen beherakadarekin. Orain dela hilabete batzuk Soziolinguistika Klusterrak egindako azterketa baten arabera, Aramaion kaleko elkarrizketen %56 izaten dira euskaraz. Hau da, erdia baino apur bat gehiago besterik ez.

Egoerari buelta emateko Euskara batzordeak hainbat ekimen ipini ditu abian; azkena, euskara ikasteko ikastaroa. Udaleko Euskara teknikari Rosa Mondragonek azaldu du hutsune handia sumatzen dutela euskararen erabileran: "Konturatzen gara oinarrizko euskara mailara iristen ez den jende asko dagoela; hau da, elkarrizketa bat euskaraz egiteko gai ez dena. Eskolatik ere azaldu digute bileretan gurasoek askotan esaten dutela ezin dietela umeei etxeko lanak egiten lagundu, euskaraz ez dakitelako".

Euskara batzordeak adierazi du ikastaroak motzak eta oso praktikoak izango direla eta interesa azaltzen duen edonorendako izango direla, maila edozein izanda ere.

Udaletxean edo liburutegian eman behar da izena ekainaren 15a baino lehen.

## Udaletxeko bulegoak, itxura aldatuta

Udaletxeko bulegoetan aldaketak egin dituzte: harrerako eremua zabalagoa da orain, eta armairu handi batekin bereiztu dituzte bulegoen eremua eta harrerakoa. Berrantolaketa horren helburua da udaletxearen funtzionamendua hobetzea; bai herritarrenganako arreta eta baita barne funtzionamendua ere.

Barrualdean mahai gehiago ipini dituzte eta elkarrengandik bereizita; hemendik aurrera langile bakoitzak bere lan-leku zehatza izango du.


ARRITXU BARRUSO

> PLAN OROKORRA

### Proposamenak aurkezteko azken eguna, ekainaren 19a

Plan Orokorrari iradokizunak aurkezteko epea bukatzear dago; ekainaren 19a da horretarako azken eguna. Jasotako proposamenak Plan Orokorreko Aholku Kontseiluari bidaliko zaizkio eta horrek, ondoren, Plan Orokorra lantzen ari den enpresari, Stoari.

Alkateak azaldu du orain arte jasotako proposamenak oso partikularrak edo indibidualak direla, eta proposamen orokorragoak jaso nahiko lituzketela. Hau da, herri moduan jarraitu beharreko ildo eta politiken gaineko iradokizunak.



Arlabango errepidean zuloak estaltzen, eguazten eguerdian. MIRARI ALTUBE

**AZPIEGITURAK** > ARLABANGO ERREPIDEA

# Astean ibili dira Arlabango errepideko zuloak estaltzen

## Hondatutako guneak konpontzea da helburua, eta betun nahasketa beroa zabaldu dute zuloetan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Eskoriatza eta Gatzaga arteko Arlabango errepidean, hau da, GI-627 errepideko 19. kilometro-puntutik 27. kilometro-puntura dagoen tartean, zuloak konpontzen ibili dira astean. Asfaltozko zoladura hondatuta duten guneak konpontzea dute helburu, eta, horretarako, berotan estali dituzte zuloak. Betun nahasketa beroa zabaldu dute langileek zuloen gainean, 1.300 tona inguru. Aste Santu osterako iragarri zituzten lanok, eta, azkenean, maiatzeko azken astean egin dituzte.

**GATZAGAKOA ERE KONPONDUTA**

Orain Arlabango errepidea konpondu dute, baina oraindela aste pare bat Gatzaga herrira doan bidea konpontzen ibili ziren. Marulandan hasi eta Gatzagainera bitartean dagoen errepide zatiko zuloak estali zituzten.

Eta bide sarrerak zabaltzen jarraitzen dute. Behin Olaungoa eginda, Burdinkurtzekoa eta Arratekoa egingo dituzte.

**LANDAGIPUZKOA** > INBERTSIO PLANAK

# Ur hornikuntza eta saneamendu proiektua egiteko inbertsioa onartu du Aldundiak

## Hitzarmena sinatu du Aldundiak Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU sozietatearekin, herri txikietako inbertsio planak idatz ditzan



Arlaban gaineko planean sartutako eremua. GOIENKARIA

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU sozietateak sinatutako hitzarmenaren berri dakar astelehenean, maiatzak 25, argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak. 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalek iaz Landagipuzkoa 32 egitasmora egindako dirulaguntza eskaerak kontuan hartuta, inbertsio planak idatzi beharko ditu Etorlurrek.

Onartutako inbertsioen berri ere eman du Aldundiak, eta Gatzagaren kasuan biak onartu dizkio: Udal Pilotalekuko aterpearen estaldura birgaitu eta ixtea eta Arlaban gaineko planeko hornikuntza eta saneamendu proiektua egitea. Hala, bada, Etorlurrek egingo ditu bien inbertsio planak eta plan horietan bi kontu zehaztu beharko dituzte: inbertsioaren kostua eta egin ahal izateko epeak; eta Udalak eta Aldundiak hartutako konpromisoak jasoko dituen finantza plana. Etorlurrek, gainera, proiektua aurrera eroateko beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak jarriko ditu.

Aldundiak Arlaban gainerako beharrezkoa den ur hornikuntza eta saneamendu proiektuaren inbertsioa onartu arren, Udalak ez du aurten hasteko asmorik.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Maiatzeko irabazleak

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

ATXAGAREN LIBURUA — PAMIELA
Esteban Barandiaran Fdez.de Jauregi (Arrasate)

ZIRA — EKFB
Aritz Auzmendi Zufiria (Arrasate)

UMEENTZAT LIBURU SORTA — PAMIELA
Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)

MUNDUMIRA PACK — Mundumira
Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)

ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN PACK-A — obatu
Mertxe Kalparsoro Esteneibar (Aramaio)

JOKOA
Juanjo Madinabeitia Arando (Arrasate)

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

**KICKBOXINGA** > BORROKALDIA BERGARAN

# Euskal Herriko eta Frantziako borrokalariak bihar Bergaran

ESAITekin bat eginda, Bergarako Udalak lehenengoz ekarriko du kickboxing jaialdia Debagoienera

Bihar, zapatua, Euskal Herriko eta Frantziako borrokalari onenak lehiatuko dira zezen-plazan; jaialdia 18:30ean hasiko dute



Kickboxinga Japoniatik datorren kirol modalitatea da; boxeoaren eta arte martzial batzuen nahasketa da. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergarako Udalak eta Euskal Herriko selekzio ofizialen alde lanean dabilen ESAITek berritasuna ekarriko dute Mendekosteetara: kickboxinga. Bihar (18:30), zezen-plazan, Euskal Herriko eta Frantziako puntako hamabi borrokalari izango dira aurrez aurre, zaleen gozamenerako.

Eguaztenean egin zuten aurkezpenean ESAITeko ordezkari Martxel Toledok argi utzi zuen orain arte egin dituzten jaialdiek arrakasta handia izan dutela: "Orain dela bi urte Villabonan egin genuen lehenengo jaialdia, eta orduan Euskal Herria eta Katalunia izan ziren aurrez aurre. Eta iaz Oiartzunen Euskal Herriko borrokalariek Espainiaren kontra jokatu zuten. Hala, ni horrelako jaialdi batean sekula egon barik nengoen, eta izugarri gozatu nuen, espektakulu hutsa delako".

**OFIZIALTASUNAREN ALDE**

Bergarako alkate Agurne Barrusok argi azaldu zuen Udalak zergatik egin duen jaialdiaren alde: "Batetik, Bergarako Udalak bat egiten duelako Euskal Herriko selekzioak nazioartean ofizialki lehiatzearekin; eta bestetik, herriko jaiei begira berrikuntza dela ikusi dugulako". Horrekin batera, alkateak azpimarratu zuen hamabi borrokalariren artean bi emakumezko daudela.



Udaleko eta ESAITeko ordezkariak, prentsaurrekoan. X.U.

**SEI BORROKALDI**

Jaialdian sei borrokaldi izango dira, bost gizonezkoenak eta bat emakumezkoena. Eta Euskal Herriko hautatzaile Borja Mendiorotzek adierazitako moduan, borrokak KOra edo puntutara erabakiko dira. Euskal Herriko ordezkariak izango dira Jon Baseta (73 kilo), Iñigo Ezeizabarrena (67kilo), Ander Azurmendi (70 kilo), Jari Erdozan (63 kilo), Itziar Onaindi (61 kilo) eta Stephane Susperregi (85 kilo). Eta Frantziatik etorriko dira Oieg Lacroi (85 kilo), Bechard Laporte (73 kilo), Braganti Julien (67 kilo), Hiali Azize (63 kilo), Arianna Salatino (61 kilo) eta Laurent Goupil (70 kilo).

**SARRERAK, 15 ETA 20 EUROTAN**

Kickboxing jaialdirako sarrerak aste barruan jarri dituzte salgai, Pol-Pol eta Ariznoa tabernetan. Hala, borrokaldiak ring ondoan egongo diren eserlekuetan ikusteagatik 20 euro ordaindu behar dira eta zezen-plazako harmailetan ikustearren, 15 euro. Giro txarra egiten badu, pilotalekuan egingo dute jaialdia.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES
Jarraitzeko prest?
MBA - ENPRESA ZUZENDARITZA MASTER OFIZIALA
- Zuzendaritza Orokorra Espezialitatea
- Finantza Zuzendaritza Espezialitatea
- Marketing Zuzendaritza Espezialitatea
- Logistika eta Garraioa Espezialitatea
- Kirol Entitateen Kudeaketa eta Zuzendaritza Espezialitatea
HITZALDI INFORMATIBOA
BIDASOAKO KANPUSA: ekainaren 3a, 18:00
Ducoureau Jauregia, Hendaia 8 - 20301 IRUN
OÑATIKO KANPUSA: ekainaren 4a, 18:00
Larraña, 16 - 20560 OÑATI
INFORMAZIO GEHIAGO:
www.mondragon.edu/ezf // Tfnoa.: 943 71 80 09
postgrado@eteo.mondragon.edu
www.mondragon.edu
GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

> FUTBOLA

## Aloñak UDAri irabazi behar dio bigarren postura salto egiteko

Aloñak (59) eta Aretxabaletak (73) domekan jokatuko dute denboraldiko azken jardunaldia (Azkoagain, 17:30). Oñatikoak bigarren sailkatzeko ahaleginetan dabiltza, baina horretarako UDAri irabazi eta Hernani (61), Tolosa (59) eta Real Unionen (59) emaitzen zain egon behar dute.

Mondrak (35), berriz, Idiazabalen kontrako garaipen batekin gura du bihar ikasturtea amaitu (16:30); zuri-moreek ez dute jaisteko arriskurik.

> FUTBOLA

## Reala Bergaran entrenatuko da martitzenean

Realak 100. urteurreneko ospakizunekin jarraitzen du, eta martitzenean Agorrosinen izango dira entrenamendu saioa egiten.

Talde txuri-urdinak Debagoienera egingo duen bisita bakarra izango da, eta bertako lagunarteek eta Udalak 100. urteurreneko banderak opari moduan jasoko dituzte. Mendekoste jaiak direnez, gaztetxoz beteta egingo du Realak entrenamendu saioa.

> FUTBOLA

## Patxi de Andres, Mondrako presidente berria, urtebetez

Jose Luis Azkaratek eta haren lantaldeak zailtasunak izan dituzte Mondrako zuzendaritzak errelebua izan dezan.

Azkenean, lehengo zuzendaritza taldean diruzain lanetan ibili den Patxi de Andresek hartu du Mondra zuzentzeko ardura. Lan hori urtebetez egingo du De Andresek, lantalde berrian dauden lagunek esperientzia hartu arte. Talde berriko kide gehienak jokalarien guraso eta entrenatzaile ohiak dira.

> PILOTA

## Mendizabal ez da Bergara Hiriko finalerako sailkatu

Martitzenean jokatu zituzten Bergara Hiriko azken finalerdiak, eta bertan, Aitor Mendizabal antzuolarrak ezin izan zuen aurrera egin. Kanporaketa ez gainditzea baino, partidua eskua minduta amaitzea izan da albiste okerragoa.

Bergara Hiriko finalak, berriz, datorren astelehenean jokatuko dituzte, 19:30ean hasita. Eta martitzenean Aspek antolatutako jaialdia izango da (17:30).

AARETO FUTBOLA

# Gipuzkoako finalak bihar Oñatin

Aretxabaletako UDA-Orly taldea da Debagoieneko ordezkari bakarra

X.U. > OÑATI

Gipuzkoako areto futbol onena batuko da bihar, zapatua, Oñatin. 16:30ean hasita hirugarren, bigarren, lehenengo eta gazte mailako finalak jokatuko dituzte-eta. Debagoieneko ordezkari bakarra izango da final horretan, joan den egubakoitzean Billabonako talde Urritzari irabazita (1-0) bigarren mailara igotzea lortu zuen UDA-Orly taldea (16:30ean jokatuko dute finala).

**SARI BANAKETA 19:15EAN**

Aurreratu moduan, 16:30ean jokatuko dute hirugarren mailako finala, eta baita gazte mailako finala ere. Bigarren eta lehen mailako finalak, berriz, 18:00etan jokatuko dituzte, eta 19:15ean egingo dituzte sari banaketak.



Erretratuan Uarkapen jokatutako zesta punta norgehiagoka; erremontean xistera motzagoa da. GOIENKARIA

**PILOTA** > GIPUZKOAKO LEHEN ERREMONTE KOPA

# Bergaran hasiko dute etzi Gipuzkoako erremonte kopa

Agirresarobek eta Urrutiak Altuna II.a eta Agirrezabalaga izango dute aurrean domekan, 17:30ean

XABIER URTZELAI > BERGARA

Hainbat udalen babesarekin Diputazioak erremontea ezagutzera emateko Gipuzkoako lehenengo erremonte kopa antolatu du. Bergara eta Oñati dira txapelketa hori babestu duten udaletako bi, eta hain zuzen ere, Mendekoste barruan egingo dute koparen estreinaldia, domekan (17:30, Udal pilotalekua). Finala, berriz, Oñatin jokatuko dute, ekainaren 27an.

Hala, domekan egingo duten jaialdia kopako lehenengo kanporaketa izango da, eta partidu horretan Agirresarobek eta Urrutiak Altuna II.a eta Agirrezabala izango dituzte aurrean. Partidu horretarako pilotalekuaren eta harmailen artean sarea jarriko dute, ikusleak babestuta egon daitezen.

**ERREMONTEA ZABALDU**

Pilotaleku motzean egingo duten lehenengo txapelketa gipuzkoarra izango da domekan hasiko dutena, eta final-laurdenetatik hasita kanporaketa sistema erabiliko dute, partidu bakarrera.

Pilota modalitate hori gehiago zabaltzeko erabaki dute, hain zuzen, txapelketa pilotaleku motzetan jokatzea. Eta, gaur egun erremontean dabiltzen pilotari onenak izango dira: Ezkurra-Zubizarreta; Zeberio II-Aizpurua II; Agirresarobe-Urrutia; Matxin III-San Miguel; Altuna II-Agirrezabala; Urriza-Etxabe; Juaristi-Badiola eta Uterga-Iriarte.

**IKUSKIZUNA PILOTALEKUAN**

Erremontea pilotaleku motzetan jokatzeko moldaketa batzuk egin behar izan dituzte. Normalean, pilotako modalitate hori 54 metro luzeko pilotalekuetan jokattzen dute –Galarretan, esaterako–, eta gure pilotalekuek 36 metro inguru izaten dituzte. Baina, materiala apur bat moldatuta –bote txikiagoko pilotekin– posible da erremontea gurean ikustea. Moldaketa horrek ez du ikuskizunean eragin, ezta gutxiago ere. Joko azkartasuna da ezaugarri nagusia, eta pilotariek teknika galanta eta kantxan kolokatzeko bizkortasuna behar dute.





BERGARA
San Lorentzo
AZKEN ETXEBIZITZAK
ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO

APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak

Eraikitzailea INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea GRUPO Ormak
Argibide eta salmenta 943 42 44 30
www.ormak.es
Apartamentuak 152.000€-tik aurrera
25.300.000 pta


Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida
Arlutz taberna
TABERNA
ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34
Ezkutu taberna
EZKUTU
TABERNA
Zatoz gure musikaz gozatzera
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01
VALDEZATE
Bokatak eta plater konbinatuak
Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40
IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08
hemen bada giro!
OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67
BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94
HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57
Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68
Gurea
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64
Dorleta
Loteria eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA



**> MUSIKALDIAK**
Azken hitzordua domekan Oñatiko Santa Ana antzokian **> 38**



**> PAZKOAK**
Musika, Bergarako jaietako protagonistetako bat **> 39**

**> SHEREZADE MORENO**
Arrasateko futbol taldean ibili da jokatzen eta Gipuzkoako txapeldunak izatea lortu du. Irakasle ikasketak egin eta gero Gasteizen dabil lanean **> 42**



# Joe Henry, Primavera Sound jaialditik Arrasatera

Bartzelonako jaialditik bueltan, Euskal Herrian emanaldi bakarra egingo du estatubatuarrak, zapatuan Arrasateko Amaia antzokian

Lehen diskoa 1986an kaleratu zuen; AEBetako produktore ospetsuenetakoa dugu gaur

Joan den urtean kaleratu zuen Joe Henryk azken diskoa, 'Civilians' izenburukoa

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Neil Youngen moduan, Joe Henryk Euskal Herrirako bidea hartuko du Bartzelonako Primavera Sound jaialdian parte hartu eta gero. Gaur egun errazegi, maizegi erabiltzen da kultuzko artistaren etiketa, baina Joe Henryren kasuan oinarri sendoak ditu haren ibilbideak: 1986an lehen diskoa (*Talk of heaven*) kaleratu zuenetik hona, beste bederatzi disko plazaratu ditu eta, horrez gain, Estatu Batuetako musika produktore ospetsuenetakoa bilakatu da. Hainbat artista ezagunen grabazioetan parte hartu du (Elvis Costello, Ani Di Franco eta Mary Gauthier) eta, aldi berean, country, soul, blues eta folk ahotsak berreskuratu ditu azken urteotan, Solomon Burke, Allen Toissaint eta Rodney Corwellen ibilbideei bultzada berria emanez. Musika adituek Bob Dylan, Tom Waits eta Randy Newmanekin parekatu izan dute Henry.

Gauzak horrela, luxua da Joe Henry bezalako artista bat Arrasatera etortzea, are gehiago Euskal Herrian emanaldi bakarra egingo duela kontuan izanda. Gaur, egubakoitza, Bartzelonan joko du eta bihar Amaia antzokian izango da, 20:00etan. Sarrerak 10 eurotan, *www.generaltickets.com/kutxa/* webgunean edo 943 00 12 00 telefonoan.

**ZUZENEKO INDARTSUA**

Joan den urtean kaleratu zuen Joe Henryk azken diskoa, *Civilians* izenburukoa, eta orduan egin zuen lehenbiziko bira Espainiako Estatuan; haren zuzenekoak kritika onak besterik ez zuen jaso. Haren hitzetan: "Lan bakoitzean soinu berezi baten bila jarduten dut eta ezin daiteke esan genero edo estilo bakar baten inguruko diskoak direnik. Jazz musikariei erraza gertatzen zaie hori bereganatzea", dio Henryk.

Kantatzeaz gain, pianoa eta gitarra tartekatzen ditu Henryk zuzeneko emanaldietan. *Time is a lion*, tristeziaz beteriko *Scare me to the death*, *God only knows*, *I will write my book* eta beste hainbat perla ekarriko ditu bihar Arrasatera.

## Madonnaren koinatua

"Oraindik deskubritzeko dagoen benetako poeta da Joe. Haren zenbait konposiziok bihotza ukitu didate. Beste garai bateko gizona da, lirikaren maisu bat". Madonna izarraren hitzak dira horiek. Hain zuzen ere, Madonnaren ahizpa batekin ezkonduta dago Henry; beraz, koinatuak dira bi artistak.

Estatu Batuetan, Ipar Karolinan jaio zen Henry 1960. urtean, baina Michiganen hazi zen eta musika ibilbideko lehen urratsak New Yorken egin zituen. Azkenik, Los Angelesen kokatu zen 1990eko hamarkadaren hasieran. Musika industriarekin izan dituen *txokeek* eraman dute bere lanak guztiz kontrolatzera eta ospe handiko produktore izatera.



Joe Henry musikari estatubatuarrak emanaldi bakarra egingo du Euskal Herrian: Arrasaten izango da, bihar, zapatua.

MUSIKA > KONTZERTUA BERGARAN

# Oi! The Arrase, Never Surrender eta Hell Beer Boys taldeak bihar Jam aretoan

Bestalde, The Bon Scott Band, Nuevo Catecismo Catolico, MC6 eta Never Surrender taldeek Oñatiko Errekalde auzoko jaiak hasiko dituzte gaur

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Askotariko estiloak entzuteko aukera izango dute musikazaleek aste bukaeran gurean. Alde batetik, gaur The Bon Scott Band, Nuevo Catecismo Catolico, MC6 eta Never Surrender taldeek Oñatiko Errekalde auzoko jaiak hasiko dituzte; eta beste alde batetik, Oi! The Arrase, Hell Beer Boys eta Never Surrender taldeak Jam aretoko oholtzara igoko dira bihar.

**JAM ARETOAN, BIHAR**

1990. urtean Mallorkan sortutako Oi! The Arrase taldea da Jam aretoko kontzertuko izar nagusia. Urte batzuk elkarrekin egin ondoren banandu egin ziren, eta duela gutxi elkartu dira berriro ere. Kantu berriak prestatzen dabiltza, baina Bergarako kontzertuan taldearen kanturik ezagunenak joko dituzte; besteak beste, *Skinhead*, *Solidaridad* (Angelic Upstarts taldearen *Solidarity* kantuaren bertsioa) eta *No hay futuro, no hay esperanza* (Defiance taldearen *No future, no hope* kantuaren bertsioa). Eurekin batera igoko dira oholtzara Arrasateko Never Surrender eta Goierri aldeko Hell Beer Boys taldeak.

Kontzertua bihar 20:30ean hasiko dute, eta, sarrera gehienak saldu dituzten arren, gutxi batzuk dituzte salgai Jam aretoko tabernan.



Arrasateko Never Surrender taldeko kideak kontzertu batean. GOIENKARIA

**AC/DC-REN TRIBUTU TALDEA**

Kontzertu handia iragarri dute Oñatiko Errekalde auzoko jaiak hasteko. Gaur, 21:00etan hasita, Never Surrenderek, Nuevo Catecismo Catolicok eta bi tributu taldek joko dute: MC5 taldearen tributu talde MC6 eta AC/DCren bertsioak egiten dituen The Bon Scott Band taldea.

Australiako taldearen kontzertuetan egon ez direnek *Rock and roll train* diskoko kantuen eta taldearen kantu mitikoek bertsioak entzuteko aukera izango dute. Eurek igoko dira oholtza gainera azken tokian.

Kontzertua hasiko du MC6 taldeak; ondoren Never Surrenderrek joko du; hirugarren tokian Nuevo Catecismo Catolico; eta bukatzeko The Bon Scott Band.

MUNDUKO KULTUREN FESTA > BALORAZIOA

## Mundumira festaren gaineko balorazio positiboa egin dute

Garraio publikoaren erabilerak sortutako arazoen gainetik, jaiarekin gustura daude antolatzaileak

M.B. > ESKORIATZA

Mundumira festaren gaineko balorazio positiboa egin dute Debagoieneko Mankomunitateak, Eskoriatzako Udalak eta *Euskal Herria* aldizkariak. Hirurek ere, bakarka egindako balorazioetan jendearen parte-hartzea azpimarratu dute. "Mundumira erreferentziazko jaialdi bihurtu da, eta horrek lagun asko ekarri ditu Debagoienera. Gure eskualdea ezagutzera emateko tresna inportantea da", esan digu Manomunitateko turismo batzordeko buru Oxel Erostarbek.

**ARAZOAK AUTOBUSEKIN**

Antolatzaileek egindako deiari erantzunez, Eskoriatzan egondako pertsona gehienek autobusak erabili zituzten, eta horrek arazoak sortu zituen. "Ilara luzeak eta atzerapenak egon ziren, batez ere zapatuan Macacoren kontzertuaren bukaeran. Barkamena eskatu nahi diegu erabiltzaileei", esan digu Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek. Gainera, boluntarioek egindako lana eskertu gura izan dute antolatzaileek.

Hurrengo urteko jaia non egingo duten ez dutela zehaztu esan digute, baina hobetu beharko dituzten arloak zeintzuk diren badakite; besteak beste, natura turismoaren gaineko jarduerak; mendi ibilaldien azoka; eta bisita eta ibilaldi gidatuak.



Mundumirako irudi bat. J.A.



Josu Okiñena. GOIENKARIA

MUSIKA

## Musika klasikoko azken saioa Oñatin

Domekan egingo dute Gorrotxategi tenoreak eta Okiñena piano-jotzaileak

M.B. > OÑATI

Oñatiko 31. Udaberriko Musikaldietako azken emanaldia egingo dute domekan. Andeka Gorrotxategi tenoreak eta Josu Okiñena piano-jotzaileak bat egingo dute Santa Ana antzokian, domekan, 19:30ean. Besteak beste, Bellini, Tosti, Guridi, Donostia eta Faure maisuen kantuak eskainiko dituzte.

Andeka Gorrotxategi tenoreak Bartzelonan jokatutako Manuel Ausensi kantu txapelketako hirugarren saria eskuatu zuen aurreko aste bukaeran. Aurretik, 2007. urtean Irungo Luis Mariano lehiaketa irabazi zuen.

Josu Okiñena irakaslea da Musikenen, eta Donostiako Orfeoiarekin eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin emanaldiak egin ditu.

**100 IKUSLE**

Maiatzaren 10ean hasi zituzten Musikaldiak Oñatin, eta hiru emanaldi egin dituzte. 100 bat lagun egon da emanaldietan. Antolatzaileak "oso pozik" daude herritarrek emandako erantzunarekin.



**JAIAK** > PAZKOAK BERGARAN

# Bitorianatxo, udaletxeko balkoira jaisteko irrikan

Gaur 20:00etan emango zaie hasiera Bergarako Mendekoste jaiei: martitzenera bitartean hamaika ekitaldi izango dira

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Ohi bezala, Bitorianatxo ezagunak iragarriko du Bergarako Mendekoste jaien hasiera gaur, egubakoitza, 20:00etan, San Martin plazan.

Astelehenetik martitzenera bitartean hamaika ekitaldi izango dira Bergaran, eta badira hainbat nobedade aurten: Euskadiren eta Frantziaren arteko kick-boxing norgehiagoka (zapatuan, 18:00etan, zezen-plazan), Gipuzkoako txapelketako erremonte jardunaldia (domekan, 17:30ean, Udal Pilotalekuan) eta hezitako txakurren erakustaldia (domeka eguerdian, zezen-plazan).

Horiez gain, hainbat hitzordu *klasiko* (sukaldaritza lehiaketa, errekortadoreen ikuskizuna eta beste hainbat) eta Txosna batzordeak Bideberriko txosnen inguruan antolatutako ekitaldiak. Umeendako barrakak eta bestelakoak eta musika kontzertuak ez dira faltako, eta kaleko jai giroa ere ez.

**HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK**

Bestalde, asteleheneko herri bazkarirako txartelak agortu egin ziren eta Udalak umeendako salgai jarri eta soberan gelditu ziren txartelak (86 guztira) salgai jarriko ditu gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:00etatik aurrera. Pertsona bakoitzak ezin izango du 6 txartel baino gehiago erosi. Txartelak, 12 eurotan salgai.

**GAUEZ, AUTOBUSAK**

Mendekoste jaietan gaueko autobus zerbitzuak izango dira. Pesak gaueko autobus zerbitzu berezia jarriko du. Zehazki, zerbitzu hori maiatzaren 30ean eta 31n eskainiko du Bergaratik Antzuola, Elgeta eta Eskoriatzara.



Herri bazkarirako txartel gehiago salgai jarriko dituzte gaur. GOIENKARIA

## Pazkoetako egitaraua

### EGUBAKOITZA, 29

**20:00** Jaien hasiera, etxafuegoak jaurtitzea eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan. Udal Musika Bandakoei Tximeleta taldekoek hartuko diete lekukoa. Iluntzean, Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA eta Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin EMON, XARMA eta KI SAP musika taldeekin.

### ZAPATUA, 30

**10:00** 25. haur eta gazteen PLASTIKA LEHIAKETA, Beart Bergarako arte elkarteak antolatuta.
**10:00** Diana Labegaraietatik Ekaitz Otxoa eta Aitor Astorkia trikitilariak. Bolutik Udal Txistulari Banda. Oxirondotik, Elgoibarko dultzaineroak. Dianaren ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.
**11:00** ERREKORTADORE ESKOLA, umeentzako, eta ondoren ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA.
**11:00** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan.
**12:30** EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK egunaren barnean, PRESOEI OMENALDIA txosnetan.
**13:00** Bergara eta Navarclesko (Katalunia) ERRALDOI KONPARTSEN IRTEERA.
**13:30** Haur eta gazteen plastika lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.
**14:30** Presoen aldeko HERRI BAZKARIA txosnetan.
**18:00** ERRALDOIEI IZENA JARTZEKO EKITALDIA. San Martin plazan.



**18:00** Euskal Herriko eta Frantziako selekzioen arteko KICK-BOXING SAIOA zezen-plazan.
**18:15** Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.
**18:30** Bergara eta Navarclesko (Katalunia) ERRALDOIEN KALEJIRA.
**19:00** ROCK MARATOIA. MAHASTER RIVER, ADI HOLDEN eta STREET 77, Simon Arrietan. LORD WITCH, OLYMPIC DARTS, PDN eta TURBOSHIT Muniben. HARD FLIP, AGAINST THE RAPIST, EXTORSION eta NO HAY SOLUCION, Kruz Gallastegin.
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin: WILLIS DRUMMOND, ZINK, MIMMISIKAUS eta FLYSHIT taldeekin.
**22:30** ERROMERIA LUHARTZ taldearekin San Martin plazan.



### DOMEKA, 31

**08:00** ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.
**09:00** Bigantxak zezen-plazan.
**09:30** 74. Pentekoste saria TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpiko txirrindularientzat.
**10:00** Euskadiko banakako XAKE TXAPELKETA Agorrosinen
**10:30- 14:00:** FUTBOLINEAN eta DARDOEKIN jolasteko aukera San Martin plazan.
**12:30** HEZITAKO TXAKURREN ERAKUSTALDIA, Seminarioko zezen-plazan.
**12:30** UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA, Espoloian.
**Egitaraua:**
*1.832.* A. Gonzalez Chirlaque
*Egmont* (Obertura). L. Van Beethoven
*Gero bat gaurdanik.* B. Mendizabal. Moldaketa: A. Gonzalez Chirlaque
*Celtic Child (Fantasia).* A. Appermont.
*Big Band in concert.* B. Lowden
*Bergarako ereserkia.* A. Gonzalez Chirlaque
Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque
**16:00** Bergara Hiria, TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA, Agorrosinen. Antolatzailea: Bergarako Xake KE.
**17:00** Umeentzako ANTZERKIA eta TAILERRAK txosnetan.
**17:00-20:00** Haurrentzako jolasparkea, Ipintza IIn.
**17:30** 32. EUSKADIKO DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA, San Martin plazan, Abarka dantza elkarteak antolatuta.
**17:30** Gipuzkoako ERREMONTE KOPA Udal Pilotalekuan.
**18:00** EUSKAL HERRIKO ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA, zezen-plazan.
**20:00** BLUES GAUA txosnetan. OS GALLARDOS, BELCEBLUES eta ENRIQUE MINGO Y LOS EFIKAZES taldeekin.
**22:30** DANTZALDIA HORKONPON orkestrarekin, San Martin plazan.



### ASTELEHENA, 11

**10:30** PLATER TIRAKETA. Arrateko tiro zelaian. SCD Ollagorrak antolatuta.
**11:30** Bergarako koadrilen HERRI KIROL NORGEHIAGOKAK, Irala kalean. Xapre eta Zarra trikitilarien txarangak animatuta.
**11:00- 14:00** ZALDIEKIN LEHEN HARREMANAK. Bost urtetik 12 urtera bitarteko gaztetxoentzat.
Zaldiak gertutik ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek, Seminarioko patioan dagoen zezen-plazan.
**12:30** DANTZALDIA TARANTELLA taldearekin Espoloian.
**14:30** HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Incansables txarangak animatuta. Txartelak salgai Pol-Pol, Kortazar eta Ariznoa tabernetan. Prezioa: 15 euro, eta 10 urtetik beherakoentzat 10 euro. Ondoren, KOADRILEN ARTEKO JOLASAK egongo dira eta amaitzeko, DJ ANGIK KARAOKEA ekarriko du San Martinera
**18:00** Txosnetan AHTrik ez! egunaren barruan, MANIFESTA: AHT ez!
**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA. Gaztetxoenek zezentxoekin aritzeko aukera izango dute Seminarioko zezen-plazan.
**19:30** BERGARA HIRIA PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK Udal Pilotalekuan. BKEko pilota saila.
**20:00** ANTZERKIA: 'AHTren IZENEAN, AMEN!', txosnetan.
**22:30** KONTZERTUA txosnetan. DES-KONTROL, FIACHRAS eta X taldeekin.
**23:30** ERROMERIA ZE ESATEK eta TRIKIZIO taldeekin San Martin plazan.
**23:00** CAMP DANTZALDIA TARANTELLA taldearekin Espoloian.
**03:00** DJ ELVIS CANO izango da txosnetan.



### MARTITZENA, 2

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan.
**11:00- 14:00** HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA, Ipintza IIko patioan. Auto txikiak, zezen mugikorrak edota goming egiteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.
**12:00** HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Bertan izango dira: Joritz Gisasola (Zelai III.a), Jon Gisasola (Zelai IV.a) eta Hodei Ezpeleta aizkolariak. Joseba Ostolaza, Abadiñoko Urdax eta Idoia Etxeberria harri-jasotzaileak. Erakustaldian zehar Ernesto Ezpeleta *Bihurrik* beteko ditu aurkezle lanak.
**12:30- 14:00** BILBAINADAK, Irrintzi taldearekin, Irala kalean.
**16:30- 19:30** HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA, Ipintzako IIko patioan.
**17:00** Pilotari profesionalen pilota jaialdia Udal Pilotalekuan. Leihatila jaialdia hasi baino ordubete lehenago irekiko da.
**18:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA, Seminarioko zezen-plazan. Dragoi-Alde txarangak alaituta.
**18:00** Aurten, lehenengo aldiz, ESPUMA JAIA antolatu dute Munibe plazan.
**19:30** PATATA TORTILLA LEHIAKETA ETA AZKEN AFARIA, txosnetan.
**19:30- 21:00 eta 22:30- 24:00** KARAOKEA Txatxilipurdirekin eta DJ FESTA Gazteako DJ Oihan Vegarekin, San Martin plazan.
**24:00** BITORIANATXOREN IGOERA, Dragoi-Alde txarangarekin San Martin plazan.
**24:30-01:00** DJ FESTA Gazteako DJ Oihan Vegarekin San Martin plazan.

ANTOLATZAILEEN OHARRAK:
- Jai batzordeak dei egiten die herriko koadrilei, blusa edo kamisetarekin kalera irteteko.
- 14 urtetik beherakoek debekatuta izango dute, errekortadore eskola ibiltarian izan ezik, gainerako zezen ikuskizunetan parte hartzea.
- Jai batzordeak ez du bere gain hartzen jaiegun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 84 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea eta trastelekua. Deitu 665 73 39 55 telefonora.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 606 86 71 97.

**Bergara** Erdialdean, 87 metro koadroko 3 logeladun etxea. Balkoia eta ganbararekin. Egoera ezin hobean. 210.000 euro. 685 72 51 58.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Hiru logela, sukaldea, jangela-egongela, bi komun, trastelekua eta garajea. Oso eguzkitsua. Aukera ona. Deitu 600 90 45 58 telefonora.

**Marieta (Araba).** 200 metro koadroko etxe bakarra. 5 logela, 37 metro koadroko egongela beheko suarekin. 3 komun eta sukalde bat. Garajea bi autorendako eta 856 metro koadroko lorategia (ureztatze automatikoarekin). Aukera ona. Deitu 628 45 09 62 edo 616 96 99 20 telefono zenbakira.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua, argi patioan. Deitu 652 70 12 49 zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikina. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzealdean. 20 metroko garaje itxia. Deitu 678 40 34 76 edo 609 77 66 75 telefono zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrietan. 80 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea, terraza eguzkitsua eta ganbara. Garajea barne. Deitu 665 74 98 47 telefono zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Moiua kalean. 70 metro koadro. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea eta ganbara. Eguzkitsua, jantzia eta berritua. Deitu gauez 943 53 37 45 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andresen, ikasleentzat. 629 42 26 54.

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Olakua auzoan, ikasturtean barrena. Deitu 660 40 06 75 telefonora.

**Peñiscola.** 2 edo 4 pertsonarendako apartamentua. Hondartzako lehenengo ilaran. Guztiz jantzia. Igerilekua txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela alokatuko nuke Arrasaten, ahal bada jende euskaldun, gazte eta langilearekin. Ekaineko lehen astetik sartzeko. 608 57 97 70.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 300 euro. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 662 63 76 33 telefonora.

**Bergara.** Logela errentan ematen dut, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Bolun. 250 euro. 670 85 86 68.

**Donostia.** Hurrengo ikasturteko lehenengo lau hilabeteetarako etxe bila nabil. Deitu 655 71 39 27 telefonora.

## 2/ GARAJEAK

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje irekia edo itxia erosiko nuke Masterreka inguruan. Deitu 659 27 69 25 edo 659 27 69 25 telefonora.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza.** Esperientzia duen mutila gertu ostalari lanak egiteko. 648 19 10 38.

**ELGETA**

**Zerbitzaria behar da domekarako.**

**943 76 80 23**

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu dago pertsona helduen eta haurren zaintzan lan egiteko. Garbiketa lanak ere egiteko gertu dago. Norma. 630 88 54 46.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu eta abar. Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefonora.

**Debagoiena.** 30 urteko neska gertu garbiketa eta etxeko lanak egiteko. Orduka, goizez, arratsaldez zein asteburuetan. Alejandra. Deitu 608 34 36 11 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 686 53 34 01.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziaduna. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean geratzeko prest. 664 12 43 25.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egiteko. 5 euro ordua. 669 53 02 92.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko, gauez. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakumea gertu legoke pertsona edadetuen zaintza lanetarako, etxe barruan zein kanpoan. 677 81 10 00.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. 649 30 13 60. Mari.

**Debagoiena.** Emakumezko batek lan egingo luke nagusiak zaintzen. Erreferentziak ditut. 630 85 54 46.

**Debagoiena.** Erizaintzako laguntzaile ikasten ari den neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 612 18 07 44.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu garbiketa orokorrak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Informeak dauzkat. Euskalduna eta lanean hasteko gertu. Ainhoa. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke. Baita nagusiak edo umeak zaindu ere. Orduka eta egun osoz. 679 06 12 99.

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan, tabernari edota nagusiak zaintzen aritzeko gertu nago. Autoa daukat. Egun osoz zein orduka. 636 11 23 40.

**HORTZ KLINIKA**

**Auxiliarra edo higienista behar da Eskoriatzan.**
**Bidali curriculumak helbide honetara:**
**Jose Arana 6, 3.A 20.540**
**Eskoriatza**

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lan egiteko gertu. Esperientzia makinak muntatzen eta mantentze-lanak egiten. Jatetxe eta tabernetan zerbitzari lanetan eskarmentua. 605 76 05 59.

**Debagoiena.** Margotze lanak egingo nituzke. 660 98 67 20.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lanerako gertu. Publizitate banaketan edo bestelako lanetan. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Mutila gertu argiketari (elektrizista) lanetarako. Mantenua, matxurak eta konponketak. 655 31 84 40 edo 943 79 64 65.

**Debagoiena.** Mutila gertu nekazaritza eta baso-lanak egiteko edota motozerrarekin aritzeko. 660 98 67 20.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, edo bestela. 680 30 24 64.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Egunez edo gauez. Legezko paperak dauzkat. Marta. 649 59 86 04.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izanda. 669 02 91 30.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izaten. 688 68 13 63.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota ostalaritzan lan egingo nuke: mantentze lanak zein sukaldean. 657 20 30 71.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. 600 82 84 60.

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko egun osoz, orduka, gauez edota etxean bertan bizi izaten. 600 85 56 86.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen, botikak banatu eta elikadura gertatzen, higienean eta mugitzen. Umeak zaindu edo garbiketa lanak ere egingo nituzke. 943 03 45 06 edo 688 65 41 26.

**Debagoiena.** Pertsona arduratsuak nagusiak zaindu, garbiketa lanak edo artzain lanak egingo lituzke. Baserrian ere bai. 660 84 44 42 edo 676 56 70 05.

**Ile apaintzaileak** etxerik etxeko zerbitzua eskaintzen du. 650 59 93 91.

**Oñati.** Neska euskaldunak umeak zaindu edo eskola partikularrak emango lituzke udan. 666 21 73 48.

**Oñati.** Oñatiko neska gazte bat umeak zaintzeko prest. Ekainaren 20tik aurrera. 677 37 04 81.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Irakasle eta psikopedagogoak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu. Lantalde txikiak. Esperientzia handia eta emaitza onak. 658 70 67 84.

**Bergara.** Azterketak gainditzeko ingeleseko eskolak ematen ditut. 616 12 56 29.

**Bergara.** Ingeleseko ahozko eskolak eta eskola partikularrak ematen dira. 654 94 87 26.

**Oñati.** Esperientziadun irakasleak udan eskola partikularrak emateko gertu. 666 21 73 48.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Peruko untxiak.** Peruko untxi txikiak saltzen dira. Oso politak, kolore desberdinetakoak. 8 euroan bakoitza. 943 76 07 47.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Berogailu elektrikoa** salgai. 50 euro. 943 79 68 18.

**Moises kuma.** Ume jaioberrientzat. Berri-berria. 45 euro. Xabier. 943 77 18 63.

**Ontzi-garbigailua.** Bosch etxekoa. Berria. 637 52 89 83.

**Ordenagailua.** Informatikari profesionalarena izandakoa. Oso hobetua eta egoera ezin hobean. Asus AMD 5.200+ 2 GBko RAM. 200 GMko disko gogorra. Grafikoa: ATI X1.250. HTMI. Full HD. 6 USB. Firewire. DVD grabagailua. Window XP eta abar. Proba daiteke. 260 euro. 943 53 27 60 edo 633 32 22 00.

**PlayStation I** salgai. Prezio onean. 686 82 67 91.

**Telefono mugikor** berria salgai. Nerea. 943 79 68 18.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta** inguruan lursaila erosiko nuke, ortua eta txabola egiteko. 696 32 63 13.

**Bizikleta.** Hiru urteko mutiko batendako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. Neurria: 16''. 636 83 85 32.

### 803. EMAN

**Marrazteko** mahai bat ematen dut. Oihana. 616 84 55 96.

### 806. GALDU

**Erlojua.** Zilarrezko erlojua galdu nuen Arrasateko San Andres auzoaren eta Iamai kafetegiaren artean maiatzaren 3an. Lauki-formakoa da eta barrukoa nakarrezkoa du. Cauny markakoa. 646 38 56 84.

### 807. AURKITU

**Eraztuna.** Ezkontza-eraztuna aurkitu dut Bergarako Bolu auzoan. 645 71 28 81.

**Giltzak.** Arrasateko Kobate harrobiaren inguruan giltza batzuk aurkitu ditut. Narruzko poltsatxoan Cafe Central jartzen du. 657 79 07 39.

**Giltzak.** Zubillagatik Urkulurako bidean bi giltzako jokoa aurkitu dut. 670 65 43 59.

---

**DEBA GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

---

**KOROSTI**
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

---

**Bergarako Musika Eskolako 25. urteurreneko kontzertua**

**SAIO BEREZIA**
Ekainak 5, egubakoitza: 22:15
Ekainak 6, zapatua: 14:00
Ekainak 7, domeka: 21:00

**BABESLEA:** URBIETA zeramikak eta bainuak PORCELANOSAren banatzaile ofiziala

Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*




Maiatzaren 28tik ekainaren 9ra
2. Unitatea
Erdi Prezioan
Carrefour
GORBEIA
www.carrefour.es
Actimel naturala, %0 naturala edo marrubi zaporekoa DANONE
100 g
14 unitateko Pack-a
Pack 1 erosita
6,96€
Kiloa 4,97€
2. Unitatea
3,48€
Kiloa 2,49€
KONBINA ITZAZU NAHI DUZUN ERAN!
Jatorri-izen kalifikatua duen Errioxako Ardoa VIÑA ESPOLÓN Ardo beltz ondua
75 cl
1 erosita
3,95€
Litroa 5,27€
2. Unitatea
1,98€
Litroa 2,64€
Carrefour Garagardo Berezia
Lata 33 cl
Lata 1 erosita
0,33€
Litroa 1€
2. Unitatea
0,17€
Litroa 0,52€
CALVO atun zuria olio begetalean, eskabetxean edo naturala
104 g
3 unitateko pack-a
Pack 1 erosita
3,65€
Kiloa 11,70€
2. Unitatea
1,83€
Kiloa 5,87€
KONBINA ITZAZU NAHI DUZUN ERAN!
CARBONELL oliba-olioa, 0,4º
5 l
1 erosita
14,89€
Litroa 2,98€
2. Unitatea
7,45€
Litroa 1,49€
ARIEL Detergente-hautsa Normala
65 ontzi txiki
1 erosita
19,95€
Ontzi bakoitza 0,31€
2 unitateko pack-a erosita
2. Unitatea
9,98€
Ontzi bakoitza 0,15€
Prezio hauek Carrefour GORBEIArako bakarrik balio dute
ZATOZ DOAN*
Carrefour-era
Carrefour GORBEIA-ra etortzeko autobideko bidesaria ordainduko dizugu
(Autobideko tiketa aurkeztea ezinbestekoa da.)
ALICANTE 2008-2009
*60€ baino gehiagoko erosketarekin
Ekainaren 13ra arte

**Sherezade Moreno** > Haur Hezkuntzako irakaslea eta futbolaria

# "Hasieran pazientzia eta esfortzu handia behar da bi urteko umeekin"

Betidanik gustatu izan zaizkio Sherezade Morenori umeak: "Lehengusu gehienak ni baino gazteagoak dira; beraz, beti egon naiz umez inguratuta". Irakasle ikasketak egin eta gero Gasteizen dabil irakasle: "Bi urteko umeekin egiten dut lan eta oso polita da". Futbolean, aurten Arrasateko taldean ibili da jokatzen: "Gipuzkoako txapeldunak izatea lortu dugu".



JASONE ZABALA > BERGARA

**Sherezade Moreno bergararrari betidanik gustatu zaizkio kirola eta umeak. Haur Hezkuntza eta Heziketa Fisikoa ikasi zituen Eskoriatzan, eta Gasteizen dabil irakasle. Bergaran hasi zen eskubaloian jokatzen eta gero Oñatira joan zen; aurten, berriz, Arrasaten dabil, futbolean.**

**Esan genezake umeak gustuko dituzula.**

Bai, umeak asko gustatzen zaizkit. Oso ondo moldatzen naiz haiekin. Bi ahizpa gara, ni naiz nagusia, 7 urteko diferentziarekin, eta lehengusu gehienak ni baino gazteagoak dira; beraz, beti egon naiz umez inguratuta.

**Haur Hezkuntza eta Heziketa Fisikoa ikasi dituzu. Non eta zergatik?**

Txikitatik argi neukan irakasle izan nahi nuela, baina hasieran Heziketa Fisikoko ikasketak egitea nuen buruan. Ikasketak Eskoriatzan egin nahi nituenez eta bertan espezialitate hau ez zegoenez, Haur Hezkuntza ikastea erabaki nuen.

Behin ikasketa hauek bukatuta, Heziketa Fisikoko espezialitatea gehitu zuten, eta pentsatu gabe matrikulatu nintzen. Bost urte eman ditut Eskoriatzako Huhezi unibertsitatean.

**Momentu honetan Haur Hezkuntzako irakaslea zara Gasteizen.**

Gasteizen irakasten dut. Bi urteko umeekin egiten dut lan, eta oso polita da. Hasieran oso gogorra da, eskolara doazen lehen aldian baita umeendako, eta aldi hori pazientzia eta esfortzu handiarekin pasatzen da. Baina gero, umeen aurrerapausoak ikusita, aurreko guztia ahazten da.

**Aquagymeko irakasle ere bazara. Zer egiten da bertan?**

Bai, Arrasaten irakasten dut. Ordubeteko saioak dira eta adin guztietako jendea dago (20 eta 65 urte tartekoak). Gainera, ez dago mutilik, denak emakumeak dira.

Bertan, gimnasiako ariketak egiten ditugu. Igerileku handian egiten ditugu lehenengo ariketak; batzuetan erabiltzen ditugu pisu txikiak, beste batzuetan hegalak edota txurroak. Azkeneko ordu laurdenean igerileku txikira pasatzen gara beste ariketa batzuek egiteko, jolasteko edota abdominalak egiteko.

**Gainera, orain arte hainbat kirol mota egin dituzu, ezta?**

Bai, kirola egitea asko gustatzen zait. Txikitatik apuntatu nintzen eskola kirolean eta jadanik 16 urte inguru pasatu dira. Bertan kirol guztiak egiten genituen eta oso ondo pasatzen nuen. Baina 12 urte nituela kirol bat aukeratu beharra nuen, eta eskubaloia aukeratu nuen, askorik pentsatu gabe. Oso ziur egin nuen aukeraketa eta horretan pasatu ditut ia 9 urte. Momentu batean Oñatira joan behar izan nuen jokatzera, Bergaran talderik ez zegoelako. 23 urterekin, berriz, BTLS futbol taldean jokatzeko aukera eskaini zidaten. Oso esperientzia ona izan zen eta bi urte eman nituen talde horretan. Aurten ez da taldea atera eta Arrasateko futbol taldera joan nintzen. Denboraldi honetan, nahiz eta 13 jokalarirekin ibili, Gipuzkoako txapeldunak izatea lortu dugu.

**Eskubaloia eta futbola, bat hanka jokoa eta bestea esku jokoa. Zein da errazagoa?**

Eskubaloia, duda barik. Eskubaloia kontaktu handiko kirola da eta askoz ere tentsio handiagoa egoten da. Futbolarekin alderatuz, ezberdintasun asko daude, baina garrantzitsuena da aldaketak egiteko era. Eskubaloian nahi duzun beste aldaketa egin daiteke, sartu eta irteten ibil zaitezke arazo barik. Gehiago gozatzen dut eskubaloian jokatzen futbolean baino.

**Igeriketa irakasle ere ibili zara, haur oso txikiekin. Zer irakasten zaie bertan?**

Bi urte egon naiz haur txikien igeriketako ikastaroak ematen. Oso esperientzia polita eta positiboa izan da nire bizitzan.

Ikastaro hau 0-3 urteko haurrei zuzenduta dago, baina gurasoei gomendatzen zaie lau hilabetetik aurrera ekartzea. Helburu nagusia gurasoekin, begiralearekin eta inguruko beste ume eta helduekin egokitzea edo ohitzea da. Oso garrantzitsua da umea gustura egotea.

**Denbora librea duzunean zer egiten duzu?**

Ez daukat denbora libre handirik. Astean zehar lanean eta entrenatzen egoten naiz eta asteburuetan futbol partiduak izaten ditut; beraz, egun bakarra gelditzen zait aprobetxatzeko.

Normalean, egun hori atseden hartzeko erabiltzen dut. Bestela, paseatzea, patinetan ibiltzea, irakurtzea eta lagunekin egotea gustatzen zait.








JASONE ZABALA

PERTSONALA

**Herria:** Bergara **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Haur Hezkuntzan eta Heziketa Fisikoan diplomaduna. **Zaletasunak:** Irakurtzea eta erosketak egitea. **Zer gorrotatzen duzu?** Pertsonen faltsukeria. **Baduzu maniarik?** Azazkalak jatea. **Biziorik?** Txokolatea.

**Irakurritako azken liburua?** *El niño del pijama de rayas.* **Zein musika duzu gustuko?** Ez dut konkretuki bat gustuko, denetarik entzuten dut. **Futbolari bat?** Real Madril taldeko Raul aurrelaria. **Bidaiatzeko toki bat?** Karibea.

# Mendekoste jaiak 'Magazinea'-n eta 'Erreportajea'-n

Datorren astean protagonista izango dira Goiena Telebistan Mendekoste jaiak

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Asteburuan Bergaran ospatuko diren Mendekoste jaiak izango dira, dudarik gabe, datorren astean Goiena Telebistan protagonista. Izan ere, astelehenerako *Magazinea*, ia osorik, jaiei eskainitakoa izango da. Asteburuan Bergaran gertatutakoak jasoko ditu lehenik telebistak, eta astelehenean Txomin Madinak ekarriko ditu xehetasun guztiak. Dakizuen moduan, astelehenean, 19:45ean izango da hori.

Baina hori bakarrik ez; izan ere, asteburuan eta datorren astean jaietan gertatzen diren guztiekin, Julen Iriondok *Erreportajea* luzea prestatuko du. Eguaztenean izango duzue hori ikusteko aukera, 22:15ean.

**GOITB, 'Bergarako jaiak'**
> Astelehena, 19:45
> Eguaztena, 22:15


Mendekosteak ospatuko dira asteburuan Bergaran. GOIENKARIA

## telebegi

**Gorka Etxabe**
'getxabe@arteman.org'

### Publizitatea eta telebista

Eguaztena, 20:45. Haurrak bainatu ditugu, afaria prest eta telebista aurrean jartzeko unea iritsita, prest gaude gozatzeko Bartzelona eta Manchester United taldeen arteko partidarekin. Arbitroak txistua jo eta jokalariak hasi dira lehian. Partidaren gaineko komentariorik ez dut egingo, ezta partidaren telebista emanaldiaren gainekorik ere.

Gidoiak agindutakoa bete zuten jokalariek, eta baita, Antena 3 telebista kateko kazetari, teknikari eta errealizadoreek ere. Baina, partida ondorengo emanaldiaz derrigor esan behar dut zerbait. Publizitatea eta ospakizuneko irudiak aldi berean eskaintzea erabaki zuen Antena 3k. Bada, ez bata eta ez bestea. Ez dut sistema hori gogoko, ez zait batere gustatzen eta uste dut ez duela erakusten ezer. Antena 3 telebista kate pribatua da eta publizitateak agintzen duenean horrelakoak derrigor egin behar izaten dira. Baina beste modu batzuk badaude. Ospakizunaren benetako irudirik gabe geratu ginen. Pena izan zen.

# Arrasateko albisteak egunero

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Arrasaten eta inguruan sortzen, gertatzen edo izaten diren albiste eta bestelakoen berri izateko Arrasate Irratian egunero lantzen dituzte albiste zerbitzuak, 10:00etatik 11:00ak bitartean. Azken orduko albiste eta abisuak, eguneko protagonistekin elkarrizketak, gure ibarreko herririk herriko kronikak eta, besteak beste, eguraldiaren iragarpena Joxe Landaren eskutik.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
> Astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 12:00etara.


GOIENKARIA

## 'Ilunpean' saioan Ander Lipus aktorearekin

Sortzez markinarra, Ander Lipus aktorea ez da edonon aurkitzen diren aktore horietako bat. Zerbait berezia du, eta hori berehala antzematen da egiten dituen lanak ikusiz gero. Berritzailea da antzerkigintzan, eta horren seinale da 1999an jazo zuen aktore agertu-berri onenaren sariA. Egun, egile, zuzendari eta aktore dihardu hainbat antzezlanetan.

**GOITB, 'Ilunpean'**
> Martitzena, 22:15
> Eguaztena, 15:10

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 29**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berreportajea.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Jazz.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 30**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Solaskide.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Wasemak.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 31**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:30** Zaharrak berri.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Erreportajea.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 1**
**13:15** Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
**13:45** Itsasoari begira: Algorri interpretazio zentroa II.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo.
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45**Solaskide.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 2**
**13:15** Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Wazemak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Ander Lipus.
**23:00** Euskal Herria lau Haizeetara.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 3**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Jazz
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Mugaz kanpo.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** 28 Klip.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 4**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Lamien artean.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 23**

Eguzkia eta beroa izango dira nagusi gaur. Goizean haizea hego-ekialdetik sartuko da eta arratsaldean ipar-ekialdera egingo du.

**Domeka, 24**

Bihar zeruan urdina nagusituko da eta tenperatura gaurkoa baino epelagoa izango da. Itzalpean ibili beharko dugu.

### EUSKAL HERRIAN

Datozen egunotan, eguraldi ona izango dugu Euskal Herrian. Eguzkia eta beroa izango dira nagusi. Eguneko azken orduetan, dena den, bero-hodeiak gara daitezke.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Martitzena, 26 — 12º C

**MAXIMOA** Eguaztena, 20 — 28º C

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — 51 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 20 | 28 | 12 | 0,3 |
| Eguena, 21 | 19 | 14 | - |
| Egubakoitza, 22 | 24 | 14 | - |
| Zapatua, 23 | 24 | 14 | 0,5 |
| Domeka, 24 | 16 | 14 | 45 |
| Astelehena, 25 | 20 | 14 | 5,2 |
| Martitzena, 26 | 16 | 12 | - |



**Mertxe** oñatiarra eta **Tomas** legazpiarra maiatzaren 30ean ezkonduko dira Oñatin. Gure Ametsa jatetxean ospatu dute familiakoekin eta lagunekin. Zorionak! Ondo-ondo pasatu ezkontza egunean eta eztei-bidaian. Kiroldegiko lankideak.



**Nerea Berrikano** oñatiarra eta **Alex Kristobal** elgetarra maiatzaren 30ean ezkonduko dira Elgetan. Ondoren, Oñatin egingo dute ezkontza ospakizuna. Oñatiko lagunen partetik, zorionak eta izan zoriontsu, bikote!



Arrasateko **Patricia Morales** eta **Alberto Cabello** zapatuan, maiatzaren 30ean, ezkonduko dira Uribarriko elizan. Ospakizuna Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dute. Lagunen partetik, ondo-ondo pasatu eguna eta zorionak.



Eskoriatzako **Yolanda** eta Arrasateko **Ibai** zapatuan, maiatzaren 30ean, ezkonduko dira Dorletan. Gero, Vietnamera joango dira ezkon-bidaian. Familiakoen eta lagunen partetik, zorionak eta ondo pasatu eguna.



**Victoriano** eta **Itziar** miatzaren 30ean ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Zorionak eta patxo haundi bat seme alaben eta biloben partetik



Oñatiko **Jon Ander Urrutia** eta **Nagore Garcia de Albeniz** maiatzaren 30ean ezkonduko dira Asentzioko ermitan. Bazkaria Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dute eta bidaian Kanadara eta New Yorkera joango dira. Zorionak senideen eta lagunen partetik!

## bono fotoa



**Asteburu honetan jai bat izango da Arrasaten. Nola du izena?**

**Argazkia eta galdera** > Joxe Felix Diaz de Tuesta

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Bergarako **Beni Perez**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena:**
**Bidaurretako monastegia**

Garmendia Ardoak
Bodegas Larchago
LARCHAGO
Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago kriantza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ..........................................................
IZEN-DEITURAK ..........................................................
HERRIA .............................. TELEFONOA ..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 31 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 1 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 2 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 3 | Español | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 4 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 5 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 31 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 1 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena,2 | Urritikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 3 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 4 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 5 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 31 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 1 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 2 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 3 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 4 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 5 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 26 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 31 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 1 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 2 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 3 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 4 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 5 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.



Arrasateko **Angela Iglesias** eta Otxandioko **Iker Garaigordobil** zapatuan, maiatzaren 30ean, ezkonduko dira Arantzazun. Zorionak, bikote, eta eguna ondo-ondo pasatu. Lagunen partetik.



Arrasateko **Alfonsi Garcia** eta **Txema Garcia** 1984ko maiatzaren 26an ezkondu ziren Arrasaten. Zilarrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak familia guztiaren partetik, eta orain bezain ederki segi datozen urteetan ere!

ESKER ONA

## Jose Angel Iñarra Diez

2009ko maiatzaren 21ean hil zen, 78 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko maiatzaren 29an.

ESKER ONA

## Guillermo Urzelai Kortabarria

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 21ean, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko maiatzaren 29an.

ESKER ONA

## Felix Olabarria Gisasola

'Agarre'

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 19an, 84 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko maiatzaren 29an.

ESKER ONA

## Rafael Unamuno Aristegi

2009ko maiatzaren 20an hil zen, 78 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko maiatzaren 29an.

OROIGARRIA

## Ricardo Pagoaga Larrañaga

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 23an.

*Urte hauetan guztietan emandako maitasun eta esker onagatik, eskerrik asko.*

Bergarako anbulategiko lankide eta lagunak.
Bergaran, 2009ko maiatzaren 29an.

ESKER ONA

## Elena Etxaniz Beitia

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 25ean, 95 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko maiatzaren 29an.

ESKER ONA

## Patxi Leturia Arrue

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 8an, 67 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko maiatzaren 29an.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.
**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 100 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **140** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)**



URTEURRENA

## Peli Agirre Lizundia



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 31n, 11:00etan, Arrasateko Uribarri auzoko Itxaropenaren Amaren elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Joxepa Otaduy Ezpeleta

Angel Etxaberen alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 31n, 12:30ean, Musakolako Santa Teresa elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean

URTEURRENA

## Miren Arantxa Lizarralde Sudupe



Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 30ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Erreza izan zen zu maitatzea; ezinezkoa ordea zu ahaztea. Beti gurekin egongo zara.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Maiatzak 29-Ekainak 5

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



OÑATI

**> The Bon Scott Band, AC/DCren tributu taldea gaur Errekalde auzoan**

Oñatiko Errekalde auzoko jaien barruan, gaur, egubakoitza, kontzertua izango da, 21:00etan hasita. Never Surrender, Nuevo Catocismo Catolico, MC6 eta The Bon Scott Band taldeak (goian) arituko dira taula gainean.

## Musika



ARRASATE

**> Joe Henry estatubatuarraren emanaldia zapatuan Amaia antzokian**

*Civilians* da Joe Henryren azken diskoa, hamargarrena. Kritikaren oniritzia jaso du Henryren ibilbideak eta bihar, zapatua, Amaia antzokian izango da, 20:00etan. Sarrerak 10 eurotan eskura daitezke.

## Musika



OÑATI

**> Ganbara Txiki abesbatzaren bosgarren urteurrena ospatzeko, 'Kantua kalean'**

*Kantua kalean* jardunaldia zapatuan Oñatin. Haur abesbatzen jaialdia pilotalekuan, 18:00etan, eta helduen abesbatzen kalejira, 19:00etan. Gaur, egubakoitza, Ganbara Txikikoen kontzertua Bidaurretan, 18:30ean.

## Musika

BERGARA

**> Oi! The Arrase taldearen kontzertua**

Haiekin batera HBB eta Never Surrender taldeek joko dute.

Zapatuan, maiatzaren 30ean, Jam aretoan. Ateak 20:30ean irekiko dituzte. 10 euro eta 12 euro (leihatilan).

OÑATI

**> Udaberriko Musikaldien azken hitzordua**

Andeka Gorrotxategi tenorearen eta Josu Okiñena pianistaren emanaldia.

Domekan, maiatzaren 31n, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

## Antzerkia

ARRASATE

**> 'Eta Karmele?' antzezlana eguenean Kulturaten**

Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktoreekin. Emakume Txokoak antolatutako emanaldia.

Eguenean, ekainaren 4an, Kulturaten, 19:00etan.

## Bertsoak

ESKORIATZA

**> Euskal presoen aldeko bertso-afaria gaur**

Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi bertsolariekin.

Dorleta elkartean, 21:30ean. Afarirako txartelak Inkernun, 15 eurotan.

## Ipuinak

BERGARA

**> Koldo Amestoyren 'Izadi Mizadi'**

Eguenean, ekainaren 4an, Zabalotegin, 19:00etan.

## Erakusketak

BERGARA

**> Argazki erakusketa Aroztegin**

Bergara Hiria lehiaketara aurkeztutako lan aipagarriak daude ikusgai.

Ekainaren 2ra arte Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Domeka eta jai egunetan: 12:00-14:00.

ARETXABALETA

**> Eskulan erakusketa**

Hainbat artistaren eskulanak Arkupen jarri dituzte ikusgai.

Arkupe kultura etxean, maiatzaren 31ra arte. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan 11:00etatik 13:00etara. Domeketan itxita.

ARRASATE

**> Margo taldekoen artelanak Kulturaten**

Arrasateko margo taldekoen lanak jarri dituzte ikusgai.

Domekara arte, maiatzaK 31, Kulturaten.

ARRASATE

**> 'Pócimas feministas' erakusketa Emakume Txokoan**

Jone San Martinen muntaia, Rosa Silvaren irudiekin eta Begoña Zabalaren testuekin.

Ekainaren 1etik 11ra. Emakume Txokoak eta Emakume Internazionalistak taldeak antolatuta.

## Ikastaroak

BERGARA

**> Masaje ikastaroa Jardun elkartearen eskutik**

Alaitz Badiolak emango du ikastaroa ekainaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, 19:00etatik 21:00etara Aranzadi Ikastolan (psikomotrizitate gelan).

Izenematea maiatzaren 28ra arte Jardunen, Errotalde jauregia. 17 euro Jarduneko bazkideendako, 20 euro gainerakoendako. Argibideak: 943 76 36 61.

ARETXABALETA

**> Dantza libre topaketak hilean behin**

Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Maiatzaren 28an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidean egin daiteke.

ARRASATE

**> Eskulan ikastaroa eta makillaje ikastaroa**

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik. Eskulan ikastaroa martitzenero: 15:30-17:30 edo 18:00-20:00 (ekainaren 16ra arte).

Argibideak 943 79 83 70 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa ondoko telefonoetan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

PROPOSAMENA



BERGARA

**> Hainbat kontzertu Bergarako jaietan**

Ohi bezala, musika izango da Pazkoetako protagonistetako bat. Gaur, Emon, Xarma eta Ki Sap taldeek joko dute Bideberrin; bihar, zapatua, Willis Drummond, Zink, Mimmiskous eta Flyshit taldeak izango dira txosnetan; domekan, Os Gallardos, Belceblues eta Enrique Mingo y Los Efikazes; eta astelehenean berriz, Jan, Fiachras (argazkian) eta Lobo Electrico taldeen txanda izango da. DJ Elvis Cainok emango die amaiera jaiei.

Bideberrin, egubakoitzetik astelehenera.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz

**PLANETARIUM BERRIA**

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Maiatzak 30ean, 12tan euskaraz eta maiatzak 31n, 18tan gaztelaniaz.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat. Maiatzak 30ean, 16:15ean gaztelaniaz.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa. Maiatzak 30ean, 13:00etan gaztelaniaz eta maiatzak 31n, 17:00etan euskaraz.
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia. Maiatzak 31n, 13:00etan gaztelaniaz.
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa. Maiatzak 30ean, 17:00etan euskaraz eta maiatzak 31n, 11:00etan euskaraz eta 16:15ean gaztelaniaz.
**Eboluzioa (Berria!)** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu. Maiatzaren 30ean, 18:00tan gaztelaniaz eta maiatzaren 31n 12:00tan euskaraz.

**ETA GAINERA...**

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia.
**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten
**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

ARETXABALETA

**> Hainbat ikastaro egiteko aukera Arkupen**

Eskulanak, pintura, zeramika, fieltroa, fimoa, artile kardatua eta swaroski kristalak.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 79 41 39 zenbakian.

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Lanak entregatzeko epea irailaren 11ra izango da zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefono zenbakian edo *www.bideobilera.com* webgunean.

DEBA

**> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute, 6.000 euroko diru-laguntza emango duena. Gure herriaren azken 50-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke (adibidez: biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketak, ikerketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Proiektuak, abenduaren 1era arte bidal litezke helbide honetara: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba

DONOSTIA

**> Irratí-antzerki lehiaketa dFeriaren barruan**

*Teatro del aire* izeneko lehiaketa deitu dute arte eszenikoen dFeriaren barruan. 8 eta 15 minutu bitarteko istorioak grabatu behar dituzte lehiakideek, CD euskarrian. Gaia librea da eta euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke lanak. Kategoria bakoitzean 70 euroko sari bana emango dute.

Lanak entregatzeko epea datorren ekainaren 12ra arte dago zabalik. Argibide gehiago *dferia.com* webgunean jaso daitezke.

# Zinema



## Vacaciones de ferragosto ***

**Zuzendaria:** Gianni Di Gregorio.
**Aktoreak:** : Gianni Di Gregorio, Valeria de Francis, Marina Cacciotti. Italia, 2008. 75 min.

*Vacaciones de ferragosto* Roman kokatuta dago, abuztuaren 15eko jaiegunaren inguruan. Filma, kaleko eszena batzuk izan arren, etxe txiki baten gertatzen da. Giovanni, gizon heldu bat, amarekin bizi da, ama zaintzea da haren eguneroko lana. Arazo ekonomikoak dituzte eta horiek nolabait baretzeko eta beste gertakizun batzuk direla eta, Giovannik adineko bost andre zaindu eta sartu beharko ditu bere etxean.

Gianni Di Gregorio dugu filmaren zuzendari, gidoilari eta aktore. Istorio txiki baten aurrean gaude; bueno, agian, istorio bat baino gehiago pasadizo baten deskribapena da. Goian aipatutakoa komedia honen abiapuntua da eta hortik aurrera egoera horretan pertsonaia guztiek nola erantzuten duten ikusiko dugu. Horixe da, gutxi gorabehera, filmaren izaera. Gauzek oso itxura naturala dute, pertsonaia guztiek egiten eta esaten dutenak egiazkoa dirudi. Ematen du filmak ez duela egitura dramatikorik, kamera etxean kokatu dela han gertatutakoa filmatzeko.

Di Gregorioren filma Italian egindako komedia klasikoekin badu loturarik, baina desberdintasun batzuk ere. Italiako giroa, ohiturak eta izaera ondo islatzen dira, eta pertsonaia printzipalak badu pikarokeriaren ukitua. Baina desberdintasun gisa aipa daiteke film honetako pertsonaiek ez dutela keinu askorik egiten, ezta garrasirik egiten. Dena lasaiagoa, neurtuagoa da. Ez dira gauzak askorik sakontzen edo garatzen, istorio txiki bat da, horri hurbiltzeko modua zerbait oinarrizkoa da. Irudien filmaketan plano finkoak edo kamera oso hurbiletik pertsonaien aurpegiak eta mugimenduak jarraitzen erabiltzen da. Horrela, filma estetikoki gauza handia ez bada, badu bere puntua pertsonaiengana hurbiltzerakoan, eta azkenean istorio txiki batetik komedia atsegina ateratzen da.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Bienvenidos al norte**
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Gran Torino**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### ARAMAIO

**KULTURA ETXEA**

**My blueberry nights**
Egubakoitza: 22:15.

**Las monstruosas aventuras de Zipi y Zape**
Domeka: 17:00.

### EIBAR

**UNZAGA**

**Noche en el museo 2**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Hanna Montana: la película**
16:30, 18:30 (zapatuan eta domekan).

**Ángeles y demonios**
17:00, 19:45, 22:30.

**Sukalde kontuak**
20:00, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Nunca es tarde para enamorarse**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Carmo**
17:30, 20:00, 22:30 .

**Star Trek**
17:30 (zapatuan eta domekan).

**Sueños de juventud**
20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Seraphine**
17:30, 20:00, 22:30.

**Noche en el museo 2**
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
16:50, 19:40, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:15, 20:15.

**Radio encubierta**
17:00, 19:45, 22:30.

**El albergue rojo**
18:00, 20:15, 22:30.

**Good**
18:00, 20:15, 22:30.

**La reina Victoria**
19:45.

**Vacaciones de ferragosto**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**El milagro de Henry Poole**
18:00, 20:15, 22:30.

**Genova**
17:00, 222:30.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO-GORBEIA**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:30.

**Noche en el museo 2**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Presencias extrañas**
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:05, 20:05, 22.05, 00:05.

**Star Trek**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.

**Ángeles y demonios**
16:00 (zapatuan eta domekan), 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30, 00:40.

**Vamos a la luna**
15:35 (zapatuan eta domekan), 17:30.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**17 otra vez**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10.

**La reina Victoria**
22:35, 00:35.

**Hanna Montana: la película**
16:35 (zapatuan eta domekan), 18:35, 20:35.

**The International**
20:00, 22:10, 00:20.

**Fuga de cerebros**
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Monstruos contra alienígenas**
15:40 (zapatuan eta domekan).

**Al final del camino**
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45.

**Fighting: puños de asfalto**
19:45, 21:45, 23.45.

**Ponyo en el acantilado**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00.

**La montaña embrujada**
16:20 (zapatuan eta domekan).

**Gran Torino**
17:40 (domekan), 19:55, 22:05, 00:15.

**La sombra del poder**
19:15, 21:45, 00:15.

**Slumdog millionaire**
20:10, 22:20, 00:30.

Aste bukaerako ordutegia. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Ángeles y demonios**
16:30, 17:00, 19:20, 19:45, 22:15, 22:30, 01:00.

**Noche en el museo**
16:00, 16:20, 18:05, 18:25, 20:15, 20:30, 22:20, 22:35, 00:30.

**Star Trek**
19:30, 22:00, 00:30.

**Gran Torino**
20:15, 22:35, 01:00.

**Fuga de cerebros**
16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

**Nunca es tarde para enamorarse**
16:10, 18:10.

**Fighting: puños de asfalto**
20:10, 22:25, 00:45.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Presencias extrañas**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**17 otra vez**
17:00.

**Hanna Montana: la película**
16:00, 16:05, 18:00, 18:10, 20:10, 22:15.

**Monstruos contra alienígenas**
16:15, 18:10.

**La sombra del poder**
20:20, 22:45.

Maiatzaren 29tik ekainaren 4ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.



**Bienvenidos al norte** ***
Frantzia, 2008.
Zuzendaria: Dany Boon.
Aktoreak: Kad Merad, Dany Boon, Zoé Félix, Philippe Duquesne. 106 minutu.
Phillippe Abrams (Kad Merad) karteroa da eta haren borondatearen kontra Belgikarekin muga egiten duen herri batera bidaliko dute lanera. Mesfidantzaz doa, baina berehala egiaztatuko du toki idilikoa dela eta jendea benetan jatorra dela...

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Lejos de la tierra quemada** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo Arriaga.
Alejandro Gonzalez Iñarrituren (Amores perros) gidoigile izandako Guillermo Arriagaren lehenbiziko filma. Jatetxe bateko gerentea da Sylvia (Charlize Theron), lanean eta bizitzan bi aurpegi erakusten dituena. Goiz ala berandu bere iraganari aurre egin beharko dio....

**25 kilates**
Espainia, 2008. Zuzendaria: Patxi Amezkua.
Zorrak ordaindu ez dituztenei kobratzen egiten du lan Abelek; autoak lapurtzen ibiltzen da Kay; haren aita Sebasek lapurtutako gauzak erosten ditu; Garro lapurreten aurkako brigadako inspektorea da... Azken kolpearen zain daude denak.

**El curioso caso de Benjamin Button** *****
AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .
David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru saririkin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako.

**Gran Torino** ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

**Ponyo en el acantilado**
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

## nire aukera



**Felix Iñiguez de Heredia 'Felisin'**
Bergarako Jai batzordekoa

## Bitorianatxo hartzeko zain

Bitorianatxo bezain ezaguna da *Felisin*. Gaur, Bergarako jaiei hasiera ematen dien Bitorianatxo ezaguna hartuko du besoetan, udaletxeko balkoian, San Martin plazan bildutakoen poztasunaren artean.

Ez du zehazki gogoratzen noiz hasi zen Jai batzordean, baina 1980an izan daitekeela dio, "Gladys Tuteran hil zuten ondorengo urtean izan zelako...". Esan bezala, Pazkoetako ikur bilakatu da *Felisin* Jai batzordean egindako lanagatik. Urtean zehar Bitorianatxo ondo gordeta dutela dio, eta irrikaz dago jaiak hasteko, giroaz gozatzeko.

**Jaietan murgiltzeko, zapia jantzeko gertu, ala?**

Bai, badaukat gogoa. Pentsa, zapatuan ezkontza bat neukan Torrecilla en Camerosen, Errioxan, baina nahiago dut hemen gelditu, jaiekin behar bezala disfrutatzeko. Ea eguraldiak laguntzen duen eta antolatutako gauzekin jendeak ondo pasatzen duen... Bai, jaietako zapia urtero jantzen dut, Jardunekoek ateratzen dutena.

**Bitorianatxoren etorrerak gero eta jende gehiago erakartzen du.**

Bai; gaztetxoak izaten dira nagusi, baina nagusiak ere bai, seme-alabei edo bilobei laguntzeko. Giro berezia sortzen da plazan eta niri ere izugarri gustatzen zait. Jaiak hasteko modu polita da. Berez, urduria naiz, baina Bitorianatxo jaistera doanean oraindik urduriago jartzen naiz, gauza berezia sentitzen dut sabelean...

**Baduzu ekitaldi kuttunen bat Pazkoetan?**

Ez dakit. Gora eta behera ibiliko naiz egunero; saiatuko naiz ekitaldi guztietan *kuxkuxeatzen*.

**Bergarako jaietatik aparte, gustuko beste jai batzuk?**

Gaur egun ez naiz beste inora joaten... Bergarakoekin nahiko. San Martzial eguna gustatzen zait bereziki.

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-05-29

# Lehen 'Euskonauta', gurean

**UDAZKENEAN ESPAZIORA** Udazkenean espaziora joango den lehen euskaldun diabetikoa da Josu Feijoo gasteiztarra

**ARRASATEN BERBALDIA** Eguaztenean Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan egon zen, hitzaldia egiten

**MENDIZALEA** Mendizalea ere bada; Everestera igo da eta Ipar eta Hego poloak zeharkatu ditu, besteak beste

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE



Irudian, Josu Feijoo mendizale eta astronauta. GOIENKARIA

Josu Feijoo mendizale gasteiztarrak hitzaldia egin zuen eguaztenean Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan. Besteak beste, azken 20 urteotan mendian egindako ibilbide luzeaz hitz egiteaz gain, hemendik gutxira errealitate bihurtuko den "ametsaz" berba egin zuen.

"Amets" hori ez da nolanahikoa. Uda ostean espaziora joatea aurreikusita duen lehen euskaldun diabetikoa da. Bidaia hori zeregin zehatz batekin egingo du: diabetikoendako hainbat esperimentu egiteko igoko da, hain zuzen. Hauxe dio gasteiztarrak: "Proiektu horrekin diabetikoen bizi kalitatea zein gaixotasun hori dugunok jasaten ditugun giza baldintzak hobetzea lortu nahi dut".

Hiru proba egingo ditu han: batetik, glukosa neurgailu batekin bere gorputzeko glukosa kopurua mundura bidaltzen saiatuko da. Ondo irteten bada, aurrerapauso garrantzitsua izango da osasun etxetik urrun bizi diren diabetikoendako: "Medikuak denbora errealean ikus dezake pazientearen portaera". Bestetik, intsulina mota berria probatuko du. Esandako intsulina dagoeneko merkatuan badago ere, araudia dela-eta Euskal Herrira ez da hamabost bat hilabetera arte iritsiko. Eta azkenik, espazioak odolisuriaren bolumenean aldaketak eragiten dituen aztertuko du. Dena ondo baldin badoa, espazioan lau ordu inguru emango dituela adierazi du. Kaliforniatik aterako da, Mojave basamortutik.

**20 URTE DIABETESAREKIN**

Gasteiztarraren esanetan, "esperimentu hauen bidez diabetikoak gauzak egiteko kapazak" direla erakutsi nahi du. "Proba guztiak pasa ditut eta astronauta izatera helduko naiz; baina, aldi berean, ezin naiz hegazkin bateko pilotua izan, bizitzako nire ilusioa izan dena".

Diabetesa zuela esan ziotenean Feijook 20 urte zituen. Medikuak, orduan, esan zion aurreko bizimoduaz ahazteko. Kasurik ez dio egin eta urte hauetan guztietan erakutsi du gauza dela buruan sartzen zaiona egiteko. Besteak beste, Everest eta Shisha Pangma zortzimilakoak igo eta Ipar eta Hego poloak zeharkatu ditu.

Feijook azaldu du espaziora joateko egitasmoa nondik datorren: 5 urte zituenean Errege Magoei Athleticeko jantzia eta astronauta izatea eskatu ziela gogorarazi du: "Athleticeko jantzia beti izan dut. Eta beste ametsa betetzear dago. Hemendik bost bat hilabetera espaziora joango naiz. Orain dela bost urte irten zitzaidan aukera hori".

Espaziorako txartela lortzea, dena den, ez dela samurra izan dio Erregaiak bakarrik 200.000 dolar inguru balio du: "Horretaz gain, egindako probak eta jantzia garestiak dira. Horretan beste 200.000 bat dolar gastatu ditut". Euskal Herriko lau enpresaren babesa izan du horretarako. Bestalde, kaskoan ikurrina eraman nahi izateagatik oztopoak izan ditu: "Kostata baina azkenean ikurrina espaziora helduko da", dio.

## ahobero

### "Madrilgo Gobernuak Garoñako giltza ematen badit, hara joan eta zentrala itxiko dut"

**Txarli Prieto** > Politikaria

Horixe da Arabako PSE-EEko idazkari nagusiak asteon esan duena. Jakina denez, bere alderdiak askotan agindu du hauteskundeak irabaziz gero Garoña itxiko duela. Prietok ez du itxaron behar giltza jaso arte; egin behar duena da agindutakoa bete dezatela exijitzea. Besterik ez.

## iturri onetik

### Eskubaloiko III. Korpus txapelketa ekainaren 13an jokatuko dute Oñatin

Ekainaren 13an eskubaloiko III. Korpus txapelketa jokatuko dute Oñatin. Guztira, infantil mailako lau selekziok parte hartuko dute Zubikoa kiroldegian egingo den txapelketan; hain zuzen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako selekzioak izango dira lehiatuko direnak. Partiduak 09:30ean hasiko dira eta finalak arratsaldean izango dira: neskena 17:10ean eta mutilena 18:10ean.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Lehengo lepotik

Bazirudien 18/98 sumarioan zigorrak jaitsita eta gehiegikeria batzuk konponduta sententzia berriak bazuela onetik. Ordu gutxi eta Rubalcabaren poza aski izan dira jabetu gintezen sententzia honek funtsean errotu eta sendotu egiten duela terrorismoaren inguruan dena delitu denaren hipotesia. Eta onartzen zigorra oinarritu daitekeela soilik poliziaren txostenetan.

Beldurra eragiten du ezaugarri horiek dituen justizia sistemak. Behin etika eta kalitatearen balazta kendu eta justizia maldan behera abiatuta, ez dago gurdi hori gobernatuko duen amaren semerik. Galde diezaiotela bestela Garzon epaileari: berak asmatu zuen itsasten den delitu-txiklea eta gurdiari balazta kendu. Bueltan-bueltan, gurdia gainera etorri zaion arte.

## ai, ene!




### Animalien irudia duten postontzi bitxiak daude

Betiko postontziekin aspertuta daudenek badute dagoeneko postontzi bitxiak jartzeko aukera ederra.

www.sarda.es

IparProject
www.iparproject.com


Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa
Telleria 23, D5 pabilioia Labegaraieta Industrialdea BERGARA Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44